

Pello Mari Otañoren arnasa
1857-1910



*Intxaurrondotik onbura,
olerkariaren heriotzaren mendeurrenean
1910-2010*

Idazlan hau gauzatzerakoan lau iturri nagusi erabili dira: bibliografia, mota askotako artxibategiak, ahozko lekukotzak eta Internet sarea. Azkenik, eskuartean duzun liburuak saiakera eta dibulgaziorako materialaren antza du. Pello Mari Otañoren bizitzan alderdi ezagunak eta ezezagunak kontatu ditugu. Batzuk lehendik liburuetan eta ahoz zabalduak zeuden, eta beste kasu batzuetan hipotesiak eta guzti erabili behar izan ditugu. Informazio iturri fidagarrien bila, egileok egindako ahalegina aurkituko du irakurleak.

Pello Mari Otañori bizitzea tokatu zitzaion garaiaren aurpegi jakinak ekarri ditugu gogora. Horien ondoan, ordea, olerkari zizurkildarraren biografian ezezagun zitzaizkigunak ere aurkezten ahalegindu gara. Irakurleak esango du asmatu dugun.


Pello Mari Otañoren arnasa 1857-1910



*Intxaurrondotik onbura,
olerkariaren heriotzaren mendeurrenean
1910-2010*

“Euskera bizi bada, Otañoren bertsoak ere biziko dira. Eta auek arnasik badute, gure izkuntzak ere izango du” .

(Aita Zavala, 1998)



“Oroimenak” bildumaren azala: “liburu hontan jarri nahi ditut gogoratzen zaizkidanak” (Pello Mari Otaño, 1894 - Familia)

Egilea:

© Hernandorena Kultur Taldea

Argitaratzailea:

© Zizurkilgo Udala

Maketazioa eta inprimaketa:

antza komunikazio grafikoa • Lasarte-Oria

ISBN: ????????

Lege gordailua: SS -????-2010

Aurkibidea

Sarrera	9
1.- Euskal Herria XIX. mendean	13
2.- Zizurkil XIX. mendean	39
2.1.- Zizurkil II. Karlistada bitartean.....	39
2.2.- II. Karlistadaren eragina Zizurkilen. Belabietako guda	41
2.3.- XIX. mendeko Zizurkil datu eta zenbakitan.....	44
3.- Otañotarrak eta Barriolatarrak.....	69
3.1.- Barriolatarrak	70
3.2.- Otañotarrak	75
3.2.1.- Errekalde Zaharra.....	76
3.2.2.- Juan Pello Otaño Lasa	80
3.2.3.- Joxe Bernardo Otaño Lasa	83
4.- Pello Mari Otaño	91
4.1.- Zizurkilgo urteak (1857/1873)	92
4.2.- Donostian eta Amerikarako lehen bidaia (1873/1879)	100
4.3.- Donostian eta Amerikarako bigarren bidaia (1880/1890).....	102
4.4.- Berrito Donostian (1890/1898)	106
4.5.- Hirugarrenez Amerikan (1898/1910)	119
4.6.- Heriotza eta eragindako oihartzunak.....	133
4.7.- Bilakaera politikoa	137
5.- Argentinako ondorengoak	145
6.- Gu ta gutarrak	159
7.- La diáspora argentina	175
8.- Lore-Jokoetako poeta bat Hegoaldean	189

SARRERA

Kulturaren esparruan kezka genuen hainbaten artean osatu genuen Zizurkilen Hernandorena Kultur Taldea. Gure xede nagusiak honakoak dira: euskal historia eta etnografiaren inguruan jardutea, Zizurkilgoan bereziki; dokumentazioa biltzea, taldean hausnartzea eta herriaren esku uztea.

Eskuartearen hainbat proiektu genituela, Pello Mari Otañoren heriotzaren mendeurrena gainean genuela ohartu ginen. Datak ikusita, buru-belarri ekin genion ehungarren urte horren ospakizunen diseinua prestatzeari. Proposamena eratu eta Udalari aurkeztu genion lehenik, ezinbesteko jo baikenuen herriko ordezkariak ofizialaren parte hartzea. Ondoren, Otañoren familiaren, ikastetxeetako ordezkarien eta herritarren esku jarri genuen ekimena, denon artean garatzeko.

Onartu zen proposamenetako bat zuzen zuzenean zegokigun Hernandorena Kultur Taldeaosatzen dugunoi: Pello Mari Otañoren biografia egitea, Zizurkilen, Euskal Herriaren eta Argentinaren testuinguruak uztartuz. Gure lanak ez du Pello Mari Otañoren uzta literarioaren deskripzioa edo azterketa izan nahi. Ez, horrelakorik ugari baita lehendik eginga gure artean, asko eta taxuz burutuak gainera. Gure asmoa beste ubide batetik bideratu nahi genuen. Pello Mari Otañoren giza esparruari heldu nahi genion: zein ziren olerkariaren sustraiak, nolakoak izan ziren haren Zizurkilgo urteak, zein eratarera eragin zion hurbil hurbileko gerra giroak, nola eraman zuen batera eta bestera bizitzea tokatu zitzaion garaiaren zurrunbiloak... Jakina, herria garatu nahi badugu geure historiaren ezagutzatik abiatu behar dugu. Lan honek XIX. mendearen amaierako Zizurkilen eta Euskal Herrian murgiltzeko eta garai hura hobeto ezagutzeko aukera eskainiko digu.

Ezinbesteko izan zaigu Aita Zavalaren lanetara jotzea, hura izan baita, orain arte, Pello Mari Otaño gehien eta hobekien ikertu duena. Auspoaren Sail Nagusian bi liburukitan argitara eraman zuen *“Pedro M. Otaño eta bere ingurua”* izan dugu bereziki eskuartean. Baina Zavalaren lan eskergea, itzela, gehienbat bertso-produkzioan oinarritutakoa zen bezala, gureak, biografia-
ren bidetik jo du gehiago. Pello Mari Otañok bizitu zuena eta bizipen honen zergatiak ulertzen saiatu gara. Artxibategiak arakatu ditugu, dokumentazioa ikertu, txostenak irakurri, iturrietatik edan, ondorioak atera...

Laguntza handia izan dugu bidean. Ez bakarrik eskuartean duzun idazlan hau burutzerakoan, baita gure olerkari handiaren heriotzaren mendeurrena behar bezala gogoratzeko Zizurkilek prestatu nahi dituen ospakizunen antolaketan ere. Denak aipatzea luze joko luke, baina ezin ahaztu Pello Mari Otaño beraren ondorengoek eta hurbilekoek eskaini dizkiguten testigantzak, argazkiak... Eta bereziki, gehien estimatu duguna, lan honi ekiteko erakutsi dizkiguten animoak eta babesak. Hor izan ditugu, hurbilean eta gurekin bat eginda beti, Teodoro Mujika, Adunibarko Serapio Mendizabal, Kamio txikiko Miel Joxe Garmendia, Joxe Iztueta, Errekaldetarrak, Iragorritarrak... Herriko ordezkariak ere gertu, Maria Angeles Lazkano alkatea eta Ainhoa Larrea kultur teknikariaren eskutik. Eta, nola ez bada, ondoan beti proiektu honi beraien ilusioa eta gogoak eskaini dioten eta gurekin lankidetzan aritu diren Pello Mari, Aitor, Gari eta beste herritar asko. Aipamen berezia Leire Zubeldiarentzat ere, gure euskara baldarra orrazten hartu duen lanagatik.

Pello Mari Otañoren Argentinako aldiari buruzko aparteko aipamena egin beharra dugu, haiek baitziren urterik ilunenak zizurkildarraren biografian, baita Aita Zavala berarentzat ere: *“Urte oiek ondo argitzea zailla da guretzat. Obeto esateko, eziñezkoa ... ango azterketa angoentzat uztea erabaki dugu”* adierazi zuen tolosarrak Pello Mariren Ameriketako tartea jasotzerakoan. Ez genuen etsi, ordea. Iazko abuztuan Argentinan bertan informazio bila han hemenka ibiltzeko aukera izan genuen eta harrotasunez esan behar dugu hango familiako ondorengoekin eta euskal kultura suspertu nahian dabiltzan itsasoz besteko lagunekin bat eginez, sare trinkoa eratzerara iritsi garela. Diaspora suharrak Pello Mari errepublikano, euskaltzale eta abertzale aurkitzeko bidea eman digu.

Argentinako informatzaile eta babesle guztien artean La Platako unibertsitatearen euskal ordezkariak egiten ari den lan handia eta gurekiko erakutsi duten atxikimendua nabarmendu nahi genuke. Amerikako familiarren artean, zutik eta tinko dirauten Pello Mari Otañoren bi biloben testigantzak ezinbestekoak

suertatu zaizkigu: Olerkariaren bigarren seme Migelen alaba, Amelia Otaño, eta bereziki, gure iturri nagusia, Juanitaren alaba, Susana Ardanaz Otaño, *Txuri* lagunentzat. Txuriren testigantzatik eta bildutako dokumentazioaren haritik tiraka askatzen joan gara Pello Mari Otañoren bizitzaren Panpetako mataza, Zavala berarentzat ere argiezina zena. Gure eskertzarik handiena Txuriri.

Pello Mari Otañok memorian gordetako oroitzapenak idatzi eta bildu zituen *Oroimenak* izenekoan, etxekoek “*el libro atado*” esaten dioten bilduman eta ongi asko jasota dutena. Lanaren zergatia azaltzerakoan, “*aztutzen dira noiz-bait izkribatzen ez diranak*” zioen sorta horretan, eta arrazoi guztiz, Pello Marik. Zergati horrengatik berarengatik *Pello Mari Otañoren arnasa* bataiatu dugu gurea, ilusio handiz aurkezteko dizuegun lan txiki hau. Gure olerkariak ezagutu eta bizi izan zituen Zizurkil, Euskal Herria eta Argentina jasotzen ahalagindu gara, bihotza jaten zion herriminaren testigantza biltzen, hau da, *Oroimenak* deskribatzen. Idazlan honekin zizurkildar handiaren irudimena gordezko urratsa eman dugula uste dugu eta hurrengo belaunaldiek euskal olerkari eta bertsolari itzelaren memoria historikoa hobekiago eta sakonago aztertze-ko aukera izan dezaten euskarri txiki bat eskaintzen dugun itxaropena dugu.

HERNANDORENA KULTUR TALDEA

Pello Joxe Aranburu, Julian Arrastoa, Gurutze Asuabarrena,
Joxin Azkue, Bego Gil, Lurdes Salaberria, Eduardo Tormo.



EUSKAL HERRIA XIX. MENDEAN

1.1.- Foruak Karlistadak bitarte

Euskal Herriko bizitza politikoa eta soziala ahozko eta ohiturazko lege-dien bidez arautzen zen. Beranduago, ahozkoak ziren lege zahar horietan oinarrituta, foruak idatzi ziren. Beste hitzetan esanda, foruak Euskal Herriak izan dituen ahozko betiko legeetan oinarritutako bilduma idatzia besterik ez direla esan daiteke.

Horrela, Erdi Aroaz geroztik, probintzietako batzarrek jaso eta erregeak onartzen zituen legeen bilduma izan ziren foruak. Beraietan jasotzen ziren euskaldunek zituzten eskubide indibidual edo kolektiboak, baita erregearen aurrean zituztenak ere: zuzenbidezko eskubideen errespetua, bake garaian soldadutza egin beharrik eza, zerga-erregimen berezi eta pribilegiatua, aduana-zergarik eza, etab.

Esan bezala, lurralde bakoitzeko Batzarrak foru-legeak idazteko eta aldatzeko ahalmena zuen. Batzar horietan erabakiak gehiengoak hartzen zituen eta, gainera, Batzar Nagusiek eskubidea zuten foruen kontrako erregearen legeak ez betetzeko. Beste hitzetan esateko, bazegoen Batzarraren eta erregearen indarraren arteko oreka. Horregatik, erregeak ezarritako legeren bat

Batzarraren iritziz euskaldunentzat desegokia suertatuz gero, ez zitzaion jaramonik egiten: “onartzen da baina ez da betetzen” esaera erabiltzen zen.

Hori guztia, ordea, aldatzen joan zen 1800. urtearen bueltan. Foruek geroz eta eraso gehiago eta gogorragoak jaso zituzten eta hori oso agerian geratu zen Cadizko Gorteetako konstituzioarekin (1812): lehenengo aldiz hegoaldeko euskal foruak desagerrarazteko ahalegina egin zuen.

Armada frantziarrak 1808an Espainia militarki okupatu zuenean piztu zen Independentziako gerra. Espainiako biztanleria gehiena Independentziako gerran murgilduta zegoen bitartean, ilustratu batzuk Cadizko Gorteetan bildu ziren 1810ean. Ia Espainia osoa Napoleonen menpe gelditu zen, Cadiz izan ezik. Han elkartu ziren frantsesek hartutako hirietatik ihesi joandako burges liberal, funtzionario ilustratu eta intelektual asko eta han izan zuten britainiarren itsas armadaren babesa.

Batzar horretan bi joera nagusi azaldu ziren: liberalak batetik, berrikuntza iraultzaileen aldekoak, eta absolutistak bestetik, ordena monarkiko zaharra gorde nahi zutenak elizaren agintariekin bat eginez. Liberalek lortu zuten gehiengoa eta Cadizko Konstituzioa aldarrikatu zuten 1812. urtean.

Konstituzio honen arabera, erregeari funtzio legegilea kendu zioten eta Gorteei eman. Fernando VII.a erregea zela aitortu zuten, baina ez errege absolutua, konstituzio erregea baizik. Gizonezkoen sufragio unibertsala ezarri zuten eta pentsaera eta inprimatze-askatasuna onartu eta zentsura eta Inkisizioa deuseztatu ziren. Bere funtsa zera zen: estatu bakarra eta eskubide bakarrak. Beraz, espainiarren eskubideak erreinuetako eskubide historikoen gainera, hau da, foruen gainera ipini zituzten. Ondorioz, eta herritarren berdintasuna lortzeko helburuz, burokrazia zentralizatu, zerga-sistema bakarra, armada nazionala eta barne-aduanarik gabeko merkatua ezarri zuten. Foruak deuseztatzea zekarren horrek.

1814an, Independentziako gerra amaitu eta frantsesek Espainiatik alde egin zutenean, Fernando VII.a itzuli eta absolutismoa ezarri zuen berriro. Militarrak Erregimen Zaharra berriro ezartzearen aurka agertu ziren eta kolpe ahaleginak egin zituzten baina gehienek huts egin zuten. Arrakasta handiena 1820ko Riego komandantearen altxamenduak izan zuen eta Espainian liberalismoa ezarri zen hiru urtez. Baina Frantziako armada Espainian sartu eta Fernando VII.aren absolutismoa berrezarri zuen.

1.2.- Fernando VII.aren ondorengotza-arazoa

Fernando VII.aren erregetzaren azken urteetan, 1830eko urrian, jaio zen Borboiko Isabel. Azkenean, Fernandok eta Maria Kristina errege-erreginak lortu zuten ondorengoa izatea, nahiz eta horretarako erregeak lau bider ezkondu behar izan zuten.

Erditu baino hilabete gutxi aurretik, jaiotzear zegoena gizonzkoa ez izateak sor zitzakeen arazoak aurreikusiz, Fernando erregeak *Pragmática Sanción* deitutako legea onartu zuen. Beraren arabera, 1713tik Espainian indarrean zegoen eta emakumezkoak errege-aulkitik baztertzeko zituen ondorengotza-legea, *Ley Sálica* izenez ezagutua, deuseztatu zuen.

Semea ez, alaba jaio zitzaien errege-erreginari. Lege berri honen arabera, Fernando erregearen anaia eta ordura arte bere ondorengo zen Karlos M^a Isidro, errege-aulkirako bidea itxita ikusi zuen eta ez zuen bere ilobaren aldeko lege aldaketarik onartu. Gerra zetorren.

1833ko irailean Fernando VII.a, Espainiako erregea, hil zen bere oinordekutzaren auzia benetan ebatzi gabe. Alaba Isabeli uzten zion tronua eta hau adin-nagusitasunera iritsi arte Maria Kristina jartzen zuen erreginaorde, baina Don Karlos infanteak ez zuen onartu erabaki hau, uste baitzuen anaia-aren oinordekotza berak jasoko zuela.



Fernando VII.aren heriotza, 1833ko irailaren 29an (Mendez, 1845. Zumalakarregi Museoa)

1.3.- Lehen karlistada

1833ko irailean hil zen Fernando VII.a, Espainiako erregea, bere oinordekutzaren auzia benetan ebatzi gabe. Esan bezala, bere alaba Isabeli utzi zion tronua. Berehala hasi ziren han-hemenka Karlos errege-gaiaren aldeko matxinadak eta altxamenduak. Sei urte luze iraungo zituen gerra zibil luzea ekitera zihoan.

Bataren eta bestearen aldekoak bi bandotan zatitu ziren: liberal edo kristinoak alde batetik eta karlistak bestetik. Ondorengotzaren gatazkak Espainia osoa politikoki eta sozialki zatikatzen zuen eztabaida estaltzen zuen. Isabel erreginarenekin alde zeuden armadaren, elizaren eta estatuaren goi agintariak. Haei gehitu zitzaion burgesia liberala, Isabel haurtxoaren eskubideen dinastikoen aldeko defentsan beraien idealen garaipena ere ikusten baitzuten.

Karlisten aldean, berriz, iraultza liberalaren aurka zeuden guztiak batu ziren: jauntxo nekazari txikiak, behe-kleroaren zati zabal bat eta nekazari gehienak. Azken hauek, nekazariak, liberalismoaren aldaketetan zerga-igoe-ra besterik ez zuten ikusten.

Oso kontuan hartu behar da foruen gaia. Karlistaldiak ulertzeko garaian, ezinbesteko izango da. Foruen baitan oinarritzen zen euskal prozesu produktibo osoa eta beraien inguruan mugitzen zen bizitza politikoa. Gainera, Foruen aldeko mugimendu handiak euskal gizartearen gehiengo zabalaren kultur, giza eta ekonomiaren nortasunarekin bat egiten zuen. Bai: euskal gizartearentzat goi politika oso urrun zegoen zerbait bazen ere, ez zen gauza bera gertatzen foruekin: barne-barnean zeramatzen.

Aduanen gaia gatazka ekonomikoaren muina bihurtu zen. Gobernu zentralaren presioaren eraginez Bilbo eta Donostiako kaiak geroz eta gutxiago erabiltzen ziren, euskal burgesia liberalaren jarduera komertziala gutxituz. Hori dela eta, burges liberal hauen aldarrikapen nagusia mugak Ebrotik itsasora eta Pirinioetara eramatea eta, beraz, foruak deuseztatzea izango da. Asmo horrek, noski, talka egiten zuen euskal gizartearen gehiengoaren nahiarekin.

Burgesiari, gainera, ez zitzaion komeni foruen baitan herrietako ordezkartzan oinarritzen zen Batzar Nagusien sistema. Kontrol politikoa bermatzearen, sufragio zentsitarioaren aldeko izango dira. Garbi geratuko da burgesiarentzat beraien krisitik ateratzekotan Foru Erakundeen aurka jo behar

zuela. Horregatik, burgesiak, askatasunaren izenean, Ebroko aduana lehorrak desegiten eta itsasora eramaten saiatu zen, euskal gizartearen gehiengoaren interesen aurka ari bazen ere.

Horrela ulertzen da Karlismoak izan zuen indar eta eragin handia nekazaritza esparrutan: Euskal Herrian, Ebro haranaren iparraldean eta Castelloko Maestrazgo eskualdean gehien bat. Aldiz, Bilbo, Donostia edo Iruñea bezalako hiri handiak liberalen alde iraun zuten gatazka guztian zehar.

Karlismoaren ideologia “Jaungoikoa, Aberria, Foruak eta Erregea” leloan laburbiltzen zen. Beraien programa politikoa lau zutabe hauetan oinarritzen zen:

- Betikotasuna edo, inobilismoa, erreforma liberalen aurkako erabateko jarrera.
- Monarkia absolutuaren defentsa, foruak bermatuko zizkiela agintzen baitzien.
- Eliza tradizionalistaren eta haren interesen aldeko bete-beteko jokaera. Ezin uka herrietako elizetako pulpituetatik zabalduetako mezuek honetarako izan zuten eragina.
- Oro har, euskal foruen defentsarako jokabidea, liberalen berdintasunaren eta zentralismoaren aldeko asmoek eragindako mehatxuen aurka. Garbi zuten: foruek autogobernu eta justiziara erakundeak bertakoak izatea eta zergarik eta soldadutzarik eza bermatzen zieten.

Hiru aldi nagusitan sailka daiteke Lehen Karlismaldia. Lehenengoan, Zumalakarregi buru zutela eta bataila handiegirik gabe, karlistak nekazaritza esparruen jabe egin ziren. Zumalakarregik liberalak behin eta berriz garaitu zituen.

Tomas Zumalakarregi Ormaiztegin jaio zen 1784an eta Zegaman hil 1835ean. Espainiar eta Napoleonen arteko Independentziako gerran parte hartu eta koronel-gradua lortu zuen. Ferrolgo gobernadore militar izan zen eta Fernando VII.a hildakoan, Lehen Gerra Karlistan parte hartu eta karlisten buru eta armada-antolatzaile izan zen. Espainiako iparraldean ari zen armada liberalaren kontra borrokatu zuen behin eta berriz eta gudaroste sendoa eratu zuen. Ia Nafarroa osoa, Trebiñu, Bizkaia eta Gipuzkoa (Bilbo eta Donostia izan ezik) karlisten esku jarri zituen. Don Karlosen aldeko armadaren buruzagiekin

etengabe gorabeherak izan zituen. Bilbo setiatzen ari zela zauritu egin zuten eta etxerako bidean hil zen, Zegaman. Bertan ehortzi zuten.

Zumalakarregiren heriotzak gauza franko aldatu zituen. Karlisten buruzagien artean sekulako diferentziak zeuden eta, gainera, liberalak hiriburutik kanpo garaipenak lortzen hasi ziren. Karlistak Bilbo setiatzen saiatu ziren, baina Esparterok setioa gainditu zuen. Hala eta guztiz ere, karlistek oraindik garaipen garrantzitsuak izan bazituzten ere, lehendik lortutako plazak nagusiak galtzen hasi ziren. Horrela, esan daiteke gerraren lehen urte horiek nahasi samarrak izan zirela gatazkan ari ziren alde baterako zein besterako. Baina Zumalakarregiren heriotzaren ondoren eta 1837az geroztik bereziki, bat bestearen atzetik iritsi ziren karlisten porrotak

Hiriburuak bereganatzeko ezintasunarekin, laster hasi ziren handitzen krisiak karlismoaren barruan. Zumalakarregiren heriotzaren ondoren karlisten buruzagi bihurtu zen Maroto elkarrizketatzen hasi zen Espartero liberalen buruzagiarekin eta horren aurka azaldu ziren karlistak fusilatu zituen inongo gupidarik gabe. Irtenbiderik ikusten ez zuenez, Don Karlosek amore eman zuen eta Dantxarinearik barrena Frantziara ihes egitea beste erremediorik ez zitzaion geratu.



Zumalakarregi (Ormaiztegi, 1788 / Zegama, 1835) - (Karl-Ferdinand Henningsen, 1839 - Zumalakarregi Museoa)

Lehen karlistada hau Bergarako Besarkadarekin (1839) amaitu zen. Akordioa Esparterok eta karlisten buruzagi bihurtua zen Marotok sinatu zuten. Akordioaren bidez foruetako batzuek mantentzea lortu zen, beste batzuek galdu ziren bitartean. Baina Esparterok berebiziko garrantzia zuen eranskina gehitu zion legeari. Foruak onartzen ziren, bai, baina batasun konstituzionalari kalterik ez egiteko klausularen baldintzapean: “Monarkiaren batasun konstituzionalaren kalterik gabe”. Beste hitzetan esanda, foruek, oroimen historikoan garatu ziren eskubide izatetik garaiko erregearen mese-

de izatera pasatu ziren. Noski, erregeak emana baina erregeak ken zezakeena. Hortik aurrera foruei etengabeko erasoak egingo zitzaizkien.

1.4.- Maria Kristina Borboikoaren erreginaordetza

Fernando VII.a 1833an hil zenean, bere alaba Isabel hiru urte besterik ez zituen haurtxoa zen. Fernandoren emaztea eta Isabelen ama Maria Kristina Borboikoa ez zen liberalen gustukoa baina hauen aburuz Isabelen errege-aulkiari eusteko gai izan zitekeen bakarra zen. Horregatik bildu ziren liberalak beraren inguruan.

Maria Kristina Borboikoa erreginaordeak Martinez de la Rosa liberal moderatua jarri zuen gobernuburu eta karlistekin amaitzeko enkargua eman zion. Martinez de la Rosak hainbat aldaketa bultzatu zituen, garrantzi handia izan zuen 1834ko Errege Estatutu moderatua bereziki. Bi ganbaraz osatutako parlamentu-batzarrak eratu zituen, Gorteak (*Las Cortes*) izenarekin: Espainiako goi aristokraziako handikiek osatutakoa bata eta hogeita hamar urte beteak eta 12.000 errealetik gorako errenta zuten gizonezkoena bestea.

Bi ganbara hauek oso funtzio eta eginbehar mugatuak zituzten. Erregeak berak botere gehienari eusten zion: Gorteak nahi bezala biltzeko deitu edo Gorteak beraiek desegiteko ahalmena zuen. Gainera, Gorteetan onartzen ziren lege guztien gaineko beto eskubidea beretzat hartzen zuen, hau da, proposatzen ziren lege edo akordio guztien onarpena indargabe uzteko eskubidea zuen...

1.5.- Liberalen arteko zatiketa

Martinez de la Rosaren aldaketok eztabaida handia eragin zuten liberalen artean. Batzuentzat neurri egokiak ziren bitartean, beste batzuek eskubideen eta askatasunaren atzerapauso bezala ikusten zituzten. Eztabaida honen ondorioz liberalen multzoa bitan zatikatu zen: moderatuak batetik eta progresistak bestetik.

Horrela laburbil daitezke liberal progresisten asmoak:

- Erregearen eta koroaren boterearen mugatzearen aldeko ziren.
- Askatasunen zabaltzea aldarrikatzen zuten.
- Erreforma sakonen aldeko jarrera eta, bereziki, elizaren eta herri-ondasunen desamortizazioa bultzatzen zuten.

Liberal progresistak hiriko klase ertainetan oinarritu zuten beraien indarra: artisauak, dendariak, enplegatuak... Beraien buruzagi nagusienak Espartero bera, Mendizabal, Madoz, Prim... izan ziren. Maria Kristinaren erregina-ordetzan zehar oso urte gutxitan lortu zuten boterea eskuratzea baina 1834ko Errege Estatutu moderatua deuseztatu eta 1837ko konstituzioa aurrera ateratzea lortu zuten.

Liberal moderatuak, bestalde, iritzi kontserbadoreagoari eutsi zioten:

- Ordena eta aginte indartsua nahi zuten: erregaren boterea sendotzea eta askatasunak murriztea.
- Beraien eta, bereziki, handikien ondasunak zalantzan jartzeko jarrerak zapaltzea.

Moderatuen indarra goi mailako gizartean oinarritu zen: lurjabe handiak, industria-gizon boteretsuak, finantza eta komertzio-burgesia... Buruzagi nagusienak Martinez de la Rosa bera eta Narvaez jenerala izan ziren.



Gasteizko plaza (Major, 1839 - Zumalakarregi Museoa)

1.6.- 1837ko Konstituzioa

Militarren arteko istiluak tarteko, Maria Kristina erreginaordeak progresistei agintera deitu besterik ez zuen izan. Mendizabal buruzagi progresistak eraldaketak proposatu eta bildu zituen 1837ko Konstituzio berrian:

- Subiranotasuna, zalantzarik gabe, herriari zegokion, ez erregeari.
- Gorteak bitan banatu zituen: Diputatuen eta Senatuaren ganberak.
- Lege guztiek bi ganberen onarpena lortu beharko zuten.
- Botere exekutagarria erregeari dagokio eta berari onartzen zaio. Gainera, beto eskubidearekin jarraitzen zuen, ministroak izendatu...
- Norbanako hainbat eskubide jasotzen zituen.
- Prentsa askatasuna legeztatu zen eta beste erlijioak ez ziren debekatu.
- Estatuak bultzatutako desamortizazioaren eraginez kaltetutako kleroa diruz laguntzeko prest agertu zen.

Progresistek bultzatu zuten hauteskunde legearen baitan gizonezkoen boto zentsitarioa onartu zen. Zentsitarioa, zeren eta gutxieneko ondasun eta ikasketak maila eskatzen zen. Gutxi gorabeherako kalkuluen arabera, esan daiteke biztanleriaren %2ak eskas izan zuela progresisten garaiko hauteskundeetan parte hartzeko aukera. Gogoan izan progresisten garaiaz ari garela, ez moderatuenaz.

Mendizabal gobernuburuak elizaren eta herri-ondasunen desamortizazioa, kendu eta salmantan jartzea alegia, bultzatu zuen. Erdi Arotik hasita, Elizaren eskuetara pasatutako ondasunak eta gehienbat lurak oso ugariak eta zabalak ziren. Nekazaritzaren berrikuntzaren eta ekonomiaren modernizazioaren ize-nean ondasun-masa hori zirkulazioan ipini nahi zuten progresistek. Bi helburu garbi zituzten horretarako:

- Elizaren lurak klase dirudunei eskaini, horrela dirudunen sektore indartsua bere alde erakartzeko karlismoaren aurka.
- Bide batez, estatuak berak baliabide ekonomikoak lortu eta bere zor publikoa jaitsi.
- Eta Elizari buruz esandakoak balio zuen nolabait udalen ondasun askori buruz ere. Desamortizazioak, ordea, Karlistadetan harrapatu zuen Hego Euskal Herria; horregatik liberalak nagusi ziren lekuetan bakarrik aplikatu ahal izan zuten.

Desamortizazioak ez zuen gehiegi eragin nekazaritzaren berrikuntzan eta ekonomiaren modernizazioan, progresistek nahi bezala. Izan ere, Elizaren eta udalen desamortizazioak ez zuen nekazaritzaren banaketa hoberik lortu; alderantziz, lurraren lehen baino kontzentrazio handiagoa eragin zuen, lur-sail handiak erosle dirudunen eskuetara pasaz.

1840an Maria Kristina bere kargua utzi beharrean aurkitu zen. Bere ordeztan, Espartero jenerala jarri zuten erregeorde (1841-1843). Baina honen agindupean sortu ziren istiluek moderatuen matxinada militarra eragin zuten eta 1843an 14 urte besterik ez zituen Isabel II.a erregina aukian jar-tzea ekarri zuen.

1.7.- Isabel II.aren erregetza: Hamarkada Moderatua (1844-1854)



Emakume bat (Petit de Meurville, 1860 - Zumalakarregi Museoa)

Erregina berriak garbi erakutsi zuen hasiera-hasieratik moderatuen aldeko joera, progresisten kaltetan. Isabel II.ak moderatuen buruzagi nagusia zen Narvaez jenerala jarri zuen gobernuburu.

Urte hauetan, 1844an zehazki, sortu zen Guardia Zibila, *Txapelokerrak* deituak, nekazaritza inguruetan jarduteko helburuz bereziki. Bide batez, Milizia Nazionala deuseztatu zen. Bestalde, udalen lege berria onartu zen: horren arabera, alkateen aukeraketa gobernua- ren esku geratu zen, ez herritarrenengan.

Narvaezen gobernu modera- tuak oligarkiaren mesedetan prestatutako hauteskunde lege berria egin zuen. Haren arabera,

Espainia guztiko 97.000 biztanleei soilik aitortu zitzaien botoa emateko eskubidea. Elizarekin ere lortu zen akordioa, Konkordatua. Honen baitan, Elizak desamortizazioa onartzen zuen eta estatuak, ordainez, diru-laguntzen bidea ireki eta Elizaren gain uzten zituen irakaskuntzaren kontrola eta zentsura. Erljio katolikoa Espainiako erlijio ofiziala bihurtu zen.

Gizabanako eskubideak asko murriztu ziren urte hauetan, adierazpen askatasuna bereziki.

XIX. mendearen erdi aldera, 1855ean, oso garai nahasia iritsi zen. O'Donnell jeneralaren progresistak eta Narvaez jeneralaren moderatuak agintean tartekatzen joan ziren. Aldiro legedia aldatzen zuten eta gizartearen egonezina areagotzen joan zen.

Ekonomiak, ordea, gora egin zuen eta horrek hainbat obra publiko bultzatzeko aukera eman zuen. Horrela eraiki ziren garaiko trenbiderik ezagunenak, gure "Norteko ferrokarrila" tarteko.

Baina biztanleriaren egonezina handitzen ari zen heinean, errepresioak ere gora egin zuen. Isabel II.aren irudi publikoa lotsagarria izatera iritsia zen. Estatuko gizartea eta erregina geroz eta gehiago urrundu ziren.

1.8.- Iraultza Gloriosoa eta Amadeo Saboiakoa

Azkenik, ezinbestean, iraultza iritsi zen 1868an. Isabel II.a Donostian zegoen une hartan eta Frantziara ihes egin zuen. "Iraultza Gloriosoa" deituriko matxinada oztoporik gabe hedatu zen Espainia guztian zehar.

Serrano eta Prim jeneralek hauteskundeetara deitu zuten gizartea. Azpimarratzekoa da hauteskunde hauen prozesua sekula baino garbiagoa izan zela. Emaitzetan progresistak gailendu ziren eta XIX. mendeko konstituziorik erradikalena idatzi zen 1869an. Aldaketa interesgarriak ekarri zituen konstituzio berri horrek:

- Subiranotasuna herriari dagokio, ez erregeari.
- Monarkia demokratikoa onartzen zen. Beraz, erregearen boterea mugatu zen.
- Botere exekutiboa Ministro Kontseiluaren esku utzi zen. Judiziala, aldiz, Epaitegiei zegokiela onartu zen.

- Sufragio unibertsala eta zuzena ezarri zen 25 urtetik gorako gizonezkoentzat. Hauek hautatzen zituzten Gorteetako ordezkariak, bai Senaturako eta bai Kongresurako ere.
- Giza eskubide zabalak aldarrikatu ziren. Lehendabizikoz biltzeko eta elkartzeko eskubidea onartu zen.
- Erlijio askatasuna onartu zen.

Borboien aukera baztertuta, errege berri baten bila hasi ziren Europako gorteetan zehar. Azkenik, Prim jeneralaren eraginez bereziki, Italia batzea lortu berri zuen Viktor Manuel II.aren seme gaztea aukeratu zuten: Amadeo Savoiakoa.

Baina Amadeo Espainiara iritsi zen egun berean Prim jenerala erail zuten atentatu baten bidez. Gertakizun horrek errege berriaren egoera erruz ahuldu zuen hasiera-hasieratik, bere babesle eta euskarri sendoena galdu baitzuen. Gainera, Amadeok aurrez-aurre izan zuen ia gizarte guztia: karlistak altxatuta zebiltzan, Borboien aldekoek ez zuten etsi eta errepublikazaleek indarra hartua zuten. Gizartearen erantzun horrek ezinbesteko pitzadura handiak eragin zituen Amadeo erregearen egoeran. Hori guztia gutxi balitz, Amadeoren erregetzak iraun zituen bi urteetan babesa eskaini zioten talde eta alderdien arteko tirabirak ere areagotzen joan ziren.

Amadeok, aurrera jo ezinik eta egoerarekin nazkatuta, Espainiako erregeztatik abdikatu eta Italiara, etxera itzuli zen. Europako koroen artean ordezkari erregerik aurkitzeko aukerarik gabe, Espainiako Gorteek Errepublika aldarrikatu zuten 1873an.

1.9.- Lehen Errepublika: 1873

Errepublikanoek ez zuten gehiengoa Gorteetan. Hala ere, aldarrikatu zen Errepublika. Babes gutxi izan zuen hasiera-hasieratik eta erakunde boteretsuenak aurrean izan zituen. Goi burgesiak, lur-jabe handiek, armadako buruzagi gehienek eta Elizaren agintariek Errepublikaren gobernu berriaren aurka jo zuten etengabe. Errepublikak alde izan zituen ia bakarrak hirietako klase ertainak izan ziren. Nekazariak ere ez zuten begi onez ikusten Errepublika eta industriaren langileriak gehiago babestu zuen sortzen ari zen mugimendu anarkista indarrean zegoen gobernu bano.

Horrek guztiak sekulako ahultasuna eman zion Errepublikari. Hala eta guztiz ere, hainbat aldaketa esanguratsu bideratu zituzten Figueras, Pi y Margall, Salmeron eta Castelar-ek zuzendu zituzten gobernuek:

- Herriaren eskaerari jarraituz eta Errepublikaren ogasuna gehiago ahuldu bazuen ere, kontsumoaren zerga zuzenak deuseztatu ziren.
- Karlistadan murgilduta egon arren, derrigorrezko soldadutza ezabatu zen.
- Boto-eskubidea 21 urteetara jaitsi zen.
- Estatua eta Eliza bereizi zituen. Horrek Elizak jasotzen zituen diru-laguntzak moztea ondoriotatu zuen eta, noski, haren haserre bortitza.
- Haurren lan-esplotazioa debekatu zuen eta oraindik indarrean zirauen Kubako esklabotza deuseztatu zuen.

Bitartean, Bigarren Karlistada puri-purian zegoen. Gainera, errepublikano ezkertiarrenak eta anarkistak altxamenduak bultzatzen aritu ziren etengabe. Hau gutxi balitz, Kuban ere independentzia gerra lehertuta zegoen eta horrek guztiak erabat egonezina bihurtu zuen Errepublikaren egoera politikoa eta soziala.

Ondorioz, Isabel II.aren seme Alfontsoaren aldeko konspirazio militarrik ia egunerokoak bihurtu ziren.

1.10.- Borboikoen Berrezartzea eta Alfontso XII.a

Alfontso XII.a Isabel II.aren eta Don Francisco Asisko eta Borboikoa printzearen semea zen. Don Franciscoren homosexualitatea zela eta, Enrique Puig Molto kapitaina edo Francisco Serrano jenerala jotzen dira bere benetako aitatzat, biak erreginaren maitale ezagunak.

Umea zela, 1868ko Iraultza Gloriosoak erbestera bultzatu zituen bera eta bere ama Isabel. 1870. urtean Isabel II.a erreginak semearen alde utzi zituen bere eskubide dinastikoak.

1874an Pavia jeneralak estatu-kolpea zuzendu zuen Errepublikaren aurka. Gorteak deuseztatu ziren eta handik gutxira Martinez Campos jeneralak gidatu zuen bigarren estatu-kolpeak monarkia ezarri zuen berriro eta



Azoka egun bat Tolosan (Eriz, 1879 - Zumalakarregi Museoa)

Alfontso XII.a errege izendatu zuten. Borboikoen dinastia Espainiako erregeztan genuen berriro, Isabel II.aren semearen bidetik.

Berehala Gorteak, Konstituzioa bera eta eskubide eta askatasunak deuseztatu zituen Alfontso XII.ak.

1.11.- Bigarren Gerra Karlista (1872 - 1876)

Amadeo I.a Saboiakoaren agintaldian, Serrano jenerala izendatu zuten iparreko armada buru. Lehen ahalegin batean Rada jeneral karlistak altxamendua bideratu zuen. Moriones liberalak, ordea, laster asko garaitu zuen eta etorri berri zen Don Karlosek Frantziara ihes egin zuen berriro. Moriones liberalak liskartuta zebiltzan Euskal Herriko azken karlistak garaitu zituen eta Zornotzako Akordioa sinatu zuen beraiekin, baina Don Karlosek eta zenbait buruzagi karlistek, Santa Kruz apaiza tartean, ez zuten itun hori onartu.

Manuel Santa Kruz, Santa Kruz apaiza, Bigarren Karlistadak erakutsi zigun pertsonaia nagusienetakoa izan zen. Elduainen jaio zen, 1842an eta Kolonbian hil 1926an. Hernialdeko erretore zela, karlisten aldeko izan eta

jarduteagatik ihes egin behar izan zuen. Karlisten gerrilla-buru jarri zen, baina bai liberalen bai karlisten kontra gogorkeria handiz jokatzen zuela-eta, atzetik izan zituen etenik gabe bai liberalak, baita karlistak beraiek ere. Aste-asun, 1873an, Lizarraga karlistarekin bildu zen. Bere helburu zehatza, hau da, bahitu edo bakeak egitea zen eztabaidatzen da. Ihesari eman eta izugarrizko mugikortasuna eta eraginkortasuna erakutsi zuen gerrillari-talde armatu bat osatu zuen. Gipuzkoan eta bereziki Oiartzungo Aritxulegi inguruan jardun zuen gehien. Gerra amaitu aurretik utzita, Ameriketara joan zen. Jesusen Lagundian sartu zen eta misiolari ibili zen Jamaikan. Kolonbiara joan eta bertan hil zen laurogeita lau urte zituenean.

Karlistek berriro gerrari ekitea erabakia zuten 1873an. Gerraren hasiera horretan, Lehen Errepublika aldarrikatu bitartean, karlistek garaipen garrantzitsuak lortu zituzten. Gainera, Errepublika garaian, anarkiak eta gobernua-ren erlijogabetasunak indar berria eman zion mugimendu karlistari.

Don Karlos Nafarroara sartu zen bigarrenez. Karlistek Gipuzkoa osoa menperatzea lortu zuten (Tolosa, Donostia eta Irun izan ezik). Bizkaian, Bilbo eta Portugalete bakarrak zeuden errepublikanoen esku, eta karlistek Bilboren



Don Karlosen agurra 1876an espainiar lurraldetik irtetean (J. Alaminos, 1876 – Zumalakarregi Museoa)

setioa prestatu zuten abenduan. 1873ko maiatzeko Jurramendiko garaipen garrantzitsuaren ondoren, Lizarra ere karlisten menpe geratu zen. Ia Hego Euskal Herri osoa karlisten esku zegoenean, hauek, erasoak gelditu eta Bilboren setioan bildu zituzten indarrak.

Somorrostron karlistek liberalak garaitzea lortu zuten eta Moriones jeneral liberalak atzera egin behar izan zuen. Bitartean, Alfontso XII.a tronura igoa zen Errepublikaren aurkako altxamenduaz baliatuz eta karlistek setiatuta zeukaten Iruñera laguntza bidali zuen. Alfontso errege berria bera ere bertan izan zen. Gasteiz eta Arabako kontrola galdu zutenean, karlisten buruzagien artean eztabaida sortu zen. 1875ean armada liberalak gudaroste karlista menderatzea lortu zuen Katalunian eta Maestrazgon, Castello lurraldean. Giro horretan, liberalek pixkanaka-pixkanaka Gipuzkoa eta Nafarroako lurrak konkistatu zituzten. 1876ko otsailean Don Karlosek eta bere jarraitzaileek Frantziara ihes egin zuten. Berriro ere porrota karlistentzat.

1.12.- Foruen erabateko deuseztatzea

Euskal Foruek jasan zuten azken kolpe latza 1876an gertatu zen, Alfontso XII.a errege zela eta Canovas del Castillo gobernuburu. Karlistadaren porrotak Espainiako Gorteen erabakiaren menpe utzi zuen Euskal Herria. Gainera, estatuko egunkari nagusienek oso kanpaina gogorra, latza egin zuten gure Foruen aurka. Eta honi guztiari aurre egitea ezinezko bilakatu zitzaion euskal gizarteari, Madrilgo gobernuak sekulako zentsura ezarri baitzuen hilzorian zeuden Foruen inguruan. Lelo bera zabaldu zen Espainia guztian zehar: *“Abajo los Fueros”*.

Horrela, eta Gerra Karlista galtzearen ondorioz bereziki, Canovas del Castillock 1876ko uztailaren 21eko legearen bitartez foruak abolitu zituen. Hau da, nagusiki justizia-sistema, zerbitzu militarra eta zerga-sistema arautzen zuen eta antzinatek zetorren geure legedia deuseztatu zuen. Lege horren bitartez Foru Aldundiak desegin zituen desobedientzia zibila egiteagatik eta, derrigorrezko soldadutza eta Estatuko Ogasunari zergak ordaintzeko agindua ezarri zituen.

Ez dugu ahaztu behar, gainera, 100.000tik gora zirela Euskal Herria militarki okupatzen zuten soldaduak. Giro horretan, esan bezala, Foru Aldundiak, Diputazioak, deuseztatu ziren eta erabakitze ahalmena Madrilera eramán zen. Zerbait uztearren, Kontzertu Ekonomikoa ezarri ziguten 1878an. Gobernuaren

eta probintzietako aldundien arteko hitzarmena zen: probintziak estatuari urtero zergen zati finko bat, kupoa, ordaintzen zion, eta aldundiek zerga gehienak jasotzeko eskubidea gordezten zuten. Zergak Espainiako beste probintzietan baino txikiagoak ziren eta hau, agian, kapitalak eta inbertsioak erakartzeko baliagarria izan zen, Bizkaia eta Gipuzkoa bizkor industrializatzen ari ziren garaian. Aldundiek gastua antolatzen zuten autonomia eta erraztasuna (ez zuten estatuko administrazioak dirua noiz bidaliko zain egon behar) onuragarriak izan ziren bertako ekonomiarentzat, garraiabideen arloan batik bat.

Baina aldaketa benetan funtsezkoa zen eta euskal sustraiak errotoz ateratzen saiatu ziren: geure Euskal Foru-sistematik Espainiako gobernuaren borondatearen baitango kontzertu ekonomikoen sistemara eraman gintuzten. Aldundien presioagatik eta euskal gizartean lortu zen adostasunagatik kontzertu ekonomikoen eredu finkatuz joan zen behintzat eta urte gutxitan instituzionalizatu egin zela esan daiteke.

1.13.- Alfontso XII.a eta Canovasen garaia (1876-1898)

Canovas del Castillo politikari erreakzionario eta antidemokratikoa izan zen; sufragio unibertsalaren aurka jo zuen beti eta kontserbadoreen interesak mantendu zituen etengabe, monarkia liberal parlamentarioan oinarrituz. Borboikoen Berrezartzearen eragile zuzena, erregimen berriko politikari nagusia izan zen. Angiolillo anarkistak hil zuen Santagedako bainuetxean, 1897an.

Lizarraga jeneralak Villabonako ospitale karlistan 1886an aditzera ematen dio aita bati semeari heriotza-zauriak eragin dizkiotela (Coll, 1889 – Zumalakarregi Museoa)



Esan daiteke bera izan zela 1876ko Konstituzioaren aita:

- Subiranotasuna Gorteen eta erregeak partekatzen zuten, herriaren subiranotasunari uko eginez.
- Gorteen Kongresua eta Senatua biltzen zituzten, azken hau Espainiako noblezia eta handikiez osatutakoa.
- Erregea, koroa, oso indartuta geratzen zen: botere exekutiboa berak hartu zuen, ministroak izendatzeko ahalmenez eta Gorteen onartzen ziren legeen gain beto eskubidea berreskuratuz.
- Giza-eskubide eta askatasunak neurri handian murriztu ziren.
- Erljio-askatasuna ere guztiz mugatu zen. Erljio katolikoa estatuaren erljio ofizialtzat hartu zen.

Canovasek alderdi politikoen txandaketan oinarritu zuen bere politika. Alde batetik, Canovas del Castillo berak zuzentzen zuen Alderdi Kontserbadorea eta bestetik Sagastak gidatzen zuen Alderdi Liberala. Azken honi progresistak gehitu zitzaizkion.

Alderdien txandaketa sistema honen helburua oso garbia zen: aginte aukera guztietatik kanpo uztea ezker indarrak, langileen mugimendua eta nazionalismoak. Txandaketa hauek, noski, ez ziren hautesleen nahiaren ondorio, alderdien buruzagien arteko alde aurreko itun eta akordioen fruitu baizik.

Sistema honen bidez, alderdien buruzagiek txandaketa adosten zutenean, erregeak gobernuburu berri bat izendatzen zuen eta Gorteen deusezteko aukera ematen zion horri. Gobernu berriak aurretik prestatutako eta manipulatutako sasi-hauteskundearen deia egiten zuen eta emaitzak beraiek nahi bezala zehazten zituzten.

Sistema politiko hau ulertzeko garaiko egoerari so egin beharra dago. Espainia herri nekazari atzeratua zela esan daiteke eta herrietako jauntxoak, kazikeak deituak, alderdien buruek erabakitako emaitzak gauzatzeaz arduratzen diren.

Alderdi bakoitzak finkatzen zituen probintzia bakoitzak eman behar zituen emaitzak. Gobernazio ministroak honen berri jasotzen zuen eta horren arabera agintzen zien gobernadore zibilei. Segidan, aipaturiko jauntxo edo kazike hauek (lur jabe handiak, notarioak, dendari nagusiak...) herri bakoitzeko hau-



Antonio Cánovas del Castelloren hilketa (1897ko abuztuaren 8an) (V. Ginés, 1902 – Zumalakarregi Museoa)

teskundeen emaitzak beraien nahiera moldatzen zituzten. Botoak nahi bezalakoak izan zitezten, bide asko erabiltzen zituzten: zergen murrizketa-aginduak edo igoera-mehatxatuak, soldadutzarako libratzeak, tramitazio burokratikoaren arintzea... edo eta hautesleenganako biolentzia eta mehatxu zuzena. Beste hitzetan esanda, erabateko iruzurra, “*putxerazoa*” deitzen zena.

Alfontso XII. erregearen sasoi-aurreko heriotzak (1885. urtean hil zen, 28 urte besterik ez zituenean) bere emazte Maria Kristina Habsburg-koaren erregeinordetza ekarri zuen, Alfontso XIII.a izango zen beraien semea jaiotzear baitzegoen aita zendu zenean. Ustelkerian oinarritutako txandaketen sistema politikoak, ordea, bere horretan iraun zuen.

Hau zen Espainiako esparru politikoak eskaintzen zuen irudia XIX. mendearen azken herenean. Honen aurrean lerrokatu ziren alderdi eta taldeak ez zuten arrakasta handiegirik lortu:

- Karlistak: gerra ondorengo urteetan geroz eta ahulagoak, bide politikoari soilik eustea erabaki zuten, armak utziz. Euskal Herrian hala moduzko indarra lortzen bazuten ere, ez zituzten behin ere emaitza txukunak eskuratu egin ziren hauteskundeetan.

- Alderdi errepublikazaleak: beraien indarra hiriko klase ertainetan oinarritzen zen. Erregimenaren demokratizazioa eta gizartearen aldaketa sozialak bultzatu zituzten baina ia behin ere ez zuten batzea eta elkarrekin aritzea lortu.
- Langileen mugimendua: errepresio gogorra jasan zuten. Bitan zatitu ziren:
 - Anarkistak: gehiengoak ziren Espainian. XIX. mendean baino, XX.ean lortu zuten indar handia. CNT (*Confederación Nacional del Trabajo*) sortu zuten 1910ean. Hau izango zen Espainiako sindikatu nagusia eta Andaluziako langile nekazarien eta Kataluniako industrietako langileen artean sekulako indarra hartu zuen. Beraien ideologia politikoa elkartasunean, askatasunean, politika-ezean, antiklerikaltasunean eta iraultzan oinarritzen zen.
 - Sozialistak: gutxiengoak zuten Espainian. Pablo Igleziasek sortu zuen 1879an PSOE, Espainiako Langileen Alderdi Sozialista. Laster eratu zuten UGT sindikatu sozialista ere. Anarkistak baino moderatuagoak agertzen ziren eta anarkistak ez bezala, politika egitearen aldeko ziren.
- Intelektualen oposizioa ere oso kontuan hartzeko modukoa izan zen: pentsalariak, unibertsitateko irakasleak... estatuaren modernizazioaren eta Europarantz hurbiltzearen alde aritu ziren.

1.14.- Euskal Herriko gizartea mende amaieran

XIX. mendearen bukaeran aldaketa asko eta handiak izan ziren Euskal Herrian:

- Industrializazioa hasi zen eta horrekin batera emigrazioa: kanpotik langileak trumilka zetozen Euskal Herrira eta, halakoetan gertatzen denez, bertako kultura eta etnia koloka jarri ziren.
- Krisi politiko gogorra eman zen foruak kendu zituztenean.
- Ideia nazionalistak mamitzen eta gauzatzen ari ziren Europa guztian, eta euskal nazionalismoa ere giro hartan zertzen hasi zen.

Horrela sortuko zen abertzaletasuna: foruen defentsarako giroan. Izan ere, 1876ko foru historikoak indargabetzeko legeak bi erantzun mota eta filosofia eragin zituen:

- Batzuek, amore eman eta egoerari probetxua ateratzen jakin zuten, galtze hura Madrilekiko kontzertu ekonomikoan bihurtuz.
- Beste batzuek, ostera, tradizionalismoari eutsita, foruak oso osoan berreskuratzearen alde egin zuten.

Karlistadetan garaipena eskuratu zuten liberalek hirietan oinarritu zuten beraien indarra, tokian tokiko jauntxo edo kazikearen babespean sarritan. Hara hor, Donostian adibidez, Mandas Dukearen edo Fermin Lasalaren kasuak. Euskal liberal gehienek, ordea, bazuten estatuko gainontzeko libera-lengandik bereizten zituzten garrantzi handiko zera: euskal foruen aldeko nolabaiteko jarrera.

Mendearen amaierako bazen gizartearen egoeraz kezka handia agertu zuen taldea: Pello Mari Otaño bezalako errepublikazaleek osatzen zutena. Hori bai, estatu guztian gertatu bezala, euskal errepublikazaleen indarra hirietan sustraitu zen. Euskal errepublikazaleek bazuten, ordea, bereizten zituzten zerbait: foruen aldeko atxikimendua.

Egia esateko, ez dugu euskal errepublikazaleen artean izen handiko buruzagirik ezagutu eta esan daiteke beraien ideiek ez zutela oihartzun eta arrakasta zabalik lortu Euskal Herrian, are eta gutxiago nekazaritza giroko esparruetan.

Burgesia

1876. urtean Bigarren Karlistaldia bukatzean, goi burgesiako jendea klase zuzendari bihurtu zen. Bilbo inguruko goi burgesiak, haren industria eta negozioak handitzen ari ziren neurrian, *noblezia siderurgikoa* deritzan talde boteretsua eta atzerakoia osatu zuen. Bizkaiko goi burgesia espainiar estatuko gobernarekin ongi konpontzen zen eta haien negozio eta zera askotan parte hartze zuzena zuen.

Agintean zegoen Bilbo inguruko burgesia industrialak jokabide espainolista erakutsi zuen, eta Madrilgo monarkak eskainitako titulu nobiliarioei ez zien muzin egin. Karlistaldietan liberalen bandokoak ziren, eta aduanak itsasertze-
ra eramatearen alde agertu ziren. Baina beren merkatua estatu barrenean zegoela ikusi zutenean, politika ekonomiko protekzionista eskatu zioten gobernuari. Eta, jakina, Euskal Herriko ordezkariak politikoa eskuan izan zuten bitartean, ondo babestu eta bideratu zituzten beren industriaren eta enpresen interesak.

Euskal burgesia handi hark, Bilbo ingurukoak batik bat, trebetasun enpresarial nabaria erakutsi zuen, eta diru kopuru handiak pilatu zituen. Hasieran meategiak ustiatuz eta burdina salduz eta geroxeago siderurgian eta ontzizintzan saiatuz, sekulako dirutza egin zuten. Gipuzkoako enpresak ez ziren bizkaitarrenen mailara iritsi, eta, beraz, gipuzkoar burgesia ez zen, ekonomiari dagokionez, bizkaitar burgesiaren parekoa izan.

Langileria

Euskal Herriko ekonomia modernizazio bidean murgildu zen. Industrializazioaren eraginez eta ondorioz, nonahi industrialdeak eraiki ziren, Bilbo inguruan lehenik, Gipuzkoako hainbat eskualdetan gero. Euskal enpresek behar zituzten eskulangileak leku askotatik etorri ziren: gutxienak Euskal Herritik bertatik, eta gehienak, biztanleriaren hazkundek sortu zituen demografia arazoengatik, Kantabria, Errioxa, Leon, Gaztela eta hor beste nonbaitetik.

Gehienak Bizkaiko ezkeraldeko meategi, industrialde eta herri inguruetan pilatu ziren, etxe xahar eta barrakoietan, osasun egoera negargarrian. Bizkaiak 340.000 biztanle inguru zituen 1910ean (195.000 Ezkeraldean eta 145.000 gainerako eskualdeetan).



Bizkaiko meatzaritza-langileak XIX. mendearen amaieran (Gallartako Meatzaritzaren Museoa)

Erabat bestela gertatu zen Gipuzkoan. Hasteko, Bizkaian baino geroago eman zen biztanleriaren hazkundera: XX. mendea hastearekin batera. Horrez gainera, Bizkaian baino banatuago zegoen industria Gipuzkoan. Inmigrazioa bera ere ez zen Bizkaian bezain handia izan.

Kanpotar langileak bereziki Bizkaira iritsi ziren, eta bertan bestelako kultura batekin eta hizkuntza desberdinarekin egin zuten topo. Etorquinek bizi-modu gogorra zuten mea zuloen barruan eta kanpoan: soldata kaskarrak, gaixotasunak, heriotza indize altua... Horregatik sozialismoari eta anarkismoari heldu zioten.

Langile mugimendua indartzen eta ideia sozialistak zabaltzen hasi ziren euskal industrialdeetan. PSOE alderdia eta UGT sindikatua izan ziren eraginkorrenak, eta 1890etik 1905era egin ziren lehendabiziko grebak antolatu zituzten. Etorquinek, nola edo hala, beren egoera defendatu nahi zuten eta, zer egingo, elkartetan bildu ziren. Burgesiak gogor erreprimitu zuen, baina zenbat eta errepresioa handiago, orduan eta sendoago zen proletarioen klase kontzientzia. Labur esateko: langileen aldeko erakundeek gero eta indar handiagoa eta kide gehiago zuten.

Abertzaletasunaren sorrera

Norbaitek zioenez, foruak galdu genituen egun berean sortu omen zen euskal abertzaletasuna. XIX. mendearen amaieran herriaren egoera nahiko nahasia zen: euskara atzera egiten ari zen nabarmen, mugimendu nazionalistak nonahi ziren European, foruak desagertzeak krisi politikoa eragin zuen eta industria iraultzak gizarte eraldaketa handia sortu zuen. Euskal Herrira iristen ari zen kanpotarren emigrazioaren uholdea ere hortxe zegoen eta horrek bertakoen izaera eta bizimodua eraldatuko zuen beldur zen garaiko euskaldun asko.

Genion bezala, abertzaletasunaren iturburua karlismoa izan zen: foruzale eta foru defendatzaile amorratuak izan ziren karlistak, luzaroan gainera.

Bestalde, esan bezala, liberal foruzale asko izan da euskal lurraldeetan. Besteak beste, Fidel Sagarmínaga bizkaitarra, *Euskalerrria* elkartearen sortzailea, eta Mateo Benigno Moraza arabarra. Liberal foruzale horiek ez zuten onartu euskal arazoak 1876tik aurrera Madrilen konpon zitzaten. Hori bai, foruzaleak ziren baina ez, ordea, independentziaren aldekoak. Liberal foru-

zale horiek izatez, katoliko ziren, eta nekazarien artean eragin handia izan zuten. Mugak ezarri nahi zituzten gaztelaniaren, sozialismoaren eta liberalismoaren aurrean, eta *euskaldunen odol garbia* defendatzen saiatu ziren.

Nafarroan *Euskara* elkarte sortu zen XIX. mendearen bukaera honetan, geroko Zazpiak Bat delakoaren aitzindaria. Foruak berreskuratzeko asmotan, *Euskara* elkartekoek, Kanpion mugimendu-buru zutela, euskal lurraldeak batu nahi izan zituzten. Horiek ere foruzale erregionalista katoliko ziren, baina ez independentista.

Giro horretan agertu zen Sabino Aranaren figura, denen artean gailen. 1865ean jaio zen, Abandon. Handikien etxekoa zen, karlista familiakoa. Sabino Arana izan zen euskal abertzaletasunaren gidari nagusia, euskal

nazionalismoa indarberritu eta suspertu zuena. Anaia Luisi esker, argi ikusi zuen Euskal Herriko arazoei bilatu behar zitzairen irtenbidea ez zuela karlismoan aurkituko. *Euzkotarren aberria Euzkadi da*, egin zuen oihu, eta hargatik zioen, karlismoak egin zuena alboratuz, euskaldunek ez zutela espainiar arazoetan sartu behar.

Sabino Aranak independentziaren aldeko zabal-kundea egin zuen Euskal Herri osoan. 1893an, JEL, "Jaungoikoa eta Lagi Zarra" sortu zuen, karlisten "Jaungoikoa eta Foruak" delakoa ordezkatzeko asmoz. Gero, Euzko Alderdi Jeltzalea sortu zuen. Sabino Arana izan zen lehendakaria 1903an hil zen arte.



Sabino Arana (Abando, 1865 / Sukarrieta, 1903) (Napartarra aldizkaria - 1911)

Hasiera batean burges txikiak eta erdi mailakoak osatu zuten mugimendu abertzalea, baita ontzigintzan ari zirenek ere. Abertzaletasunak eragin berezia izan zuen, gainera, nekazarien artean. Karlistaldiaren ondoren galdutako eskubideak berreskuratzeko eta industrializazioa eta inmigrazioa ezartzen ari ziren gizarte mota berriari aurre egiteko bidea eskaini zien abertzaletasunak *berezko* eta *betiko* euskal balioak azpimarratuz.

Garaiko bertsoek eta, bereziki, iritsi zaizkigun bertso paperek urte horietan bizitzen ari ziren gizarte aldaketa islatzen digute era bikainean. Hori Txirritaren eta Pello Otañoren bertsoetan antzeman daiteke gardenki. Gehien erabili zituzten gaiak abertzaletasuna, euskalduntasuna, hizkuntza, aberria, fedea eta baserria ziren; zehazkiago esanda, euskara eta erlijioa, biak uztartuta.

Are eta gehiago oraindik Kepa Enbeita, *Urretxindorra*, bertsolari bizkaitararen kasuan. Abertzaletasuna erraietaraino sartu zitzaion eta mitinetara eta Aberri Eguretara eramaten zuten hitz egitera. Oso ezagun bihurtu zen Eibarren, 1920an, 30.000 lagunengatik aurrean bota zuen bertsoa:

... *Viva España! diñok berriz be,
izan bei españarrentzat
baina ba diot Gora Euzkadi!
guria ta guretzat*

Pello Mari Otaño bera, errepublikanoa eta liberala izaki, abertzaletasunaren mundura hurbiltzen joan zen. Bere azken urteetan, Sabino Arana eta haren *dotriña* gogoan izan eta goraiatu zuen (1906):

... *Jaso dezagun bere bandera
egiñ zagun alegiña,
ez dakitenai erakutsiyaz
maisuz zanaren dotriña*

ZIZURKIL XIX. MENDEAN

2.1.- Zizurkil II. Karlistaldia bitartean

XIX. mendea ez zen makala izan zizurkildarrentzat. Antzinatik ezarrita zuten ohiko giza-egitura krisian sartu zen. Mendean zehar urte zailak izan zituzten gehienak, sufrimenduz beteak asko. Horrek eraginda, gizaldiaren amaiera aldiari Zizurkil berri baten aurrean aurkitzen garela esan daiteke.

Gure herria, XIX. mende hartan, Gipuzkoako nekazaritza giroko herri txiki bat besterik ez zen. Mila biztanle ingurukoa (170 familia, “*foguera*”), guztiz euskalduna eta Erdi Arotik zetorren ahaide nagusi batzuen menpean bizitzea tokatu zitzaiona: Donemiliagarren Leinuaren itzalean, hain zuzen ere.

XIX. mendeko Zizurkil, gaur bezalatsu, bailaratan antolatuta zegoen: Plaza ingurua edo herrigunea (“*Calle San Milian*”), Elbarrena, Irazu, Akezko eta San Migel deiturak agertzen dira agirietan. Nekazaritza giroa, erabatekoa, esan bezala. Mende aldaketa hartan 120 etxe inguru ziren guztira herrian, baserriak gehientsuenak.

Baserriak elkarri lotzeko eta harat-honat ibiltzeko, antzinatik zetorren eta Zizurkil zeharkatzen zuen herri-bide sare konplexu eta zabala zegoen eratu-ta. Inguruko herriekin, hots, Amasa-Villabonarekin, Asteasu, Aduna eta



Fraisoro eta Elbarrena Amasa aldetik (Indalezio Ojanguren, 1914 ing. - AGG-GAO OA 6595)

Usurbilekin lotzen gintuzten gurdi-bide zabalak zeuden. Gure eremua zeharkatzen duen Villabona eta Aia arteko errepidea, adibidez, ez zen 1893/4a arte gauzatu.

Komunikabideen iraultza Norteko trenbideak ekarri zuen guregana. Villabona-Zizurkilgo geltokia eraikitzeak (1882an) herritarren desplazamenduak modu pentsaezinean erraztu eta areagotu zituen.

Mende haren hasieratik Konbentzioaren kontrako gudek (1793-1795), frantsesen kontrakoek (1808-1814) eta Lehen Karlistadek (1833-1839) sufri-menduan ez ezik, zorretan eta egoera larrian murgildu zuten herria, gerrek eragindako gastuei aurre egin ahal izateko, herri-ondasun gehienak saltzera behartuz.

Bi karlistaldien arteko (1839-1872) egoera sozial eta politikoa ez zen batere lasaia izan, ez Euskal Herrian eta ez Estatuan ere. Badirudi zulo beltzetik poliki-poliki ateratzen joateko urteak izan zirela haiek. Izan ere, artoa, babarruna, eta batez ere, patataren laboreei esker Zizurkilgo biztanleria errekuperatzen hasi zela esan daiteke.

2.2.- II. Karlistaldiaren eragina Zizurkilen. Belabietako guda

Bigarren Karlistaldiak (1872-1876) kolpe latzak barreiatu zituen zizurkildarren artean, eta bereziki, Mendi bailarako baserrietan eta beraien hazien-datan.

Karlista eta liberalen arteko liskarrek erdi erdian harrapatu zituzten zizurkildarrak. Gipuzkoan gudaren hasieratik bi taldeen posizioak, territorioak, ongi bereiztuta gelditu ziren: Irundik Andoainerainokoa, gehi Tolosa, lurraldearen hiriburu garai haietan, liberalen esku zeuden. Beste guztia berriz, karlistek kontrolatzen zuten, teoriiaz behintzat. Beraz, Zizurkil borrokatzen ari ziren bi taldeen arteko mugan gelditu zen. Mugan eta kokapen estrategikoan, Tolosa eta Hernani nahiz Donostiaren arteko errepidearen erdian baitzegoen. Hori bai, Karlistek kontrolatzen zuten esparruan.

Bi armaden arteko borrokaldia pil-pilean zela, 1873ko hondarren eta 1874ko hastapenen artean zehazki, Zizurkilgo inguru hurbilean gertaera dramatikoa eta mingarria jazo zen: Belabietako guda.

Lizarraga jeneralaren agindupean zeuden tropa karlistek Tolosa setiatua zuten. Besteak beste, Tolosa eta karlisten arma fabrikatzailea zen Azpeitiaren arteko harremanak eten nahi zituen Lizarragak. Loma jeneral liberala setioa behin eta berriro hausten saiatu arren, karlisten presentziak bere horretan zirauen. Armada liberalaren buruzagia Moriones jeneralaren laguntzaren zain geratu zen. Bitartean, tolosarrek etsaien bonbardaketak pairatu zituzten. Setio-egunak igaro ahala, Tolosako biztanleen eta soldaduen egoera geroz eta zailagoa bihurtu zen.

Ustekabean, ordea, liberalerik espero ez zuten laguntza iritsi zitzaizen etsai eta arerio karlisten aldetik: Santa Kruz apaiza, gerrillari karlista sutsuarena, hain zuzen ere. Santa Kruz apaizak, liberalak eraso eta hauen atzamar artetik etengabe desagertzeaz gain, desadostasun handiak zituen buruzagi militar karlistekin, eta horien epaiengatik ihesi, Iparraldean erbesteratu zen. Handik itzulita, ordea, 1873ko abenduaren 7an Berrobin azaldu eta inguru haietan zebiltzan bi batailoi gipuzkoar matxinarazi ondoren, Asteasurantz abiatu zen han kanpata zegoen Lizarraga jeneral liberala harrapatzeko asmoz. Villabonatik pasatzerakoan, bertako agintea zuen Iturbe kapitain karlista preso hartu zuen. Gauza bera egin zuen Zizurkilen zegoen Vicuña kapitainarekin ere. Gero Asteasura jo zuen, bai Zizurkilgo herrigunetik, bai beheko bidetik, Lizarragak Elizmendi aldean zeukan kuartela inguratzeko asmoz. Lizarraga jeneral karlistak,



1873ko Belabietako batailaren plano (Armadaren Estatu Nagusia, 1887 - Zumalakarregi Museoa)

ordea, egoera kontrolpean jartzea lortu zuen eta Santa Kruz apaizak eta bere taldeak ihesari eman behar izan zioten inguruetatik.

Honek guztiak Tolosa jasaten ari zen presioa ahuldu zuen. Gainera, Moriones buruzagi liberalak bere batailoiekin Donostiaraino iristea lortu zuen. Egoera horretan, liberalek eraso jotzea erabaki zuten abenduaren 9an.

Goizean goizetik gogor jo zuten Andoaindik. Armada liberala Aduna zeharkatu eta Villabona aldera heldu zenean, karlistek tinko eraso zieten Urkamendiko gaineratik. Borroka latza izan eta gero, Zizurkilgo posizioa eskuratzeko lortu zuten liberalek.

Horrela kontatzen digu han gertatutakoa Francisco Hernando idazle karlistak *“La campaña carlista 1872-1876”* liburuan, 122. orrialdean: *“..El centro de nuestra linea (karlistena, alegia), la carretera de Tolosa por Villabona, estaba defendido por el 2º, 3º y 5º Batallón de Guipúzcoa, quienes ocupaban la izquierda del Oria sobre Cizurquil y el alto de Urkamendi, mientras que el 6º y algunas compañías de los otros formaban nuestra extrema izquierda que*

se extendía hasta los altos de Zárate... Rompióse el fuego a las dos de la tarde avanzando el enemigo por la carretera de Andoain... Los republicanos se lanzaron al ataque con una decisión y un ímpetu nunca vistos, cargando de frente sobre nuestras posiciones... Nuestros voluntarios los recibían con mortífero fuego, sembraban el campo de cadáveres y les hacían retroceder con grandes pérdidas. Los republicanos, reforzados, volvieron a la carga, y a las tres horas de combate, cuando ya empezaba a anochecer, lograron apoderarse del sitio de Urcamendi que les abría la carretera de Tolosa y el paso por nuestro centro. Las fuerzas guipuzcoanas se replegaron entonces con todo orden a las posiciones de Asteasu... Las pérdidas... fueron espantosas, quizás, en proporción, las mayores de todos los combates habidos..."

Bidea libre geratu zitzaien. Karlistak, galtzaileak, Hernio aldera abiatzen ziren bitartean, liberalek Amasatik barrena Tolosara joatea erabaki zuten. Uzturreko maldetan, Belabieta inguruan zehazki, ordu luzetan aritu ziren eraso gorrian karlistak zein liberalak. Ikaragarria izan omen zen borrokaldia. Horrela azaltzen digu Antonio Pirala garai hartako historiagileak (*"Historia Contemporánea"*, IV tomoa, 585): *"Cansados ya los navarros de tanto tiro sin rechazar a sus enemigos, cargaron a la bayoneta, que secundaba mejor su coraje; rechazaron a los liberales y cogieron a bastantes, que pasaron a cuchillo. La desesperación pareció inspirar aquel combate (...): y en este furioso bregar cuerpo a cuerpo mezclábanse unos con otros, veíase en el semblante de todos la fiereza, en sus manos la sangre, casi todos herían, y el que no recibía la muerte, la daba. Fueron momentos de terrible confusión, que su solo recuerdo horroriza."* Egun samin hartan 600 lagunek baino gehiagok galdu zuten bizitza eta beste hainbeste zauriturik gertatu ziren.

Borroka latz haren ostean, liberalak Iruran, Anoetan eta Zizurkilen geratu ziren bitartean, Lizarraga jeneral karlista, bere aldetik, Zelatun aldera jo eta biharamunean Hernialde okupatu zuen Araba eta Bizkaitik etorritako batailoien laguntzarekin. Moriones buruzagi militar liberalak berriz, Azpeitirako bidea itxita zegoela ikusirik, hainbat eta hainbat tolosarrekin batera, Donostia aldera itzultzea erabaki zuen.

Horrelako gertaerek ondorio zuzen eta latzak eragin zituzten, zalantzarik gabe, gure herriko biztanleen bizimoduan. Gainera, tropen mantenerako eta horniketarako herritarrei ezarri zizkioten zergak jasanezinak bihurtu ziren, bai herriarentzat, bai herritarrentzat. Urte latzak izan ziren haiek zizurkildarrentzat.

2.3.- XIX. mendeko Zizurkil, datu eta zenbakitan

Laurogeiko hamarkadak haize berriak eta itxaropentsuak ekarri zituen paraje hauetara. Trenbidearen eta industrializazioaren eraginez, ordura arte nekazaritza girokoa zen gizartearen garapena norabidez aldatu zen.

Eskuartearen ditugun datuak bi erroldetan jasota daude: 1871koan eta 1883koan. Biak interesgarriak izan arren, bigarrengoan, 1883koan, oinarritu gara gehienbat, aurrekoa baino osatuago iritsi baitzaigu. Esan, erroldetan agertzen diren datuak hainbatetan ez zaizkigula erabat fidagarriak iruditu. Jakitun gara gaiak beste ikerketa sakonagoa eskatzen duela baina aurkeztu nahi dugun lanerako zertzelada hauek nahikoak izan daitezkeela deritzogu. Pello Mari Otañori bizitzea egokitu zitzaion XIX. mendearen azken laurdene-ko Zizurkil hura nahiko ongi taxutzen dutela uste dugu.

2.3.1.- Gipuzkoako 1882/83 eta 1883/84ko Errenta-Eroldak (pezetetan)

Gipuzkoako herrien bi urtealdi desberdinetako datuak dira hauek, 1881/82 eta 1883/84koak, hain zuzen ere. Sarritan aipatu dugu urte zailak zirela haiek eta hori errenta-erroldetan islatu zen: 1882/83ko ekitaldian Gipuzkoako herri guztien artean zergen bidez 300.000 pezeta biltzea agindu zuen Diputazioak. Hurrengo ekitaldian, 1883/84n, berriz, 450.000 pezeta jasotzeko mandatua luzatu zuen. Alegia, urte bakar batean %50 igo zizkieten zergak gipuzkoarrei, ondorengo taulak adierazten duen bezala..

- PT (Propiedad Territorial): Zerga mota hau herri bakoitzari ezartzen zitzaion, zituen etxebizitzaren eta biztanle kopuruaren arabera. Zizurkil: 92 herrietatik, 42.a zen.
- PP (Propiedad Pecuaría): Nekazaritza jarduerari zegokion zerga. Zizurkil: 92 herrietatik, 37.a zen.
- PI (Propiedad Industrial): Industria jarduerari zegokion zerga. Zizurkil: 92 herrietatik, 57.a zen.
- Orokorrean, Zizurkil: 92 herrietatik, 44.a zen.

Zizurkil, Gipuzkoako herrien artean hor nonbait zegoen, erdi aldean edo, bai biztanleriari eta bai etxe kopuruari zegokionez.

Gaur ez bezala, herriko ekonomia nekazaritzan oinarritzen zen eta ordura-ko inguruko herrietan (Tolosan, Amasa-Villabonan eta Andoainen, esaterako) hasita zegoen industrializazio prozesuaren bidetara ekin gabe zegoen artean.

Herria	PT 82/83	PP 82/83	PI 82/83	TOTAL 82/83	PT 83/84	PP 83/84	PI 83/84	Guztira 83/84
Aduna	473	186	33	692	697	274	49	1020
Alkiza	660	375	17	1052	973	553	16	1542
Andoain+(Sor 84)	1919	532	1958	4409	3570	1031	3174	7775
Anoeta	412	118	10	540	607	174	16	797
Asteasu	1345	621	122	2088	1982	914	172	3068
Berastegi	1545	900	159	2604	2277	1325	241	3843
Hernalde	374	169	13	556	551	250	63	864
Ibarra	722	211	170	1103	1064	310	247	1621
Irura	445	84	307	836	656	123	449	1228
Larraul	373	230	9	612	550	338	7	895
Donostia	51880	1587	20858	74325	76308	2338	33139	111785
Sorabilla	504	169	6	679				
Tolosa	7024	1285	6444	14753	10348	1893	8294	20535
Usurbil	1882	808	338	3028	2773	1190	320	4283
Amasa-Villabona	1575	517	702	2794	2321	762	962	4045
Zizurkil	983	476	74	1533	1595	702	117	2414

2.3.2.- Biztanleriaren errolda (hainbat herri eta urtetakoa)

“Fogueras”, “Hogueras”, “Hogares” deitzen zitzaion familia-unitate bakoitzari. Horrela ulertzen da etxe berean “foguera” bat baino gehiago izatea, garaiko hainbat baserritan gertatzen zen bezala. Guk gaztelaniazko “foguera” adierazteko euskarazko “sua” erabili dugu.

Bigarren Karlistaldian nabari da biztanleriaren murrizketa. Bi guden artean, ordea, biztanleriaren suspertze esanguratsua antzematen da; Gipuzkoako baserrietan orduantxe hasi berria zegoen patataren laborearen hedatzeari esker, agian.

Hala ere nekez gainditu zuen Zizurkilek Bigarren Karlistaldian jasotako jipoia. Suspertze horretarako ezinbesteko bihurtu zen mende amaieran herri-
ra iritsi zen Norteko trenbidea eta Elbarrenan eraiki zen haren tren geltokia.

	1842	1857	1860	1877	1887	1897	1900	1910
Gipuzkoa	112814	156493	162547	170209	181149	192311	196531	221427
• Suak	22411	29709	30431	33144	39423	41977	42973	48959
Zizurkil	901	1025	1085	940	859	887	913	920
• Suak	179	176	176	157	177	180	179	176
Villabona	901	1373	1683	1393	1481	1510	1545	1508
• Suak	179	284	310	266	311	321	321	348
Asteasu	871	1302	1352	1161	1177	1204	1196	1249
• Suak	173	236	253	231	227	234	258	250
Alkiza	554	583	598	557	541	535	520	474
• Suak	110	99	98	97	109	100	105	95
Larraul	221	306	304	300	297	285	279	277
• Suak	44	48	51	50	63	53	55	52
Andoain	1490	2125	2617	2436	2600	2962	2975	2841
• Suak	296	427	512	487	538	613	611	604
Tolosa	5185	7639	8182	8557	7290	8126	8100	9393
• Suak	1037	1851	1689	1569	1553	1959	1881	2169

2.3.3.- Zizurkilgo biztanleria (Emakumezkoak zein gizonezkoak)

Zizurkilgo biztanlerian desoreka handia suma daiteke emakume eta gizonezkoen arteko banaketan. Gizonezkoak herritarren %53 dira, eta emakumeak aldiz, %47 besterik ez.

Proportzio bitxi hori ez dator bat Gipuzkoako batezbestekoarekin eta horren zergatiak lan honetatik kanpo dagoen ikerketa eskatzen du.

	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Adierazi gabeak	Guztira
1871. urtean	384	430	118	932
1884. urtean	393	457	9	859



Villabona eta Zizurkil arteko Zubimusu (Indalezio Ojanguren, 1914 ing. - AGG-GAO OA 6587)

2.3.4.- Zizurkilgo bailara, etxe eta senide kopuruak

Ondorengoak Zizurkilgo erroldetatik bildutako familia-datuak dira. Gelatxo bakoitza bailara horretako etxe bati dagokio eta etxe haren familiakideen kopurua adierazten du. Oro har, gauza jakina da orduko familietako senide kopurua nahiko handia izan ohi zela.

Z.	S. Milian	Elbarrena	Akezko	Irazu	S.Miguel
1	3	1	8	8	5
2	8	7	6	5	4
3	1	6	6	4	5
4	3	1	4	5	3
5	4	7	9	6	4
6	6	5	6	4	4
7	3	1	5	2	5
8	3	4	7	8	8
9	1	4	9	8	6
10	2	2	3	7	3

Z.	S. Milian	Elbarrena	Akezko	Irazu	S.Miguel	
11	6	8	9	4	9	
12	4	3	10	4	8	
13	2	3	5	5	4	
14	4	7	8	8	6	
15	5	12	2	4	7	
16	7	8	5	0	2	
17	3	5	7	4	2	
18	8	5	5	9	4	
19		9	9	4	5	
0		4	4	7	4	
21		6	4	5	5	
22		6	9	9	9	
23		6	2	10	12	
24		8	7	4	5	
25		5	6	8	7	
26		7	4	8	4	
27		3		3	3	
28		3		13	4	
29		4		8	5	
30		6		8	8	
31		6		5	10	
32		8		6	3	
33		3		3	5	
34		4		4	5	
35		6		5	8	
36		4		5	5	
37				5	3	
38				5	4	
39				8		
40				9		
BAILARA	S. Milian	Elbarrena	Akezko	Irazu	S.Miguel	Guztira
Etxe kopurua	18	36	26	40	37	157
Biztanle kopurua	73	187	159	237	203	859

2.3.5.- Zizurkilgo senide-kopurua eta familiak

Taula honek familiakide kopuruari buruzko informazioa ematen du. Hots, zenbat etxe ziren Zizurkilen bailara bakoitzean eta horietako bakoitzaren kide-kopurua.

Kide k.	F.Kop. S.Mil.	F.Kop. Elbarr.	F.Kop. Akezk	F.Kop. Irazu	F.Kop. S.Mig.	Guztira
1	2	3	-	-	-	5
2	2	1	2	1	2	8
3	5	5	1	2	5	18
4	3	6	4	9	9	31
5	1	4	4	9	10	28
6	2	7	4	2	2	17
7	1	4	3	2	2	12
8	2	4	2	9	4	21
9	-	1	5	3	2	11
10	-	-	1	1	1	3
11	-	-	-	-	-	
12	-	1	-	-	1	2
13	-	-	-	1	-	1

2.3.6.- Zizurkilgo bailarak, etxeak, jabeak eta maizterrak (1883)

Noiztik ez badakigu ere, jakina da orduko Zizurkil, gaurkoa bezala, bailaratan banatuta zegoela. Horren frogagarri, 1843ko urtarrilaren 20ko udal aktan azaltzen dena:

“... mediante hallarse en necesidad de alguna reparacion los caminos carretilles, para el efecto nombraban por Comisionados, á saber para el Valle de Elvarrena á D.Juan Pedro de Arizmendi y D. Juan Baupta de Loinaz; para el de Yrazu vallea al d... D. José Ygnº. De Urcola y D. Franc. De Beldarrain; y para el de mendivallea al d... D. Señor. Síndico y D. Miguel Maria de Yrazu, con la facultad de que podran dar un chiquito de vino y media libra de pan á los peones, y un cuartillo de vino á los carreteros que se ocupen con sus yuntas; y deberan dar cuenta...”

Pasarte honetan hiru bailara soilik azaltzen badira, 1871ko erroldan laugarren bat aipatzen da, eta honekin batera kalea ere bai. Mendi bailarari San Miguel izenez deitzen diote gainera, nahiz erroldetan azaltzen diren izenak mantendu.

“San Milian Kalea” izena herrigunearen plaza-inguruarekin bat dator, zalantzarik gabe. Hortik, gaur egun herriguneari “kalea” deitzeko usadioa.



Zizurkilgo etxeen errolda, 1883 - "Calle de San Milian" (Udal artxibategia)

▼ San Milian kalea		
Etxebizitza	Jabea	Maizterra
Argurutzeaga	Recondo, Manuel	Zapirain, Josefa
Argurutzeaga 1º	Lerchundi, Francisco	
Argurutzeaga 2º	Lerchundi, Francisco	
Artuchaenea	Alquizalete, Hilario	
Casa Consistorial	De la Villa	
Casa vicarial	De la Villa	
Echeverricho	San Milian, Marques de	Mendizabal, Ignacio M.
Elizalde	Lerchundi, Francisco	Alcorta, Miguel Jose
Elizondo	Arizmendi, Juan Luis	
Iriarte nuevo	Olano, Baltasar	
Iriarte viejo	San Milian, Marques de	Arrizabalaga, Martin
Larretin	Achaga, Jose Jacinto	
Plazaecheverri	Barriola, Jose Domingo	
San Milian	San Milian, Marqués de	Bengoechea, Juan Baut.
Venecia	Barrena, Herederos de	Zabala, Jose Lorenzo
Venecia 2ª	San Milian, Marques de	
Vicariechezar	Muñoa. Viuda de	Arsuaga, Jose Ignacio

▼ Valle de Elbarrena		
Etxebizitza	Jabea	Maizterra
Aguirre 1º	Echave, Francisco	Segurola, Francisco
Aguirre 2º	Echave, Francisco	Otegui, Francisco
Beibategui	Gorostidi y Artola, Benito	Gozategui, Bernardo
Beldarrain 1º	Lizarraga, Pedro	Usabiaga, Francisco
Beldarrain 2º	Lizarraga, Pedro	Dorronsoro, Jose Lorenzo
Camioaundi	Ameztoy, Benito	
Camioaundi 2ª	Ameztoy, Benito	Igartua, Francisco
Camiochiqui	Ameztoy, Benito	Zabala, Pedro
Echeverri 1º	Añorga, Baltasar	Dorronsoro, Pedro Jose
Echeverri 2º	Uz cudun, Juan Antonio	Tejeria, Jose Ignacio
Edif. F. de yeso	Lizarraga, Pedro	
Galardi	Gaztesi, Javiera	Bengoechea, Juan Tomas
Garadicho 1º	Echeverria, Jose Maria	Muñoa, Juan Jose
Garadicho 2º	Echeverria, Jose Maria	Iraola, Joaquin
Ihartza	Lizarraga, Pedro	Elola, Antonio Maria
Iturralde 1º	Galarza, Jose Ignacio	

▼ Valle de Elbarrena		
Etxebizitza	Jabea	Maizterra
Iturralde 2º	Echave, Miguel Jose	
Mutio	Lerchundi, Francisco	
Olatza	Marmol, Jose	Arrastoa, Pedro
Oracaztegui (Molino)	Goenaga, Domingo	Tapia, Francisco
Pagamuño 1º	Echeverria, Jose Maria	Arrastoa, Jose Miguel
Pagamuño 2º	Echeverria, Jose Maria	Aizpurua, Jose Maria
Recalde	Ameztoy, Benito	Otaño, Jose Bernardo
Susperro	Irazu, Juan Ignacio	Altuna, Manuel
Tierras de Barberotegui	Iturralde, Francisco	
Venta de la Caridad	Aldazabal, J.A.	
Ventachuri	Achaga, Bernardo	Garaialde, Ignacio
Videgurutze nuevo (Emb.)	Zabala, Jose Lorenzo	
Videgurutze nuevo (Emb.)	Tejeria, Maria Teresa	
Videgurutze viejo ?	Echeverria, Jose Maria	
Zubiaurrecho	Muguerza, Marcelino	Leunda, Jose Maria
Zubimusu 1º	Leyaristi, Jose Ignacio	Beracoechea, Juan Antonio.
Zubimusu 2º	Leiaristi, Jose Ignacio	Ubillos, Bernardo

▼ Valle de Aquezcoa		
Etxebizitza	Jabea	Maizterra
Alcañiz (Molino de)	Irazu, Juan Jose	Jauregui, Ramon
Altziturri	Muñoa, Herederos de	Arregui, Jose Ignacio
Aquezcoa (molino)	Arizmendi, Joaquin	
Aquezcozabal	Alegria, Jose Maria	Torregaray, Francisco
Arangaitz	Ostolaza, Francisco	Otamendi, Manuel
Arizmendizabal	Garitano y Villar, Juan J.	Ezeiza, Pedro
Berastegui 1º	Zabala, Luis	Mujica, Martin
Berastegui 2º	Zabala, Luis	Izaguirre, Esteban
Burrustidi 1º	Zabala, Luis	Otegui, Andres
Burrustidi 2º	Zabala, Luis	Garmendia, Manuel
Fraisoro	Leyaristi, Jose Ignacio	
Iruña	Gueresta, Juan Bautista	
Legarralde 1º	Irazu, Juan Ignacio	Esnaola, Antonio
Legarralde 2º	Irazu, Juan Ignacio	Gorostegui, Martin
Luzuriaga 1º	Ameztoy, Benito	Dorregaray, Miguel Fco.
Luzuriaga 2º	Ameztoy, Benito	Gozategui, Baltasar

▼ Valle de Aquezcoa		
Etxebizitza	Jabea	Maizterra
Malcorra 1º	Aizpurua, Martin	Galarraga, Antonio Maria
Malcorra 2º	Arrillaga, Francisco	
Mugirozarra	Cabrera, Maria Martina	Loinaz, Miguel Maria
Nekola 1º	Usabiaga, Francisco	Alcorta, Francisco
Nekola 2º	Pagadizabal, Josefa Cruz	Urdanpilleta, Ignacio Valentin
Onenzaro	Zurbano, Estevan	Mendiguren, Francisco
Sagasti	Arsuaga, Juan Jose	Aguirre, Jacinto
Sagastietxerri	Villar, Isidro	Dorronsoro, Martin
Salugarate	Recondo, Viuda de Franc.	Mendizabal, Jose Antonio
Ugare	Garaialde, Ignacio	Ugartemendia, Juan J.

▼ Valle de Irazu		
Etxea / Saila	Jabea	Maizterra
Abeleche	Mutio, Ascensio	Izaguirre, Miguel Antonio
Alchurriaga	San Milian, Marques de	Irazusta, Juan Bautista
Andiaberrri	Fausto Marina, Herederos	Garmendia, D.F.
Andrezqueta 1º	Alzua, Andres	Argaya, Miguel Domingo
Andrezqueta 2º	Alzua, Andres	Astiasaran, Jose Lorenzo
Arizmendi 1º	Leturiondo, Joaquin	Sarasola, Antonio
Arizmendi 2º	Leturiondo, Joaquin	Alberdi, Gabriel Maria
Azcarate	Muñoa, Miguel Ignacio	Gozategui, Jose Ignacio
Bengoechea	Zarauz, Jose Joaquin	Telleria, Juan Ignacio
Betenbarrendi 1º	Soarrain, Gregorio	Soarrain, Jose Ignacio
Betenbarrendi 2º	Soarrain, Gregorio	Oiartzabal, Manuel Ign.
Chorobio y Tejeria	Irazu, Juan Jose	
Ciarsoro	Leturiondo, Joaquin	Echave, Jose Manuel
Echave	Echave, Pedro Jose	
Echavesaleche	Lazcano, Luis	Egurza, Jose Antonio
Etzeta	Legarra, Herederos de	Arruti, Esteban
Garmendi	Leturiondo, Joaquin	Goenaga, Juan Tomas
Illarrachoeta 1º	Aizpurua, Francisco Ant.	
Illarrachoeta 2º	Garmendia, Felipe	Garmendia, Juan I.
Iragorri	Barriola, Jose Domingo	Gozategui, Antonio
Irazu garaiena	Echave, Jose Bernardo	
Irazuazpicoa 1º	Beldarrain, Jose Ignacio	Cendoya, Francisco M.
Irazuazpicoa 2º	Beldarrain, Jose Ignacio	

▼ Valle de Irazu		
Etxea / Saila	Jabea	Maizterra
Irizibar	Gorostidi, Jose Antonio	
Landare	Echeverria, Jose Domingo	Tapia, Felipe
Larrondobuno 1º	Recondo, Manuel	Aritzeta, Francisco M.
Larrondobuno 2º	Recondo, Manuel	Alcain, Jose Maria
Miranda	Zarauz, Fermin	Zarauz, Jose Maria
Odolquierraga	Aramburu, Jose Maria	
Otazu	Echeverria, Jose Domingo	
Porcheta 1º	Sarasola, Francisco	Irazu, Juan Jose
Porcheta 2º	Sarasola, Francisco	Beldarrain, Antonio M.
Santa Cruz	De la Villa	Arga, Francisca
Sarobe 1º	Ameztoy, Benito	Arruti, Francisco
Sarobe 2º	Ameztoy, Benito	Uzcudun, Jose Joaquin
Tejeria	Gozategui y Compañía, Anton	
Ugarte	Beldarrain, Jose Maria	
Ugartecheverri	Oiartzabal, Manuel Ign.	
Zalduazpicoa 1º	Irazu, Juan Jose	Urcola, Francisco Anton.
Zalduazpicoa 2º	Irazu, Juan Jose	Urquia, Martin
Zaldugoiena 1º	Recondo, Manuel	Urcola, Jose
Zaldugoiena 2º	Recondo, Manuel	Alcorta, Ramon
Zalduzar	Urquia, Juan Fermin y M.	Beguiristain, Domingo
Zarate	Otandi, Pedro Julian	Aya, Domingo

▼ Valle de San Miguel		
Etxea / Saila	Jabea	Maizterra
Amabi	Ameztoy, Benito	Gamborena, Bartolome
Adunibar 1º	San Milian, Marques de	Bengoechea, Sebastian
Adunibar 2º	San Milian, Marques de	Echenagusia, Jose
Aizcurutzeta	San Milian, Marques de	Mutio, Ascensio
Andaberro	Saralegui, Maria	Ormazabal, Antonio
Andia 1º	Franconi, Jose Manuel	Ibarbia, Antonio Maria
Andia 2º	Franconi, Jose Manuel	Otegui, Maria
Andiazabal	Zumeta Zatarain, Juan Luis	Iturrioz, Joaquin
Araeta azpicoa 1º	Mutiozabal, Jose Miguel	Olazaga, Miguel Antonio
Araeta azpicoa 2º	Mutiozabal, Jose Miguel	Mendiola, Jose Ignacio
Araeta garaiena	Echenagusia, Juan Baut.	
Arrechipi	Urquia, Antonio	

▼ Valle de San Miguel		
Etxea / Saila	Jabea	Maizterra
Arrieta	Muñoa, Herederos de	
Astabere	Marmol, Jose	Ibarbia, Jose Antonio
Edif. F. de yeso	Lizarraga, Pedro	
Eguieta	Arrese, Jose Ramon	
Errotaberri	Cabrera, Maria Martina	Alcain, Juan Francisco
Gareza	Larrarte, Jose Ignacio	
Goikoetxea	Ibarbia, Antonio	
Ipidegui	Urquia, Miguel	
Itzumiz 1º	Azcue, Miguel Ignacio	Zubeldia, Juan Ignacio
Itzumiz 2º	Mutio y Zabala	Sarasola, Bartolome
Itzumiz 3º	Zabala, Y.	(Inhabilitada)
Legargain 1º	Mutiozabal, Jose Miguel	Arruti, Jose Domingo
Legargain 2º	Mutiozabal, Jose Miguel	Cortajarena, Juan Felipe
Loidi 1º	Lasquibar, Francisco	Querejeta, Jose Ignacio
Loidi 2º	Lasquibar, Francisco	Iraola, Jose Benito
Macura	San Milian, Marques de	
Miguelchiqui...	Arruti, Juan Bautista	
Onenzaro Echeverri	Mendiguren, Jose Franc.	Mendiguren, Miguel Ant.
Oyarchunenea	Macuso, Jose Maria	Landa, Francisco Maria
Pagamendi 1º	San Milian, Marques de	Pagola, Andres
Pagamendi 2º	San Milian, Marques de	Pagola, Antonio
Saizar	Goenaga y Muñoa, N.	Imaz, Josefa Antonia
San Miguel	San Milian, Marques de	Salaberria, Manuel
Sarachoeta 1º	Herederos de J. Montes	Agote, Antonio Maria
Sarachoeta 2º	Herederos de J. Montes	Olazabal, Jose Lazaro
Yola	Zabala, Ladislao	Cincunegui, Francisco
Zarapegui	Alegria, Jose Miguel	Camio, Pedro Juan
Zaratecheverri	Echeverria, Francisco M.	

2.3.7.- 1883ko Zizurkilgo etxebizitzaren jaberik garrantzitsuenak

Etxeen, jabeen eta maizterren datu horiek 1883ko Zerga Zuzena (“*Impuesto directo*”) txostenetik aterata daude. Bertan ez da zehazki adierazten zein zen etxearen jabea eta zein maizterra.

Etxe gehientsuenak bi laguni erantsita azaltzen dira. Horrelakoetan, jabea edo maizterra ziren bereizteko, Zerga Zuzenen txostenak etxe bakoitzerako



Jatrorrizko Fraisoro baserria (1895, Kutxa fototeka 70821-E4)

adierazten duenari erreparatu diogu. Soilik eraikuntzari zegokion zerga ordaintzen zuena, nagusizat hartu dugu eta, aldiz, haziendari bakarrik zegokiona ordaintzen zuena, maiztertzat. Ziur asko ez genuen etxe guztietan asmatuko, bai ordea, gehientsuenetan. Era guztietara, datuok, Zizurkil XIX. mendearen azken aldera nolakoa zen erakusten digute.

Txostenetik zera ondoriozta daiteke: herriko etxe, baserri eta lur-jabeak, ez zirela gehienetan, zuzenean nekazaritzan edo abeltzaintzan jarduten zutenak. Alderantziz, baserriaren ustiaketaren ardura ia etxe guztietan agertzen den maizterrarena zen.

Zerrendan 140 bat su edo familia agertzen dira, eta badirudi etxe hutsik ez zegoela. Atxulondoko burdinola da hutsik agertzen den bakarra.

Jabe gehienak ez ziren herrian bizi. Eta horien artean bat aipatzearren, Donemiliaga markesa (San Milian) datorkigu burura: hura zen herrian etxe eta lur-sail gehien zituena. Donemiliagatarren ondasunak herrigunean (“Kale-inguruan”) eta San Miguel bailaran nabarmentzen ziren bereziki.

Izena	K	Etxebizitza
San Milian, Marques de	12	Iriarte viejo, Alchurriaga, Macura, San Miguel, Adunibar 1º, Adunibar 2º, Pagamendi 1º, Pagamendi 2º, Aizcurutzeta, San Milian, Echeverricho, Venecia 2ª
Ameztoy, Benito	9	Camiochiqui, Camioaundi 1º, Camioaundi 2ª, Recalde, Luzuriaga 1º, Luzuriaga 2º, Sarobe 1º, Sarobe 2º, Amabi.
Recondo, Manuel	5	Argurutzeaga, Larrondobuno 1º, Larrondobuno 2º, Zaldugoiena 1º, Zaldugoiena 2º
Lizarraga, Pedro	5	Ihartza, Beldarrain 1º, Beldarrain 2º, Edif. F. de yeso 1º, Edif. F. de yeso 2º
Echeverria, Jose Maria	5	Videgurutze viejo ?, Garadicho 1º, Garadicho 2º, Pagamuño 1º, Pagamuño 2º
Irazu, Juan Jose	4	Alcañiz (Molino de), Zalduazpicoa 1º, Zalduazpicoa 2º, Chorobio y Tejeria
Mutiozabal, Jose Miguel	4	Araeta azpicoa 1º, Araeta azpicoa 2º, Legargain 1º, Legargain 2º
Lerchundi, Francisco	4	Argurutzeaga 1º, Argurutzeaga 2º, Elizalde, Mutio
Leturiondo, Joaquin	4	Arizmendi 1º, Arizmendi 2º, Garmendi, Ciarsoro
Irazu, Juan Ignacio	3	Susperro, Legarralde 1º, Legarralde 2º
Leyaristi, Jose Ignacio	3	Zubimusu 1º, Zubimusu 2º, Fraisoro

2.3.8.- Zizurkilgo biztanleriaren jatorria

Azterketa honetarako hamahiru urteko tartea duten bi errolda erabili ditugu: 1871koa eta 1884koa. Hauek lagunduko digute Pello Mari Otañoren garaiko Zizurkil hobeto ezagutzen. Guztien artean, bi datu dira azpimarragarri iruditu zaizkigunak:

- Aipatutako bi urte hauen tartean Zizurkilek eman zuen beherakada biztanle-kopuruan. Lehen erroldan (1871) 932 bizilagun agertzen badira, bigarrenkoan (1884) kopuru hori 859raino jaitsi zen.
- Herrera bizitzera iritsi zen etorkin-kopurua asko igo zen eta 1884ko erroldan aurrekoan baino %20 etorkin gehiago agertzen dira.



Zizurkilgo herrigunea, Asteasu aldetik iritsita (Indalecio Ojanguren, 1914 ing. - AGG-GAO OA 6756

Biztanleriaren bilakaera horren zergatiak 2. Guda Karlistari begira jartzen gaitu. Arrazoia bi urte horien tartean gureek jasan zuten gerrateak eragindako hondamendian datza: hilketak eta heriotzak, etxeetako miseria, gosea, gaixotasunak... Horiei guztiei gerratik ihes egin beharrean aurkitu ziren zizurkildarrak gehitu behar zaizkie.


Kanpotik iritsitako horiek ingurukoak ziren gehienbat. Urte haietan indarrean zen trenbidegintzak horietako batzuk erakarriko zituen, baina Euskal Herritik kanpoko etorkinen benetako uholdea XX. mendeko industrializazioak eragin zuen eta lantegi berriak martxan jarri zirenean gauzatu zen. Orduan eratu zen gaurko Elbarrena, Ugare auzuneari dagokiona bereziki.

Zizurkilera kanpotik iritsitakoak, 1884. urteko erroldaren arabera

Herria	Kop.	Herria	Kop.	Herria	Kop.
Asteasu	32	Pasai Donibane	4	Lizarza	1
Amasa-Villabona	22	Anoeta	4	Lezo	1
Aia	12	Zumarraga	3	Legorreta	1
Amezketza	11	Usurbil	3	Leaburu	1
Alkiza	11	Urnietza	3	Idiazabal	1
Tolosa	9	Irura	3	Hernani	1
Bidania	8	Hernialde	3	Gainza	1
Larraul	8	Azpeitia	3	Ezkaray	1
Errenteria	7	Ataun	3	Esposita	1
Aduna	7	Astigarraga	3	Elduain	1
Donostia	6	Alza	3	Etxarri Aranaz	1
Errexil	6	Zubieta	2	Zizur	1
Beizama	6	Orio	2	Berastegi	1
Andoain	6	Goiaz	2	Alzaga	1
Albiztur	6	Gaztelu	2	Alesanko	1
Soravilla	5	Zarauz	1	Aldaba	1
Orendain	5	Idiazabal	1	Aizarna	1
Lazkao	5	Urrestilla	1	Abaltzizketa	1
Zaldibi	4	S.Miguel Basauri	1	Iruñea	1

2.3.9.- Zizurkilen izandako jaiotzak

Biztanleriaren piramideak Zizurkilgo populazioaren nondik-norakoak azal-tzen ditu. Oro har, biztanleria nahiko gaztea zen; garai haietan ohikoa zen hori. Nabarmena da 15 eta 50 urte bitarteko adin-tartean dagoen biztanle kopuruaren murrizketa. Adin-tarte horri Karlistaldian bete-betean murgiltzea egokitu zitzaion, eta adierazitako murrizketa gatazkaren ondorio zuzena da.



Zizurkilgo biztanleriaren adinaren piramidea (1883). Nabaria II. Karlistadaren eragina 15 eta 50 urteen tartean (Hernandorena K.T.)

2.3.10.- Baserrietako hazienda

Garaiko baserri guztietan behiak eta txerriak zituzten. Ohikoena dozena-erdi behi, pare bat txerri, astoren bat eta ardi gutxi batzuk izatea zen. Zaldi eta behor gehiegi ez zela dirudi.

Orokorki, esan daiteke artaldeak ez zirela oso ugariak gurean. Gehienetan artalde txikitan eta ahuntz taldetxoekin batera nahasita biltzen zituzten.

BEHIAK										
Buru kopurua	1	2	3	4	5	6	7	8	9	
Baserri kopurua	2	2	7	16	22	61	10	4	4	128
Guztira	2	4	21	64	110	366	70	32	36	705

ARDIAK											
Buru kopurua	1	16	20	21	22	30	33	36	40	103	
Baserri kopurua	11	3	1	1	1	1	1	2	1	1	23
Guztira	11	48	20	21	22	30	33	72	40	103	400

TXERRIAK						
Buru kopurua	1	2	3	4	6	
Baserri kopurua	60	43	3	3	2	111
Guztira	60	86	9	12	12	179

ASTOAK				
Buru kopurua	1	2	3	
Baserri kopurua	45	3	1	49
Guztira	45	6	3	54

ZALDIAK			
Buru kopurua	2	5	
Baserri kopurua	1	1	2
Guztira	2	5	7

2.3.11.- Zizurkilgo udal karguak

Deigarri gertatzen zaigu, XIX. mendean zehar nola errepikatzen diren abizen gutxi batzuk udalbatza-karguetan.

Horrek adierazten du zein esku gutxitan zebilen udalaren kudeaketa eta zein zorrotzak ziren honen kide izateko baldintzak. Herriko boterearen gutizia gutxi batzuen artean gordetzen ahalegindu ziren, bai.

XIX. mendearen lehen erdian batez ere, bi talde txandatzan joan ziren udal agintean, Estatuan gertatzen ari zen bezalatsu: liberalak edo pentsaera askeagokoak eta kontserbadoreak. Bi pentsamoldeen arteko erlazioak ez ziren errazak izan. Euren arteko tirabirak etengabeak ziren, David Zapirainek “Zizurkil, *aldaketa haizeak*” lanean argi adierazten duen bezala.



Donemiliaga eliza, XVII. mendekoa (Indalezio Ojanguren, 1914 ing - AGG-GAO OA 6746)

Egoera are eta gehiago zaildu zen sozialista eta abertzaleen plazaratzearekin.

► Alkateak

Izen-abizenak	Urtealdiak	Izen-abizenak	Urtealdiak
Alcorta, Juan Francisco	1855-1856	Lertxundi, Francisco	1861-1862
Arizmendi, Joaquin	1865	Leyaristi, Jose Antonio	1821
Barriola, Juan Perez	1810,14,19,22	Leyaristi, Juan Bautista	1832
Barriola, Jose	1895	Leyaristi, Jose Ignacio	1879
Echeverria, Jose Domingo	1881	Lizarraga, Joaquin Ign.	1826
Irazu, Fernando	1809	Muñagorri, Jose Fco.	1857-1860
Irazu, Martin Antonio	1818	Mutio, Francisco	1819
Irazu, Juan Ignacio	1863	Otaño, Jose Bernardo	1884
Irazu, Juan Jose	1885	Recondo, Manuel	1867

► Erregidore edo zinegotziak

Izen-abizenak	Urtealdiak	Izen-abizenak	Urtealdiak
Achega, Jose Eusebio	1809, 1810	Echenagusia, Jose Domingo	1885
Achega, Domingo Ignacio	1832	Gueresta, Juan Bautista	1879
Achega, Jose Manuel	1857-60, 1861-63	Iguaran, Juan	1819
Achaga, Jose Jacinto	1885	Irazu, Juan Bautista	1810
Albea, Jose Joaquin	1884	Irazu, Martin Antonio	1819
Alcorta, Francisco	1865	Irazu Videgurutze, Joaquin	1819
Arizmendi, Juan Pedro	1857-60	Irazu Legarralde, Juan Bautis.	1819
Arsuaga, Jose Ignacio	1867, 1884	Irazu, Joaquin	1832
Artucha, Andres	1855-56	Irazu, Miguel Maria	1855-56, 1861-63, 1867
Artucha, Juan Miguel	1863	Iturralde, Jose Antonio	1809-10
Barriola, Juan Perez	1809, 1819, 1826	Iturralde, Gabriel	1819
Barriola, Jose Domingo	1881	Iturralde, Sebastian	1855-1856
Beldarrain, Francisco Antonio	1809-10	Larrarte, Jose Inazio	1879
Beldarrain, Gabriel	1809-10, 1832	Leyaristi, Jose Antonio	1809-10
Beldarrain, Jose Antonio	1810, 1819, 1832	Leyaristi, Juan Bautista	1819
Belderrain, Francisco	1832	Leyaristi, Juan Bautista	1861-1862
Bengoa, Juan Tomas	1879	Lerchundi, Francisco	1867, 1884-85
Bengoechea, Juan Tomas	1819	Lerchundi, Miguel Jose	1884
Bengoechea Leyaristi, Juan Bautista	1857-60, 1865	Lezo, Juan Bautista	1819
Donemiliaga, Jose Bernardo	1832	Lizarraga, Miguel Antonio	1809-10
Eceiza, Pedro Ignacio	1884	Lizarraga, Joaquin Ignacio	1819
Echave, Jose Antonio	1809, 1819, 1826, 1832	Lizarraga, Miguel Joaquin	1861-1862
Echave, Jose Ignacio	1861-1862	Macuco, Jose Maria	1863
Echave, Miguel Jose	1881	Otaño, Jose Bernardo	1881
Echeveguen, Domingo Ig.	1809-10	Otegui, Jose	1881
Echeverria, Juan Ascencio	1819, 1832	Sarasola, Antonio	1879
Echeverria, Jose Ignacio	1832	Torregaray, Jose Fco.	1879
Echenagusia, Juan Antonio	1809-10	Urcola, Fco. Javier	1809-10, 1819
Echenagusia, Juan Bautista	1819	Urcola, Fco. Javier	1819
Echenagusia, Juan Bautista	1855-56, 1867	Urdampilleta, Juan Ign.	1857-1860

2.3.12.- Emakumezkoen zein gizonezkoen izenen maiztasuna

Gai bitxia erantsi diogu ikerketari: Zizurkilen zein ziren izenik ohikoena XIX. mende hartan. Haietako batzuk ezohikoak gertatzen dira gaurko bela- rrietan: hainbat santuren izenak... Izenak konposatuak izaten ziren gehi- enetan, eta gutxitan aurki daiteke izen bakarreko graziarik. Garaiko gizartea, garaiko izendegia.

►1884.ko urtekoak

Emakumezkoak	K.	Gizonezkoak	K.
Josefa Antonia	17	Francisco	21
Josefa Ignacia	17	Jose Antonio	19
Catalina	14	Jose Maria	19
Maria Bautista	14	Juan Bautista	15
Francisca	13	Antonio	14
Manuela	12	Francisco Maria	14
Dolores	11	Juan Jose	14
Maria Antonia	11	Jose Manuel	13
Micaela	11	Jose Ignacio	11
Micaela Ignacia	10	Jose	10
Josefa	8	Jose Francisco	9
Maria Josefa	8	Andres	8
Juana Josefa	7	Jose Domingo	8
Maria	7	Juan Ignacio	8
Isabel	6	Manuel	8
Juana	6	Miguel Maria	8
Juana Ignacia	6	Antonio Maria	7
Maria Ignacia	6	Ignacio	7
Maria Martina	6	Jose Miguel	7
Antonia	5	Jose Ignacio	7
Ignacia	5	Pedro Jose	7
Juana Bautista	5	Pedro Maria	7
Juana Micaela	5	Pedro	6
Manuela Ignacia	5	Bernardo	5
Manuela Josefa	5	Jose Bernardo	5
Juana Francisca	4	Jose Joaquin	5
Agustina	4	Juan Tomas	5

2.3.13.- Zizurkilgo ogibideak 1860. urtean

Abizena	Izena	Bailara	Etx. zb.	Industria mota
Lerchundi	Francisco	Calle de San Milian	2	Agrimensor
Otaño	Pedro Maria	Barrio de Elbarrena	16	Carretero de bueyes
Bengoechea	Juan Tomas	Barrio de Elbarrena	19	Carretero de bueyes
Lizarraga	Miguel Joaquin	Barrio de Elbarrena	21	Carretero de bueyes
Arizmendi	Juan Pedro	Barrio de Aquezcoa	16	Carretero de bueyes
Muñagorri	Jose Francisco	Barrio de Aquezcoa	1	Carretero de bueyes
Urcola	Joaquin Ignacio	Barrio de Irazu	17	Carretero de bueyes
Arrese	Jose	Calle de San Milian	1	Cirujano
Arsuaga	Jose Ignacio	Barrio de Elbarrena	1	Herrero
Altuna	Mauricio	Barrio de Elbarrena	28	Herrero
Gamborena	Francisco	Barrio de San Miguel	2	Herrero
Otaño	Juan Pedro	Barrio de Elbarrena	Nueva C.	Juego de bolos
Guereño	Juan Bautista	Barrio de Aquezcoa	10	Molinero
Elicegui	Jose	Barrio de Aquezcoa	17	Molinero
Artucha	Juan Miguel	Barrio de Elbarrena	26	Molinero
Otaño	Juan Jose	Barrio de San Miguel	8	Molinero
Iturralde	Sebastian	Barrio de San Miguel	9	Molinero
Olarra	Miguel Ygnacio	Calle de San Milian	10	Panadero con horno
Gozategui	Juan Josefa	Barrio de Elbarrena	1	Panadero con horno
Landart	Jose Miguel	Barrio de Elbarrena	3	Panadero con horno
Eguino	Francisco	Barrio de Elbarrena	17	Panadero con horno
Azurmendi	Juan Luis	Calle de San Milian	9	Tabernero
Aramburu	Jose Ramon	Calle de San Milian	8	Tabernero
Ygartua	Bartolome	Barrio de Aquezcoa	18	Tabernero
Oyarzabal	Jose Manuel	Barrio de Elbarrena	28	Tabernero
Otaño	Juan Pedro	Barrio de Elbarrena	Nueva C.	Tabernero
Aya	Juan Cruz	Barrio de Yrazu	31	Tabernero
Arsuaga	Antonio Maria	Calle de San Milian	6	Zapatero

2.3.14.- Zizurkilgo errotak

ERROTA	Adunibar	Loidi	Alakañiz	Akezkoa	Oakaiztegi
BAILARA	San Miguel bailara	San Miguel bailara	Akezko bailara	Akezko bailara	Elbarrena bailara



Errekalde, Pello Mari Otañoren sortetxea (Hernandorena K.T., 2005)

2.3.15.- Zizurkilgo ogibideak 1871. urtean

Diotenez, garai hartako ia baserri gehienek zuten morroia, baita askok neskamea ere. Garai zail haietan, mantenuaren (jana eta loa) truke egiten zuten lan.

Egia esan, ez ditugu morroi eta neskame asko aurkitu Zizurkilgo erroldetan. Hori, agian, herriko baserrien batezbesteko tamaina kaxkarragatik gerta daiteke.

Ogibideen artean, bi tabernari emakumezko azaltzen dira, horietako bat Karidadeko Bentako Joana Bautista Barriola Arregi da, Pello Mari Otañoren ama, hain zuzen ere.

OGIBIDEA	
Labrador/a	Cesada
Propietario/a	Cesante empleado
Zapatero/a	Alguacil
Molinero	Estudiante
Jornalero/a	Maestro de niños
Costurera	Miraniñas
Tabernero/a	Tejero
Labradora	Carpintero/a
Criado	Peon
Criada	Presbitero
Cantero	

2.3.16.- Industrializazioa Zizurkilen

XIX. mendearen azken aldera jada industrializazio prozesuak indar handia hartua zuen Euskal Herrian. Amasa-Villabonan bertan lantegi multzo txiki batek sendo ziharduen jardunean.

Zizurkilen, ordea, oso gutxi ziren industria-jarduerak. Industrializazio prozesuari ia-ia ekiteko zegoen herria. Ez zen urruti ordea, Elbarrena goitik behera eraldatuko zuen industrializazioa.

XIX. mendearen amaierara arte ogibide tradizionalak jarraitu zuten Zizurkilen: errotariak, arotzak, okinak, harginak, zapatagileak... Teilagintza edo igeltsugintza bezalako jarduerak ere aspaldikoak ziren gure herrian. Mendearen amaierarekin ordea, aldaketa haizeak iritsi ziren. Industrializazio prozesuaren eragile nagusia trenbidea izan zen.

1882. urtean, Villabona-Zizurkil izena hartu zuen geltokia eraiki eta bi urteren buruan, “Diaz y Cia”, tinta eta kotoizko estanpatuak ekoizteko fabrika txiki bat jarri zuten martxan Zizurkilen. Denbora gutxi iraun bazuen ere, herriko industrializazioaren aldeko lehen urratsa izan zen hura.

Beranduago, 1892.an, “Ayestaran y Cia” zerratokia zabaldu zen. Tabernak ugari ziren, Pasusenea tarteko (Teodosioenea, berriz, beranduxeago zabaldu zuten, XX. mendea hastearekin batera).

Mende berriarekin etorriko ziren Fraisoroko “Granja Modelo” eta “Portu Hermanos y Cia”, industrializazioari bultzada esanguratsua emango ziotenak. Hori, ordea, beste istorio bat da.



Zizurkilgo herrigunea, kaskoa (Indalezio Ojanguren, 1914 - AGG-GAO OA 6759)

► Zizurkilgo industria-matrikula

1900. urtea

Alkatea	Udal zerga	Zergadunaren izena	Zergadunaren abizena	Industria ogibidea	
Mendizabal, Martin	1.580 pzta.	Barriola	Juan B.	Espartingile	
		Arrizabalaga	Martin	Okin	
		Gurrutxaga	Juan F.	Espartingile	
		Bengoetxea	Pedro	Errotari	
		Arizmendi	Bernardo	Errotari	
		Aramburu	Jose	Errotari	
		Alkain	Juan F.	Errotari	
		Tapia	Francisco	Errotari	
		Aiestaran	Jose J.	Zerrategi	
		Irazu	Juan Jose	Teilagile	
					Tabernari (12)
		Sorarrain	Pedro	Okin	
		Mendizabal	Baltasar	Okin	
		Lertxundi	Miguel Jose	Okin	
		Irurreta	Joaquin	Errementari	
Beldarrain	Juan Jose	Teilagile			

OTAÑOTARRAK ETA BARRIOLATARRAK

Bi abizen ditugu Pello Mariri estuki lotuta: aitaren Otaño eta amaren Barriola. Lehendabizikoak, Otañok, Bidanitik Larraulera eta hemendik Zizurkilera bidaiatu zuen belaunaldiz belaunaldi. Bigarrena, Barriola, Zizurkil berari atxikita azaltzen zaigu.

Otañotarren kasuan, hiru belaunaldiko bertsolariak ezagutzen dira abizen horrekin. Hiru belaunaldi hauetako kideak Larraul, Zizurkil, Aduna, Donostia eta Ameriketara jaio eta bizitu ziren: Errekalde Zaharra edo Pello Mari Otaño Tapia, aitona; Joan Pello eta Joxe Bernardo Otaño Lasa, aita eta osaba; eta Pello Mari eta Joxe Bernardo Otaño Barriola, senideak. Hiru dira Otaño abizenarekin bereziki loturik agertzen zaizkigun etxeak: Larraulgo Labakane edo Larrunbide Behekoa, Zizurkilgo Errekalde eta Karidadeko Benta.

Pello Mariren Barriola bigarren abizenarekin, berriz, Zizurkilgo hainbat etxe lotuta ditugu. Esaterako, Iragorri, Plazaetxeberri, Ugarte, Erretenbarrendi eta Arizmendizabal.

Bizitzak elkartuta, elkar oso erlazionaturik ibili ziren bi familiak, Otaño eta Barriola. Bi etxeetako kideak elkarrekin ezkondu ziren, biak udal ardurak eraman zituzten Zizurkilen eta elkarri diru maileguak egin zizkieten. Gainera, Errekaldeko Otañotarrak eta Iragorriko Barriolatarrak liberalak izaki, bi



Iragorri baserria, Barriolarren iturri (Hernandorena K.T., 2005)

familiak ihesi ibili ziren Karlistadetan. Beraz, esan daiteke bi sendien artean sare sozial estua osatu zutela.

3.1.- Barriolatarrak

Barriolarrena ez zen edozein familia XIX. mendeko Zizurkilen eta oso paper garrantzitsua jokatu zuten herrian.

Barriola abizeneko hiru belaunaldi bederen ekarriko dira hona: Joan Perez Barriola Ostolaza (Pello Mariren birraitona, amaren aldetik), Frantzisko Maria Barriola Ameztoi (aitona) eta Joana Maria Baptista Barriola Arregi (ama). Barriola abizena Iragorri baserriarekin lotuta egon da.

Nahiz eta bataio, ezkontza eta heriotza-sakramentu liburuak ditugun, hutsune handiak topatu ditugu dokumentuetan Barriolarren arrastoa jarraitzerakoan. Inguru hauetan gehienak karlistak ziren arren, Barriolata-

rrek liberalen pentsaerari jarraitu zioten. Horrekin bakarrik geratzea ordea sinplekerian erortzea litzateke: Barriolarren ibilbideari jarraipena egiteko ezinbesteko egin zaizkigu Zizurkilgo Udalak argitara eraman dituen herriko historiari buruzko hiru liburukiak. Hirugarrena bereziki, David Zapirainek (Trintxerpe, 1968) idatzi zuena: *Zizurkil, aldaketa haizeak (1800-1950)*.

Argi eta garbi dago dokumentuetan Barriolarrek Zizurkilgo jauntxo nagusien aurka etengabe jokatu zutela, San Millan edo Donemiliagarren kontra, alegia, eta batez ere, horiek izendatzen zituzten erretoreen kontra. Frantzisko Maria Barriola (Pello Mariren aitona, genion bezala) Zizurkilgo Udaleko idazkari zen eta etengabeak izan ziren bera eta Donemiliagarren artean izandako demanda judiziala zein liskarrak.

Izan ere, XIX. mendean Zizurkilen boterea bi gune nagusiren inguruan bildu zen. Alde batetik zeuden Donemiliaga ahaide nagusia eta haren mende zegoen parrokia. Beste alde batetik, udala, agintari zibilak eta idazkariak zeuden. Eta ez dugu ahaztu behar Joan Perez eta Frantzisko Maria Barriola aita- semeak herriko idazkari izan zirela urte askotan, eta beraz, aurre egiten zietela San Millandarrei, Donemiliagarrei.

XIX. mendean zehar udal hauteskundeetan borroka eta tira-bira sutsuak izan ziren herritarren artean. Liberalen eta absolutisten garaiak ziren haiek eta Zizurkilen bi talde osatu ziren. Liberalak Barriolarren inguruan bildu ziren eta absolutistek, berriz, Donemiliagarrekin egin zuten bat. Horren lekuko eta froga ditugu bi taldeen artean izan ziren salaketa, auzi, demanda, isun, elizako hamarrenak ez ordaintzea, ihes aldiak eta beste abar luze bat.

Gorago aipatu den David Zapirainen lanean eta Barriola belaunaldien inguruan aurkitu eta bildu dugun dokumentazioan era argian ikus daiteke aipatzen ari garen etengabeko liskar-giro hori.

Esaterako, 1821ean, Joan Bautista San Millan idazkaria hil zenean, Joxe Bernardo Donemiliaga erretoreak eta beste batzuk Migel A. Etxeberria izendatu zuten maisu eta organista idazkari. “*Barriolak salatu egin zuen bidegabekeria egiten eta sinatzen zituelako agiriak (idazkari berriak). Azkenean, Barriolaren salaketa aintzat hartu zen, eta agiriak Etxeberriaren esku utzi beharrean, udal-lokaletan gorde ziren. Baina zein zen lau herritar boteretsu hauen ihesa eragin zuena? Garai hartako alkatea Francisco Maria Barriola zen, Joan Perez Barriolaren semea*”.

En tres de Noviembre de mil, ochocientos, veinte
 y tres despues de examinar la doctrina Christiana de
 haber recibido los santos Sacramtos de Confesion y la
 comunion de la qual tres moniciones Conciliares, y
 habe[n]do nombrado injudicio algunos con consentimiento
 de sus Intercedidos y asistencia de mi el impas-
 cinto Vicario Contraste Verdadero, y legitimo matai-
 monio Fran. Maria de Barriola hijo legi-
 timo de Juan Vazquez de Juana Bautista de Ame-
 ztoy los tres naturales, y vecinos, y fue la ultima, y
 son los otros dos de esta villa con Michael Joseph de Arce
 hijo natural y heredero de Urbabona Amara hija legitima de Juan
 Ignacio natural de Lumbada, y de Joseph Antonia de Oñate natural
 de Aguilas, siendo testigo Juan Bernabé San Millán, Juan
 Ignacio de Lumbada, y Joseph y Juana y Constante firme:

M. Ignacio M. de San Millán

Pello Mari Otañoren aitona Frantzisko Barriolaren eta amona Joana Bautista Ameztorein ezkontza-
 agiria (1823 - Elizbarrutiko Artxibo Historikoa)

Zizurkilen, 1820 eta 1830eko bi hamarkadetako auzi, gatazka eta haien atzean zeuden liberal eta absolutisten tira-birak zehatz-mehatz narraturik daude aipatu Zapirainen liburuan. Baina auzia eta borroka ez zen bi familien artekoa bakarrik, aipatutako bi taldeek hartu zuten parte.

Lehen Karlistadaren atarian, 1834an, Frantzisko Maria Barriola *“izango zen gertatutako guztiaren errudun, eta ‘iraultzailatzat’ eta etsaien aldekotzat hartua* dio D. Zapirainek: *“Hala eta guztiz ere, udal-aktek Barriolak egin zuen sabotaje-ekintza bat jasotzen dute. 1834ko irailean Zizurkildik alde egin zuenean, betiere udal karlistaren esanetan, erregearen aldeko boluntarioentzako horniduraren prestakuntzaren berri eman zion Barriolak “etsaien guarnizioari”. Eta horren ondorioz, “diruzaleek”, alegia, soldadu isabeldarrak 400 anoa (razio) ogi, haragi eta ardo, eta 30 anoa bazkaren jabe egin ziren”.*

Joan Perez Barriola Ostolaza, Pello Mariren birraitona, Zizurkilen jaio zen 1768an. Bere gurasoak Frantzisko Antonio Barriola Iraragorri eta Maria Salvadora Ostolaza Bidaurreta ziren. 1795ean Joana Bautista Ameztoi Lizurumerekin ezkondu zen. Zazpi seme-alaba izan zituzten: Maria Salvadora (Joan Pello Arizmendirekin ezkondu zen Akezkoberri edo Arizmendizabal baserrira), Frantzisko Maria Felix (Pello Mariren aitona), Joana Frantziska, Mikaela Inazia, (laster zendua?), Mikaela Inazia (berriro) eta Joxefa Inazia, bikiak, eta Joxe Inazio.

Frantzisko Maria (Pello Mariren aitona) ez zen prenda txarra izango. 1817an Donemiliagako Bernarda Leiaristi eta berak elkarri ezkontzeko hitza eman zioten nonbait. Baina Bernarda haurdun geratu eta Barriolak hitza jan zuen. Ondorioz, auzi katramilatuan ibili ziren bi familiak eta auziko gastuak ordaintzera zigortua izan zen mutila.

Donemiliaga etxeko Bernarda Leiaristik lehen aitortza Villabonako Migel Joxe Charroalderen notaritzan egin zuen. Zubimusun bizi zen Fraisoroko sendagile batek sei hilabeteko haurdunaldiaren azterketak egin zizkion. Auziak bi urte iraun zuen eta bi seme-alaben guraso eta Zizurkil zein Amasako parrokiako erretorez gainera, lekuko eta aditu ugarik parte hartu zuten auzian, besteak beste, Gorosabel Ormazabal lizentziatuak. Bernardaren haurra, 1818ko maiatzean bataiatu zuten Amasan eta Manuel Maria izena jarri zitzaion.

Azkenik, ordea, Frantzisko Maria Barriola ezkondu, ezkondu zen, baina ez Donemiliagatarrarekin, Villabonako Mikaela Joxefa Arregirekin baizik. Ezkongai zizurkildarrak, urte hartan, hogeita hiru urte zituen. Joan Perez

aitak ezkonberriei hainbat finka utzi zizkien: Irigorri, Arandabarro eta eskriturarik egin gabeko beste batzuk. Truke, aita- semeak elkarrekin bizitzea onartu zuten, Iragorri hain zuzen. Mikaela Joxepak, berriz, 2.000 dukateko dotea eramango zuen aipatu baserrira.

Dena ez zen, ordea, erraza Barriolatarrentzat. Galtza bete lan izan zuten aita- semeak zor eta maileguei erantzuten. Izan ere, etengabeak dira Barriolatarrek izan zituzten auziak eta epaiketak Lehen Karlistada inguru horretan. 1825ean, adibidez, Zizurkilgo Joan I. Larrondubuno erretoreak auzitan ibili zuen korrejidore edo zinegotzi zen Frantzisko Maria Barriola, Atxulondoko harria baimenik gabe eraikuntza berri bat egiteko erabiltzeagatik. Esan behar da Donemiliagatarrek bazutela Atxulondoko ondasunetan partea.

1831. urtean, Tolosako Joxe Joakin Otadui, Barriola aita- semeen ondasunak bahitu zituen. Nonbait, Joxe Inazio Barriola Ameztói, Ameriketara joatekoa zenak utzitako zorrak eskuratu nahi izan zituen: *“por alimentos suministrados a su hermano Joxe Ignacio Barriola”*.

Hurrengo urteak ere hari beretik joan ziren. Arnasa etorri zitzaïen Barriolatarrei Frantzisko Mariaren ezkontzarekin: gorago aipatu dugun bezala, bere emazteak dote bikaina ekarri zuen eta horren bidez aitaren zorrak kitatzen hasi zen.

Lehen Karlistadan gauzak okerrera jo zuten oraindik Barriolatarrentzat. 1837an, adibidez, Frantzisko Maria Lizarragak inguruko herrietako liberalen

Pello Mariren arbasoen izen-abizenak, jaioterria eta bataio datak

- Joan Perez Barriola Ostolaza (berraitona) Zizurkil, 1768-03-01
- Joana Bautista Ameztói Lizurume (berramona) Zizurkil, 1771-07-14
- Pedro Maria Otaño Tapia (aitona) Larraul, 1803-04-03
- Joxepa Iñaxi Lasa Roteta (amona) Zizurkil, 1803-07-27
- Frantzisko F. Barriola Ameztói (aitona) Zizurkil, 1802-07-04
- Mikaela Joxepa Arregi Otazu (amona) Amasa-Villabona, 1799-06-22
- Joan Pello Otaño Lasa (aita) Zizurkil, 1829-12-28
- Maria Bautista Barriola Arregi (ama) Amasa-Villabona, 1829-07-19



Zizurkilgo plaza eta Barriolarren Plazaetxeberri (Indalezio Ojanguren, 1914 ing - AGG-GAO OA 6757)

etxeen informazioa eta zerrenda egin zuen. Frantzisko Maria Barriolaren aitaginarreba zen Manuel Fermin Ameztoi villabonatarrari Errekalde, Kamioaundi, Kamiotxiki, Amabi eta Luzuriaga kendu nahi izan zizkien. Ameztoi familia Nafarroatik iritsia zen 1754an eta badirudi hauek eraiki zutela Zizurkilgo Plazaetxeberri.

3.2.- Otañotarrak

Otañotarren artean ez ziren asko aldatzen izenak belaunaldietan zehar. Guztietan ditugu, adibidez, Pello Mari edo Joxe Bernardoren bat, eta askotan, ez zaigu erraza egiten familiako bakoitza identifikatzea. Hainbeste bertsolari eta izen eta abizen antzekoak bereizteko, Pello Mari Otaño Tapiari (Pello Mariren aitona) Errekalde Zaharra esango diogu. Joxe Bernardo Otaño Lasari (Pello Mariren osaba), Joxe Bernardo. Pello Mari Otaño Barriola berrari, Pello Mari eta bere anaia Joxe Bernardo Otaño Barriolari, aldiz, Bernardo soilik deituko diogu narrazioa arintzearren.

3.2.1.- Pello Mari Otaño Tapia, Errekalde Zaharra (1803-1883)

Pello Mari Otaño Tapia, Errekalde Zaharra, gure Pello Mari handiaren aitona zen. Larraulgo Larrunbide Behekoan jaio zen 1803an, Bere gurasoek Pello Antonio eta Teresa Antoniak beste lau seme-alaba izan zituzten: Maria Joxepa, Inaxi, Pello Joxe eta Joxepa Antonia.

Lehen Karlistada aurretik, Larrauldik Zizurkilgo Errekalde baserrira ezkondu zen Pello Mari Otaño Tapia, bertako alaba Maria Mikela Lasa Errotetarekin. Hortik datorkio Errekalde Zaharra deitura. Bere familiaz eta seme-alabez at ez dago informazio handiegirik.

Bederatzi seme-alaba izan zituen bikoteak: Joan Pello (Pello Mariren aita), Joxepa Antonia, Joxepa Inaxi, Joan Joxe, Maria Joxepa, Joxe Bernardo (Pello Mariren osaba, alegia), Maria Bautista, Joana Martina eta Joana Mikaela. Aitona-amonak, seme-alabak, bilobak... Bazen, bai, nahiko jende Errekalde baserrian bizitzeko.

Aurrerago bereziki landuko ditugu Errekalde Zaharraren bi seme bertsolariak, hots Joan Pello eta Joxe Bernardo, Pello Mariren aita eta osaba, hurrenez hurren. Beste gainontzeko zazpi seme-alaben berri labur-labur erantsi dugu jarraian, Antonio Zavalaren iturria erabiliz gehienbat:



Larraulgo Larrunbide Behekoa, Pello Mari Otañoren aitona Errekalde Zaharraren jaiotetxea (Hernandorena K.T., 2010)

- Joxepa Antonia, bigarrena, Zizurkilgo Joxe Frantzisko Etxenagusiarekin ezkondu zen 1855ean. Ez dakigu noiz hil zen.
- Joxepa Inaxi, hirugarrena, Larraulen hil zen.
- Joan Joxe, laugarrena, Argentinara joan zen eta Cordoba hirian jarri zen bizitzen. Joxe Bernardo anaiak eta Pello Mari ilobak berarekin izan zituzten harremanak eta bertsoak gorde dira. Ameriketatik itzuli-ta, Donostian hil omen zen.
- Maria Joxepa, bosgarrena, Adunako Eizagirre baserriko Joxe Lorentzo Mendizabalekin ezkondu zen.
- Maria Bautista, zazpigarrena, Maati ez-izenez ezaguna, Zizurkilgo Antonio Mari Gozategirekin ezkondu zen, Erretenbarrendi baserrira. Barriolatarrak Irigorritik 1866an desagertu zirenean, Gozategi abizena zutenak jarri ziren bertan bizitzen XIX. mendearen amaiera arte.
- Joana Martina, zortzigarrena, Urnietako Joxe Antonio Loinazekin ezkondu zen.
- Joana Mikaela, bederatzigarrena, berriz, Asteasuko Frantzisko Inazio Tapiarekin ezkondu zen. 1939an hil zen.

Errekalde Zaharra bertsolari ezaguna zen bere garaian. Horrela aitortu zuen Pello Mari bilobak, 1891n, *Amets bat* izeneko lehen bertsoan: ... *amak siaskan nedukanian edo bere besoetan, kontu politik esanaz beti, kantatuaz batzubetan, geren aitonak moldatutako itz neurtu ta bertsuetan*. Errekalde Zaharra bertsolarien saioetan epaile lanetan ere ibili ohi zen, baina 1877-1879 urteetan, bere gaixotasunagatik Donostiako bertso jaietan ez zen epaile izan. Horixe dio Euskal-Erria aldizkariak, 1880ko aleak 141. orrialdean. Gainera garaiko gehienak bezala, bat-bateko bertsolaria izan zen eta ez zaizkio bertso idatzirik ezagutzen. Bai, ordea, beste norbaitek jasotakoak.

Kontatzen denez, ateraldi bikainak izaten zituen. Lan honetarako oso lagungarri suertatu zaigun Teodoro Muxikak, adibidez, Adunibar errotan jasotako pasadizoa kontatzen digu:

“Joxe Bernardo bertsolariaren anai batek, mutil gaztea zala, Larraulkoa omen zuen andregai. Oso maitemindurik zebiltzan garai batean, despedidako karta bat jaso omen zuen andre-

Errekalde baserria,
Pello Mari Otaño
zendu zen garaitsuan
(Indalezio Ojanguren,
1914 - AGG-GAO OA
6751)



gaiak. Ori irakurtzean, neskatxa au negarrez lertzen jarri omen zan, eta bere aitak galde egin omen zion:

Zer gertatzen zaizu:

Eta alabak:

Ara, aita: eskuetan dedan karta ontan irakurtzen dedanez, senargaiak utzi egiten nau.

Egun guztia negarrez zeramala bere aitak ikusirik, illunabar aldera Errekaldera joatea pentsatu omen zuen. Eta alaxe egin. Jo omen zuen Errekalden atea, eta Errekalde Zaarraren emaztea atera omen zitzaion, eta onela dio andregaiaren aitak:

Gabon.

Etxeko andreak erantzun:

Bai zuri ere. Baiñan nolatan zu eman garai auetan?

Bai; ez da garai ederra, baiñan bisita au egin bearra neukan.

Etxean al dago nire alabarekin dabillen mutilla?

Bai. Ikuilluan beiak jeizten ari da.

Esaiozu datorrela pixka batean.

Etorri da mutilla eta onela dio neskaren aitak:

Zer gertatzen zaizute?

Mutillak:

Zer, bada?

Gure alabak zure despedidako karta artu du eta gaixoa negarrez lertzen dago. Ara: poltxikuan dakarkit karta ori.

Mutillak arriturik:

Nik despedidako karta idatzi diodala nire andregaiari? Ekatzu karta ori.

Eman dio karta eta, irakurtzen asi bezain laster, au dio mutillak:

Au nere aitaren letra da.

Deitu omen zioten Errekalde Zaarrari eta, etorri bezain laster, semeak:

Baiñan, aita? Zer egin dezu? Nire andregai gaixoari eman diozun atsekabea! Zer burutaziok eman dizu lan au egiteko?

Eta Errekalde Zaarrak erantzun:

Ik bai al uan oberik, andregai irekin pin zebillen edo ez jakiteko?

Errekalde Zaarrak danak ao zabalik utzi omen zituen” .

Lehen esan denez, azken urteetan gaixorik ibili eta testamentua eginik, Errekalde Zaharra 1883an hil zen. Bere emazte Maria Mikaela, berriz, handik sei urtera, 1889an.

3.2.2.- Joan Pello Otaño Lasa, Pello Mariren aita (1829-1901).

Karidadeko benta

Joan Pello Otaño Lasa, Pello Mariren aita, Errekalde Zaharra eta Mikaela Lasaren seme-ahabak zaharrena izan zen. Errekalde baserrian jaio zen 1829an. Berak zihoenez, *Bi aldiz izanduba nago Amerikan, ta naiz ez ekarri len andik dirurikan...*

Joana Bautista Barriola Arregirekin ezkondu zen 1854an, Zizurkilen. Bederatzi seme-alaba izan zituzten Errekalde eta Karidadeko Bentan jaiotakoak: Joana Bautista, Mikaela Joxepa eta Pello Mari bizkiak, Joana Mikaela, Joxepa Antonia, Joxe Bernardo (bertsolaria hura ere), Joan Pello, Joxe Frantzisko eta Joxe Domingo. Jaio berritan edo oso urte gutxirekin lau seme-alaba hil zitzaizkien: Joana Bautista 1855ean, Mikaela Joxefa 1858an, Joxepa Antonia 1864an eta Jose Domingo 1875ean.



Juan Pedro Otaño

Arestian Errekaldeko seme-alabek zerrenda adierazi denean aipatu dugu bazela nahiko jende baserri batean guztien urdailak asetzeko. 1859an hamar lagun bizi ziren Errekalden: Joan Bautista Lasa amaren aldeko aitona, Pello Mari edo Errekalde Zaharra eta Mikaela gurasoak, eta sei seme-alaba. Gainera, Joan Pello seme zaharrena ezkondu zegoen Joana Bautista emaztearekin. Hark osatzen zuen hamargarrena.

Gainezka, beraz, etxea. Hori dela eta, Errekaldeko lurretan etxe berri bat egitea erabaki zuten, giroa lasaitzearren. Leku estrategikoa hobetsi eta erabaki zuten horretarako. Bai, zeren eta Karidadeko Benta izango zen horretan elkartuko ziren Zizurkilgo herrigunetik eta Aduñatik zetozen bi bideak, handik batera Villabonara jarraitzeko.

Joan Pello Otaño Lasa (1829-1901), Pello Mariren aita, Donostiako *El Thun Thun* aldizkaritik (1894 - Familia)

Hantxe kokatu zuten, bada, eraikuntza berria, taberna izateko leku egokia. Zizurkilgo erretoreak bertako parrokia matrikulan, 1860an, lehen aldiz “*Venta de Caridad*” izeneko etxe bateko biztanle hauek adierazi zituen: Joan Pello Otaño eta Joana Bautista Barriola. Pello Mari eta Joana Mikaela bi seme-alabek osatzen zuten sendia. Ondoriozta daiteke urte hartan eraiki zela. Diru askorik ez eta badirudi auzolanean eraiki zutelako jarri ziotela etxeari Karidade izena.

Joan Pello hargina izanik, Karidadeko Benta nagusiki berak eraikiko zuen. Baina 1873tik aurrera ez du ematen Pello Mariren aitaren egoitza etxe berria zenik, ez baita agirietan azaltzen. Donostian bizi zela dirudi eta ziur asko bera izango da 1863an Paskual Azurza harginaren menpean hiriburuko espaloietako harlosak jartzen aritu zen “*Pedro Otaño*” hura.

Zizurkilen 1860. urtean herriko idazkari lehen aipatu dugun Frantzisko Maria Barriola zen eta alkate, berriz, Joxe Frantzisko Muñagorri. Urteko zerga emaleen zerrenda egin zuten 1860an eta han ageri ziren herrian seinatubarnari eta itzain, bost errotari, lau okin, hiru errementari eta sendagile, tasatzaile edo “*agrimensor*” bana zeudela. Zerrenda hartan Joan Pello Otaño, Pello Mariren aitak, etxe berri batean taberna eta bola-tokia zeuzkan. Horrek ere erakusten digu Karidadeko Benta 1860rako eraikia zegoela.

Karidadeko Bentari beste izen batzuk ere eman dizkiote agirietan historian zehar. Lehena, esan bezala, “*Venta de Caridad*”. Gero “*Caridade*” etxe-izena eta azkenik, Karidadeko Benta.

Joan Pello aita eta familia Donostiara bizitzera joan zirenean, Joana Bautista Barriola Arregi, Pello Mariren ama, izan zen bertako tabernaria 1879an hil arte. Dirudenez, Joan Pello ez zen behin ere tabernari aritu eta inoiz ez zen itzuli Karidadeko Bentara bizitzera.

Gero, Zizurkilgo parrokia matrikulan ageri denez, 1886an Hernialdeko Antonio Aldazabalek eta Katalina Etxeberriak hartu zuten Karidadeko Benta. 1887an, Joana Bautista Amianok, 1891n Amasako Domingo Gorostidik eta, azkenik, 1902an, Leaburuko Emilia Argaiak.

Otaño eta Barriola familiak, esan bezala, liberalen alde lerrokatuta zeuden. Karlistada zela eta, 1873an Donostiara joan ziren otañotar batzuk. Hurrengo bi urteetan Joan Pello eta beste hainbat sendiko Trinitade kaleko 33. zenbakiko laugarren solairuan bizi zirela dakigu. Beraien artean ez da



Karidadeko benta zena (1960 - Familia)

agertzen, ordea, bere emazte Joana Bautista, Pello Mariren ama. Hura, itxura denez eta lehen aipatu dugun bezala, Karidadeko Bentan geratu zen eta 1879an hil zen Zizurkilen. Hurrengo hamarkadan bigarren aldiz Pello Mari eta, 1883an, lehen aldiz Joana Mikaela Ameriketara joan ziren, alabari Rosariora joateko baimena eman baitzion bere aitak.

Garai haietan ohi zen bezala, Joan Pello eta familia sarritan aldatu ziren etxebizitzaz: 1882an Amarako “*Escabechería*” kalean zeuden. 1885ean berriz, San Bartolomeko komentu kaleko bigarren zenbakira aldatu ziren. 1887an berriro Amarako kalera itzuli ziren. Honako hauxe zioen Joan Pellok bere bertso batean: “*Nitaz galdetutzera betoz San Martiña; billatzen erreza da Joan Pello argiña.*” Izan ere, ogibidez hargina zen. Handik, 1898an, Loio-la kalera aldatu ziren. Azkenik, Avenidako 25. zenbakian agertzen zaigu, Aita Zavalaren arabera beti ere. Joan Pello bertan hil zen 1901ean.

Joan Pellorekin bizi eta lan egin zuen Joxe Bernardo semeak, hargintzan biak. Pello Mariren anaia hau Azpeitiko Joana Iparragirre Iturzaetarekin ezkondu zen 1891n. Joxe Bernardo eta Joana bikotea gehienetan Joan Pello aitaren etxean bizi zen. Eta horiekin batera, Pello Mari olerkaria, bigarrenez Ameriketatik etorri eta Donostian ezkondu bitarteko urteetan.

Donostiaren sute, gerrate eta harresien hertsiduraren amets gaiztoak 1863an aldendu ziren betirako, Eustasio Amilibia Donostiako alkateak harresiaren lehen harri landua kendu zuenean hain justu. Hiri zaharra lehertu eta hedapen bortitzari ekin zion, hiri merkatari, udatiar eta liberalen gune bihurtuz. Norteko trenbidea, 1864an, bertara iritsi zen eta hondartza hiri bilakatu. Donostiako XIX. mendearen azken laurdeneko merkataritza, turismoa eta eraikuntzaren erritmo eta maila harrigarria suertatu zen: 1846an 9.220 biztanle izatetik 1900. urtean 37.812 izatera pasatu zen hiria, mende erdian populazioa laukoiztu zelarik. Donostiako hedapen hori guztia, harginen pagotxa bilakatu zen. Eta hori zen, esan bezala, Pello Mariren aitaren eta Bernardo anaiaren ogibidea: hargintza.

Bertsogintzan ere jardun zuten, ordea, aita-seeek. Horrela, bertso-jartzaille agertzen dira. *“El Thun Thun”* aldizkarian, 1894.go alean, beraien bosna bertso argitaratu zituzten *“Ezkontza eta Ernanin pasia”* izenburuekin. Baita beraien karikaturak ere.

3.2.3.- Joxe Bernardo Otaño Lasa, Pello Mariren osaba bertsolaria (1842-1912)

Joxe Bernardo Otaño Lasa, Pello Mariren osaba bertsolaria, 1842ko urriaren 11n jaio zen Errekalde baserrian. Gurasoak, lehen esan bezala, Errekalde Zaharra eta Maria Mikaela Lasa ziren.

Pello Mariren arbasoen ezkontza eta heriotzak

- Aita aldeko aitona-amonak noiz ezkondu ziren datarik ez dago
- Aita aldeko aitona Zizurkilen, 1883-12-27an hil
- Aita aldeko amona Zizurkilen, 1889-12-19an hil
- Ama aldeko aitona-amonak Zizurkilen, 1823-11-03an ezkondu
- Ama aldeko aitona Zizurkilen, 1869-08-12an hil
- Ama aldeko amona Zizurkilen, 1871-01-09an hil
- Gurasoak Zizurkilen, 1854-11-27an ezkondu
- Aita Donostian, 1901-12-04an hil
- Ama Zizurkilen, 1879-12-30ean hil

Ez dakizkigu zein izan ziren erabaki hura hartzeko arrazoiak, baina Joan Pello, anaien artean zaharrena bazen ere, Karidadeko Benta eraiki eta bertara joan zen bizitzera 1860an, hamahiru urte gazteagoa zen Joxe Bernardo anaia Errekalden utzita. Hau, Joxe Bernardo, Beizamako Klara Inaxi Odriozolarekin ezkondu zen 1866an, Zizurkilen. Bederatzi seme-alaba izan zituzten.

- Plazida alaba zaharrena, 1867an jaio zen. Zizurkilgo Joxe Bizente Zaldua Beitiarekin ezkondu zen Azkenportu parean zegoen Benta etxera eta 1954an hil zen. Plazida ere bertsolaria izanik, aita eta alabaren arteko bi bertso ezagutzen dira:

Aitak

*Ezkondu bear denala,
oi den baloria!
Emeretzi urte den
ire edadia.
Pikara, gaizki azi,
lotsarik gabia,
ik aberastuko naun
len banaiz pobria.*

Alabak

*Aita, zartu ta gero
garai obia ezta,
neska gaztiak ere
badu bere kezka;
ilea zuriturik,
nobiyorik ez-ta,
orduan alperrik da
soñuba ta pesta.*

- Pello Mari, bigarrena, 1868an jaio eta handik urtebetera hil zen.
- Inazio Maria izan zen hirugarrena. 1870ean jaio zen. Ezkongea, igeltsutegiko ardura eraman zuen. Horregatik Belenen bizi zen. 1918an gripez hil zen.
- Joana Bautista, laugarrena, 1872an jaio zen. Errekalden bizi zen eta bi aldiz ezkondu. Lehendabizi Inaxio Mari Garmendiarekin eta bigarrenez, Joxe Lorentzo Iztueta Dorronsorekin. Hura ere 1918an hil zen, anaia eraman zuen gripe gaizto berberaz.
- Joxepa Antonia, bosgarrena, 1874an jaio zen. Andoaingo Joxe Maria Etxeberria Uranga dendariarekin ezkondu zen.
- Maria Katalina zen seigarrena. 1878an jaioa, lehengusu ezkontza egin zuten 1902an Zizurkilgo Joxe Kaietano Loinaz Otañorekin, *Jainkoa* ezizenez ezagutzen zutena. Andoaingo Berrospen jarri zen bizitzen.

- Adriana genuen zazpigarrena, 1880an jaiotakoa. Inazio Bengoetxearekin ezkondu eta Adunako Belen etxean bizi eta 1963an hil zen.
- Frantzisko Maria zortzigarrena, 1882an jaio zen. Apaiz genuen. Beizaman bizi eta 1963an hil zen.
- Azkenik, Delfin Sabas, 1886an jaiotakoa. Amasako Joana Inazia Zaldúa Beitiarekin ezkondu zen. Inazio anaia hil zenean, igeltsutegiko buru jarraitu zuen eta 1946an hil zen Pasusberrin.

Joxe Bernardo Otaño Lasa (1842-1912), Pello Mariren osaba, Donostiako *El Thun Thun* aldizkaritik (1894 - Familia)

Joxe Bernardo Otaño Lasak, Pello Mariren osabak, nortasun handiko gizona izan behar zuen. Bere liberaltasunak ardura politikoak hartzera eramane zuen. Baina, era berean, enpresa eginkizunak bultzatu zituen etengabe. Eta ez dezagun ahaztu bertsolari handia izan zela.

Esan bezala, ardura politikoak hartu zituen Joxe Bernardok. Itxura denez, liberala izaki, azken Karlistadan gorriak ikusi zituen eta gordeta egon zen. Etxekoek, aitzakia bezala, igeltsua eta teilak eramatera joana zela eta etxean ez zegoela erantzuten zieten Joxe Bernardoren bila etortzen zirenei. Ez zen urruti, ordea, Teodoro Mujikak kontatu digunez: Errekalde parean, goi aldean dagoen Adunako Eizagirre baserrian babesten omen zen, arrebaren etxean alegia. Teodoro Mujika bera Otañotarren igeltsutegian lan egindakoa zen.



José Bernardo Otaño

Karlistada amaitu bezain pronto, 1876an, Zizurkilgo alkate izateko ardurak eman nahi izan zitzaizkion Aita Zavalaren arabera. Geroago, alkate edo erregidore (zinegotzi) izan zen 1881 eta 1893 urteen artean. Joxe Bernardo-ekin batera, Joxe Domingo Barriola koinatuak ere hainbat kargu politiko izan zituen Zizurkilen aipatutako urte horietan.

Baina Joxe Bernardo batez ere enpresa gizona izan zen. Horren lekuko, Errekalde Zaharrak, Joxe Bernardo berak eta beste batzuk idatzitako dokumentu ugari daude.

Joxe Bernardok kudeatzen zuen igeltsutegiarekiko 1882ko, 1883ko, 1886ko eta 1890eko agiri multzoa dugu, besteak beste. Baita 1882an Irazuazpiko Ziortza saila Joxe Domingo Beldarraini 330 pezeta ordainduz erosi zionekoa ere.


“Bankero” lanetan ere jarduna izan behar zuten Joxe Bernardok eta Errekalde Zaharra aitak. Hori ondoriozta daiteke behintzat, hainbat dokumentu irakurrita. Joxe Domingo Barriolari, amaren aldeko Pello Mariren osabari, adibidez, 1.250 pezetetako mailegua egin zion, %4a ordaintzekotan Mailegu hura Joxe Domingo Barriolak Errekalde Zaharrari ordaindu zion 1883an.

Baina negozioak ez zituen deskuidatu. Aita- semeak dirua mailegatzan ari ziren bitartean, Joxe Bernardok urte berean, Adunako Andres Zabalarari lau urterako bere igeltsutegi eta teileria errentan hartu zitzaion, urteko 80 pezeta-tan eta, 1890ean, 685 pza ordainduz. Horrela deskribatzen du Antonio Zavalak Joxe Bernardoren ogibidea honen iloba adunar baten hitzetan:

“Adunako Eizagirre baserriko Antonio Mendizabal Otaño zanak, berriz, onela esan zigun: Igeltsotegia eta teileria berak erabiltzen zituen. Gertuago egoteagatik, etxe berri bat egin zuan, Belen izenekoa, balkoi eder batekin. Erlojua ere antxe jarri zuan. Botana eta kanala ere bai, igeltsotegiarentzat. Mutil koskorretan ara joaten giñan gu igeri egitera. Igeltsoa erretzen egun batean eukitzen zuten, eta gero igo edo txetxu errotan. Zakuetan sartu eta saltzera eraman. Gure osaba Joxe Bernardo ori gizon sendo bat zan. Soroak-eta bazituzten, baña ez det uste an lanik asko egingo zuanik... Igeltsoa eta teilak Billabonara eramaten ibili gabe kamiora ateratzeko, gurdibidez ibai ertzeraño arrimatzen zituzten. Emen kabarra aundi bat zuten, apropos egiña. Aurrean ezpaiña ateratzen zitzaion, eta gurdia, idi eta guzi, barrurari-

ño sartu. Ibaiaren alde batetik bestera soka fijo bat jarria; eta, ari eldu eta indar egiñez, kabarra alde batetik bestera eramaten zuten”.

Joxe Bernardo bertsolaria, baserritarra eta Errekaldeko oinordekoa, Aralaren ere artalde baten jabea omen zen. Baina ez dirudi baserriko lanak gus-tuko zituenik. Ilobak arestian aipatzen zuen bezala, “...ez det uste an lanik asko egingo zuanik”. Izan ere, lehenik eta behin, Joxe Bernardo enpresa gizo-na izan zen.



*“Era ontan jeixten zan 25 metroan Otañoren igeltsotegi arrobira gutxi gora bera. 1949an lur joa”
(Teodoro Mujikaren marrazkia, 2009)*

Ikusi dugu igeltsutegi eta teileria baten maizterra egin zela 1882an. Hala-ber, zera gehitu behar da: sortutako ekoizpena saltzen bazekiela. Hartarako, bi hitzarmen egin zituen. Lehena 1883an, Karidadeko Bentan bertan, eta bigarrena 1886an, Villabonan. Horren fruitu izan zen “*La Unión Yesera, S.A.*” fundatzea zazpi bazkideren artean, bakoitzaren ekoizpenak saltzeko: Inazio Lizeaga Gorrotxategi (Madril), Joxe Bernardo Otaño Lasa (Zizurkil), Frantzisko Maria Izagirre Zabala (Aduna), Ramon Zalakain Itsaso (Aduna), Joan Tomas Bengoetxea Lasa (Zizurkil), Pello Lizarraga Ibarrola (Villabona) eta Joxe Joakin Sorondo Zalakain (Villabona). Hamar urte iraungo zuen elkarte anonimo berriak baina azpimarratu behar da igeltsu ekoizpenaren erdia, hots, %50, Joxe Bernardorena zela. Bazkide bakoitzak Villabonako egoitzara garraiatzen zuen igeltsua, 46 kiloko zakutan. Elkartearen funtzio-namendua bera ondo arautu zuten estatutuetan.

Lehen Adunako lekukoak esan duenez, Joxe Bernardok gurdiz garraiatzen zuen ekoizpena Oria ibai ertzeraino. Han idi eta guzti zeharkatzen zuen ibaia gabarra batean eta igeltsu gordailura eramaten zituen aipatutako 46 kiloko zakuak. Gauzak ondo lotzea gustatzen zitzaion nonbait, eta arazoak saihestearren, Oria ibaiaren ezker aldea ere eskuratu zuen, dokumentutan agertzen den bezala.

Errekalde baserriko eta Zizurkilgo parrokiako datuek goitik behera frogatu digute Joxe Bernardoren ibilbidea. Esan bezala, Joxe Bernardo Otaño Beizamako Klara Inaxi Odriozola Urbiztondorekin ezkondu zen 1866an, 22 urte zituela. Handik hogeiturotera, 1886an, 42 urterekin beraz, Errekalden bizi zen zazpi seme-alabekin. Familiarekin batera, ordea, Joxe Bernardok zituen langileen zerrenda azaltzen da agiritan: Zizurkilgo 23 urteko Inazio Garmendia eta bi artzain: 11 urteko Amezketako Joan I. Artola eta 18 urteko Ikaztegitako Lorentzo Aminabarro. Badira bost langile gehiago ere.

Etxe berean, 1904ko beste datu hauek ageri dira: alde batetik, Inazio Maria eta Joana Bautista Otaño Odriozolak hurrenez hurren 34-32 zituzten eta seme-alabak ziratekeen, noski. Beste alde batetik, 6 urteko Maria eta 5eko Joxe Inazio Garmendia Otaño bi haur baziren, Joana Bautistaren semea eta alaba. Gainera, 28 urteko Joxe Iztueta Dorronsoro zegoen, Joana Bautistaren bigarren senarra alegia. Joana Bautista Otaño alabak Iztueta abizena zuen bigarren senarrarekin beste bost haur izan zituen: Jexux Mari, Joxepa Antoni, Inaxio Mari, Frantzisko eta Anita. Dena den, Errekalden langileak eta



Joxe Bernardo Otañok Errekalde pareko Aduna partean eraiki zuen Belen etxea 1898an, berari gogoko zitzaion egutera gozo batean, jaiotetxetik hurbil, balkoi handi eta erloju dotore eta guzti (Familia)

artzainak agertzea normaltzat jo behar da, bertako ardien lanak egin behar izaten baitzituzten.

Joxe Bernardok, etxean aurkitzen ez zuen bake bila edo igeltsutegiko lanak zuzenago jarraitzearen, Belen etxea eraikitzea erabaki zuen. 1898an berari gogoko zitzaion egutera gozo batean, Ameztairi alorra erosi zion: jaiotetxetik hurbil, Aduna parteko Errekalde parean, balkoi handi eta erloju dotore eta guzti eraiki zuen. Belenen jarri zen bizitzen Joxe Bernardo eta han eman zituen bere azken urteak.

Errekaldeko Otañotarren enpresa jardueren harira, esan lehen adierazi dugun “*La Unión Yesera, S.A.*” elkartean ez zegoen beste igeltsutegi bat aritu zela lanean 1903rako. Eta elkarte berri bat sortu zutela “*Aizpurua y Compañía*” izenarekin. Hiru bazkide hauek fundatu zuten elkarteak: Pello Mariren anaia zen Joxe Bernardo Otaño Barriolak (lehenago aipatu dugun hargina, Donostian bizi zena), Lorenzo Mendiola Mutio andoaindarrak eta Zizurkilgo Joan Joxe Aizpurua industrialak.

Ezin utziko dugu Joxe Bernardoren atal hau bere bertsolari alderdia aipatu gabe. Joan Mari Lekuonak Joxe Bernardo batez ere bat-bateko bertsolaritzat jo zuen, haren bertso idatziak ezagutu arren.

Pello Errota gazteagoa izan bazen ere, herriz herri sarritan elkarrekin kantatu ohi zuten Joxe Bernardok eta biak. Garaiko egunkari eta aldizkariak irakurri besterik ez dago Joxe Bernardoren bertso saioen berri maiz ageri direla konturatzeko: Elizondoko Lore Joko ospetsuetan (1879), Donostiako Lore Jokoetan (1880), Santo Tomasetan Donostiako Antzoki Zaharrea (1881)... Urte anitzetan Donostian, Azpeitian, Zumarragan... kantatu zuen Joxe Bernardok. Hondarribiko 1883ko saioa luze eta zabala aztertu zuen bertako maisu Klaudio Otaegik.

Bat-bateko bertsolaria bagenuen ere, ezagutzen dira Joxe Bernardoren bertso idatzi batzuk. Aita Zavalak sarritan aipatutako liburuan zerrendatzen ditu.

Joxe Bernardoren biografia amaitzeko, esan 70 urterekin hil zela. *Perlesiak jota* aurkitu zuten lurrean, etxerako bidean. Adunako Belenen, berak eraikitako etxean hil zen 1912ko abenduan eta Zizurkilen ehortzi zuten. Joxe Zapiain bere adiskideak honela agurtu zuen *Euskal-Erria* aldizkarian: *Il onen zortziyan il zan Joxe Bernardo, bertsolari legun eta izkuntzalari gozua. Zenbat aldiz kantatu degu alkarrekin, bai leku itxiyan eta bai zabalian ere.*

4.

PELLO MARI OTAÑO BARRIOLA 1857-1910

Pello Mari ezagutzearren orain arte egindakoa ez da, ez, lan makala izan. Idazlan honen sarreran genion bezala, norbait aipatu behar eta, nola ez, Aita Zavala datorkigu gogora. Hara eta hona, gora eta behera, berak bildu zuen gure bertsolari handiari buruz dakigun gehiena. Harekin batera, Pello Mari Otañoren ezagutzarako iturri nagusi bilakatu zaizkigu Serapio Mendizabal, Teodoro Mujika edo Iztuetatarrak.

Arestian genion bi abizen ditugula Pello Mariri estuki lotuta: aitaren Otaño eta amaren Barriola. Bi aldeetatik eragin nabaria jasan zuen: aitaren aldetik, bertsolaritza, baserria eta lan giroa; amaren aldetik, berriz, liberalen pentsaera eta goi mailako kultura.

Pello Mariren bizitza bi zati nagusitan bana daiteke inongo zalantzarik gabe: lehenengoan Zizurkilgo urteak jasotzen dira, hau da, 1857an jaio zenetik 1873an Zizurkildik joan zeneraino; bigarrenengan, berriz, Donostian eta Argentinan zendu zen (1910) arte igarotako urteak azaltzen dira.

4.1.- Zizurkilgo urteak (1857-1873)

Pello Mari bi karlistada handien artean etorri zen mundura. Euskal Herria erabat nahastu zuen mendearen erdialdera jaio zenez, gizartearen haustura oso gertutik bizitzea egokitu zitzaion.

Esan bezala, Pello Mari Otañoren aita Joan Pello Otaño Lasa izan zen, Errekaldekoa bera. Ama Joana Bautista Barriola Arregi, 1829ko uztailaren 19an jaiotakoa, *“natural por casualidad de Villabona”*, haren ezkontza-agiriak dioenez. Pello Mari eta Joana Bautista Inazio Maria San Millan bikarioak ezkondu zituen, 1854ko azaroaren 27an, Zizurkilgo Donemiliaga parrokia-elizan. Errekalden jarri ziren bizitzen bertako guraso eta senide otañotar guztiekin batera. Joan Pellok eta Joana Bautistak bederatzi seme-alaba izan zituzten.

Mikela Joxepa eta Pello Mari bikiak jaio ziren, 1857ko urtarrilaren 26an, Errekalden. Badirudi egoera zailean iritsi zela mundura bikotea, sendagileak berak larrialdian bataiatzea erabaki baitzuten. Horrela dio Ignacio Maria San Milian bikarioak Pello Mariren bataio-agirian: *“...supli las ceremonias bautismales por haber sido bautizado por Jose Miguel de Alegria, cirujano de Villabona, y dar esta a su satisfacción a Pedro Maria de Otaño, que dijeron haber nacido a las nueve de aier a la noche...”*



Pello Mari Otañoren oroimenez Errekalde sortetxean jarritako plaka. Olerkariaren heriotzaren data oker jasota duela ikus daiteke. (Hernandorena K.T., 2005)

Baztandar bati moldatutako bertsoetan gogoratzen digu Pello Marik zein maitea zuen jaiotetxea:

*Lenbiziko arnasa
artu zan lekura,
zeñek eztu izango
joateko ardura
txoriyak kabiari
naidiyon modura,
nik maitatzen det beti
txoko eder ura.*

Giro horretan hazi zen Pello Mari. Hara nola azaltzen digun berak Amets bat sailean:

*Ni jaio nintzan Euskal lurreko
leku pozgarri abetan,
eta euskera irintsi nuben
lenbiziko asnasetan,
amak siaskan nedukanian
edo bere besuetan,
kontu politik esanaz beti
kantatuaz batzuketan
geren aitonak moldatutako
itz neurtu ta bertsuetan.*

Egia, bai. Bertsotan asko zekitenak baitziren Errekaldeko gehienak. Aitona, Pello Mari, Errekalde Zaharra alegia, bertsolaria. Aita, Joan Pello, ere bai. Osaba Joxe Bernardo, zer esanik ez. Baita Bernardo anaia, Mikela amona eta Mikela arreba ere. Hartarako dohaina berez zuena alde batetik, eta horrelako giroan hazia bestetik, “*arnasarekin batera bertsoa irensten zuala kozkortu zan Pedro Mari*”, Aita Zavalaren hitzetan.

Oso ezagunak eta oihartzun handikoak dira Pello Marik Errekalden jaio zen oheari bota zizkion bertsoak, Joxe Bernardo eta Pello Mari Otaño osabailoben bertsoak alegia.

El día veinte y siete de Enero de mil, ochocientos,
 cincuenta y siete yo el infrascrito Vicario de la Iglesia
 parroquial de San Millán de esta Villa de Crispuín heph
 las ceremonias bautismales por haber sido bautizado por
 Don Miguel de Alegria Criusano de Villabona, y de
 esta a su Satisfacción a Pedro Maria de Otaño, que dice
 haber nacido a las nueve de diez a la noche, hijo legítimo
 y de legítimo matrimonio de Juan Pedro de Otaño natural de
 esta, y de Juana Bautista de Barriola natural también de esta
 mis feligreses. Abuelos paternos Pedro Maria de Otaño
 natural de Larraul y Maria Micaela de Lasa natu-
 ral de esta mis feligreses. Los maternos Francisco Maria de
 Barriola natural y Párroco de esta, y Micaela de Arcequi na-
 tural de Villabona, y Párroco de esta. Juan Tadeos Pe-
 dro Maria Otaño natural de Larraul, y Micaela de
 Arcequi natural de Villabona mis feligreses, a quienes es-
 advertí sus obligaciones. Y en fe de ello firmo:
 D. Ignacio Maria de San Millán

Lehen bertsoa Pello Marik Joxe Bernardo osabari egin zion agurra Ameriketara joan zenean, eta bigarrena, berriz, Pasaian osabak ilobari jalkitakoak. A. Zavalaren liburutik ekarri dira.

*Agur, nere osaba
ta parientiak,
ariyo, adiskide
ta lagun maitiak;
pena ematen dit zubez
utzi ta joatiak,
berriz etortzen banaiz
ez itxi atiak*

*Nire iloba, egin bazaizu
Amerikara joan naia,
desio dizut izan zazula
gutziz biaje alai;
ara joatian eiten bazaizu
onera etorri naia,
Errekaldian an egongo da
zu jaio ziñaden oia*

Ameriketatik bueltan Pello Mari itzuli zenean elkarri botatako bertsoak ere ez ziren gutxiagorako izan, jendearen ahotan gorde baitira gaur arte. A. Zavalak bertso bat baino gehiago jaso zituen; hona, Joxe Bernardoren Adriana alabak abestua dakargu. “*Atea piska bat iriki zutela uste det, eta aitak barrendik eta Pello Marik atez kanpotik. Aurrenik Pello Marik kantatu zuan:*

*Nire osaba, ez baldin badu
eginkizun aundin bat or,
gizon bat dago berorren galdez,
ate ondoraño betor.
bedorrek ondo dakiena da
agintzen dana dala zor,
bera jaio zan oiaren billa
illoba oraintxen dator.*

Ni aditzen nengoan, eta aitak onela erantzun zion.

*Nire illoba, esaten dizut
ongi etorri zerala,
jaiotako oia jantziko dizut
gusto aundiz beriala,
arropa zuri ederrenekin,
parpallak darizkiola,
sinistamena eman deizudan
biotzez nai dizudala.*

Pello Marik, guztira, zortzi anai-arreba izan zituen: Joana Bautista 1855ean jaio eta berehala hil zen; bere bikia, Mikela Joxepa, urtebeterekin joan zitzaiena; Joana Mikela 1859an jaioa; Joxepa Antonia 1862an munduratu eta bi urterekin hil zena; Joxe Bernardo 1864an sortu zen; Joan Pello 1866an; Joxe Frantzisko 1869an; eta Joxe Domingo 1873an, hau ere bi urtera hil zena.

Pello Mariren senideen xehetasunak

Izena	Jaiotza	Jaiotza non	Heriotza
Joana Bautista	1855.07.22	Errekalde	1855.08.22
Mikela Joxepa	1857.01.26	Errekalde	1858.03.01
Pello Mari	1857.01.26	Errekalde	1910.05.07
Joana Mikela	1859.06.12	Errekalde	1939
Joxepa Antoni	1862.01.12	Karidadeko Benta	1864.02.11
Joxe Bernardo	1864.05.19	Karidadeko Benta	1925.03.19
Joan Pello	1866.06.29	Karidadeko Benta	--
Joxe Frantzisko	1869.01.18	Karidadeko Benta	1902.12.30
Joxe Domingo	1873.09.04	Karidadeko Benta	1875.10.17

4.1.1.- Lehen irakaskuntza

Pello Mari Errekalden jaio bazen ere, haurtzarora bi etxetan igaro zuen: Errekalden eta Karidadeko Bentan. Bere gurasoek, Oria ibaiaren eta Norteko trenbideak sortutako Elbarrenaren aldeko joerak bultzatuta, etxe berria eraiki zuten. Errekalde maizter etxea utzi eta jabetza berrira igaro ziren. Handik lau urtera, 1864an, trenbidea eraiki zen.

Zizurkilen bazen eskola, gutxienez, XVIII. mendetik zabalik zegoena. 1774an, adibidez, Kaietano Gurrutxaga zen *Lehen Letretako maisu tituluduna*. Postua herriko oposizioetan lortu zuen. Aurrerago, ordea, gauzak zertxobait aldatu ziren: 1785ean eskolako maisua eta parrokiako organista lagun bera ziren. Garai hartan, hots, XVIII eta XIX. mendeetan, bai Asteasun eta bai Alkizan ere, maisutza elizaren menpean egon zen.

Zizurkilen maisua Donemiliagako erretorearen mendeko pertsona zen eta horrela ageri da Zizurkilgo Udaleko zenbait aktetan: 1843an, Joan Joxe Etxeberria zen organista eta maisua; baina ez zuen maisu titulurik, eta Fran-

tzisko Maria Barriola idazkariaren aipatu aktan, titulu akademikoa eskatu zitzaion; 1862an, ordea, titulurik gabe jarraitzen zuen. 1864 eta 1865 urteetan, berriz, Frantzisko Maria Golderaz eta Lorentzo Goenaga, bi maisu tituludun zeudela dio aipatu idazkariak.

Frantzisko Maria Barriolak lehendik idatzia zuenez, *“..la instrucción pública de esta villa (Zizurkil) se halla en el mayor abandono...”*. Barriola eta Otaño familiek Zizurkilgo Donemiliaga erretoreekiko zeukaten herra eta etsaigoa ezaguturik, gerta daiteke Pello Mari lehen ikaskuntzak egitera Villabonara bidali izana. Bertan, esperientzia handikoa zen Joxe Frantzisko Murua izango zuen maisu.

Gogoan izan behar dugu Pello Mariren ama Villabonan bataiatu zutela eta amona Mikaela Joxepa Arregiren familia txit ezaguna zela herri hartan, maiz udal agintarien tarteko gainera. Bestalde, Errekalde baserriaren jabe Manuel Fermin Ameztoi bera ere zinegotzien zerrendan zegoen.

Villabonan, 1860 hamarkadan, hau da, Pello Mariren eskola-garaian, Joxe Frantzisko Murua zegoen maisu. Bere irakaskuntzari buruzko txosten adierazgarria eskuratzeko aukera izan dugu.

Eskola udaletxe berriaren bigarren solairuan zegoen. Kokapena eta neurria azalduz deskribapen zehatza idatzi zuen. Irakasten ziren gaiak, berriz, hauek: *“Religion y moral, lecturas, escritura, aritmética y gramática castellana”*. Eskoletarako erabiltzen zuen metodologia ondorengo eskuizkribuan irakur daiteke.


Bernardo Otaño Barriola (1864-1925), Pello Mariren anaia, Donostiako *El Thun Thun* aldizkaritik (1894 - Familia)



Bernardo Otaño.

Azpirarragarriak dira irakasteko erabiltzen zituen liburuak. Horien artean ditugu, besteak beste, euskarazko Dotrina (“catecismo del país en bascuence”) edo liberalismoarekin konpromiso handia hartua zuen José María Vallejo (1779-1846) zientzialariaren irakurketarako metodoa. Bere txosten interesgarria ikasleriaren kopuruarekin, banaketa, zenbait xehetasun, bere nomina, curriculum eta historialarekin amaitu zuen.

Lehen ikasketak ez ezik, Sendotza sakramentua ere Villabonan hartu zuen. Aita Zavalak kontatzen duenez, 1863an Gasteizko gotzaina, Diego Alguacil jauna, Villabonara etorri zen, Pietateko ermitara (artean, 2009an 100 urte bete zituen parrokia egin gabe zegoen) Sendotza sakramentuak banatzera. Tolosarrak aipatzen duenez, hartzaileen artean Pello Mari eta bere beste bi senide agertzen ziren. Dokumentuak gaineratzen du hiru senide hauek Zizurkilgo Karidade Bentan bizi zirela. “Zizurkilgo Sendotza liburutik” jasotako datuak direla dio Zavalak.



Pello Mariren eskola-garaian Villabonan maisu zen Frantzisko Muruaren metodologia-agiria. (1860ko hamarkadan)

Ikusten denez, ezer gutxi dakigu Pello Mari Otañoren haurtzaroari buruz. Urte horietako zerbait garbi geratu bazaigu, gure bertsolariak Joxe Bernardo osabarekiko erakutsi zuen miresentza da.

Karidadeko Benta 1860an inauguratu zuten. Bertsolarien topaleku zen benta haren berri eman dugu lehenago. Han ezagutu eta entzungo zituen Pello Marik garaiko bertsolari handienen bertsoak. Oso adierazgarriak dira Pello Errotarenak:

*Karidadeko Bentan
gu sei bertsolari:
Errekalde zaharra ta
Juan Joxe Udarregi,
Bernardo Zizurkilgo,
Gazteluko Gorri,
Errenteriakua
Xenpelar jaun hori,
ni Astiasukoa
Pello Errotari.*

Handik aurrera Errekalden zein Karidadeko Bentan, bietan zangalatrabak ibili zen Pello Mari: 1857-1859 urteetan Errekalden zen, 1860 urtean Karidadeko Bentan, 1861 urtean Errekalden, 1862-1863 urteetan Karidadeko Bentan, 1864 urtean Errekalden, 1865-1866 urteetan Karidadeko Bentan, 1867-1868 urteetan Errekalden, 1869 urtean Karidadeko Bentan... 1870-1872 hiru urteak ere txandaka pasatu zituen, baina, 1873an Pello Mari ez da Karidadeko Bentako ez eta Errekaldeko egoileen artean agertzen.

Pello Marik bizitza osoan mantendu zuen osabarekiko miresentza, eta bere ahaideek diotenez, elkarri botatako eta idatzitako bertso asko galdu dira. Halere, 1889an, Amerikatik osabari bidalitako hogeita bi bertso leku eta era askotara inprimaturik gorde dira, A. Zavalaren ustez, “*ziur asko, bertsoetan euskaraz inoiz idatzi dan eskutitz bikaiñena eta famatuena*”. Bertso haiei esker dakizkigu Pello Mariren Ameriketako zenbait istorio eta pasarte.

4.2.- Donostian eta Amerikarako lehen bidaia (1873-1879)

Aita, Joana Mikela eta Joana Martina, Pello Mariren bi izeba gazteenak, Donostian, Trinidad kaleko 33. zenbakiko laugarren solairuan jarri ziren bizitzen 1873an. Familiaren zati batek Zizurkildik ihes egin zuenetik Pello Mari Ameriketara 1875ean iritsi arteko urteak oso ilunak dira olerkariaren bizitzan. Joxe Domingo anaia 1873 eta 1875 urteen buruan jaio eta hil zitzaien, baina ez dugu horren testigantzarik aurkitu familiaren txostenen artean. Ez dakigu Pello Mari non eta zenekin bizi zen, zein itsas portutan itsasoratu zen. Dakigun apurra, hemezortzi urte zituenean Buenos Airesen bizi zela da. Horrela dio Pello Mariren ezkontza-paperak: “...desde la edad de 18 años ha residido en Buenos Aires...”

1875. urtea mugarri bat izan zen, orduan joan baitzen Pello Mari lehenengo aldiz Ameriketara. Hala baieztatzen du *La Baskonia* aldizkari argentinarrek: “..Ha estado dos o tres veces en América; vino la primera vez de muchacho, el año 75...”

Hemezortzi urte zituela, seguru asko, mundua ezagutzeko nahiagatik eta soldaduskara ez joatearren, alde egin zuen: “Argatik gerok batere kulpik ez gendubela ezertan, txit urrutira joan biarra izandu nuben batetan; oso gazte-



Donostiako Garibai kaleko obren hasiera 1864an, zabalgunearen barnean. Obra horietan arituko zen hargin-lanetan, ziur asko, Pello Mariren aita Joan Pello (Angel Pirala, 1900 - Zumalakarregi Museoa)

rik arkitu nintzan Ameriketako Panpetan”: idatzi zuen “*Amets bat*” izeneko bertsoetan. Azken Karlistadan, euskaldun gazte guztiak armadara eraman nahi zituztenez, Pello Marik garbi dio erbestera joan beharrean gertatu zela. Bera jaio zen urtean hain justu, Joan Joxe Otaño Lasa osaba Argentinara joan zen. Aita Joan Pello bera ere, birritan Amerikan izana zen. Gainera, lehen esan dugunez, beste alde batetik ere, Joxe I. Barriola Ameztoi, aitona-ren anaia bat bazuten aurrez hara joana. Beraz, harantzako bidea aspalditik irekita eta helmugan nor lagundua bazuen iheslariak. Horri motibazio politikoa gehituz gero, ihesaren arrazoiak garbi zeuzkan eta hanka egin zuen, bi aldiz pentsatu gabe.

Garai honetakoak lirateke, Aita Zavalaren ustez, *Lagundurikan denoi* bertsoak. Pello Marik etxeko sukaldean aitari despedidan entzundakoak jasotzen dituela dirudi: “*...orain gurutze onen oñean esanak, ondo goguan artu biaituzu danak...*” Etxetik alde egitera doan gaztetxo bati esaten zitzaizkionak alegia.

Joxe Bernardo osabak “*...izan Jainko-mendean beterikan pakez, au konpondu artean euskaldunen bidez...*” dio bere iloba Pello Mariri bidalitako karta batean. Konpondu behar zen hura Karlistada zen, jakina, eta hura bukatu artean Ameriketara egoteko eskatzen dio ilobari.

Herri-minak estututa, Euskal Herrira itzuli zen ahal bezain laster. Aipaturiko “La Baskonia” aldizkariak dio “*...vino la primera vez de muchacho, el año 75, yéndose apenas le apretó la nostalgia de su Guipúzcoa...*”

Soldaduskara joateko Zizurkilgo 1877ko bi zerrendetan Pello Mariren izena ageri da, baina, ekainaren 13koan “*con exclusion de Pedro Maria Otaño*” dio A. Zavalak. Azkar itzuli zen, ordea, Pello Mari Euskal Herrira, bere soldaduskaren zama kendu ziotela jakin zuenean. Ez dakigu noiz iritsi zen. Etxean zen, behintzat, 1879an. Urte horretan moldatu zizkion bertso batzuk Villabonako alkate izendatu zuten On Fidel Lizarragari, Pello Marik berak *Oroimenak* eskuizkribuan idatzi zuenez.

Nahiz eta Juan Pello Otaño, Pello Mariren aita Donostiara bizitzera joan eta han erroldatu, badirudi Juana Bautista ama Zizurkilen gelditu zela Karidadeko Benta tabernako lanak egin eta gainontzeko familia zaintzen. Perlesiak jota 50 urterekin hil zen Joana Bautista 1879ko abenduaren 29an, eta herriko hilerrian ehortzi zuten. Pello Mariri bere amaren heriotza eta hiletaren berririk ez diogu irakurri aita hil zitzaion arte. Aipamenik behintzat ez da ezagutzen.

4.3.- Donostian eta Amerikarako bigarren bidaia (1880-1890)

Pello Mari Otañoren bizitzaz daukagun beste hutsune bat hauxe da: noiz joan zen bigarren aldiz Ameriketara? Horri erantzuteko dokumentu eta aztarna garbirik ez dugu. Bigarren aldian Pello Mari Pasaiatik abiatu zela dio Aita Zavalak. Baporean sartu zenean bere osaba Joxe Bernardok Pello Mari-
ren biografiaren hasieran jaso ditugun bertsoak (*“Nire illoba, egin bazaizu Amerikara joan naia...”*) kantatu omen zizkion.

“Oroimenak” izeneko bere idatzian dakarren bertso hura bigarren bidaia-
ren baitan botatakoa dela uste dugu, beste aukera edo lekurik ez baitzaio
geratzen. Horrela zion Pello Marik:

*Amerikara nua
nire borondatez,
aspertu naizelako
emengo suertez;
onetara ezkerro
joan biar det nai t'ez,
emen gelditze'iranak
ondo bizi bitez.*

Joan Joxe osaba Ameriketara zuen aspaldian Pello Marik. Dirudienez,
etxeok ez zuten haren berri handirik eta hortik letorke Errekalde Zaharra
aitonak biloba Pello Mariri eman zion erantzuna:

*Lenago're seme bat
badet Amerikan,
ogei urte badira
joan zala emendikan.
argana bilatutzen
badek biderikan,
esaiok bizi dala
aita oraindikan.*



Pasaiaiko portua. Beste euskaldun askok bezala, Pasaian hartu zuten Otañotarrek Amerikarako baporea (J. Moinet, 1875 - Zumalakarregi Museoa)

1879-1889 hamarkadako hutsunea argitu eta osatze arren, oinarri sendoa duten susmo batzuk aurrera ditzakegu. Euskal Herrian eta batez ere Donostian Jose Manterola eta Antonio M. Arzak pertsonaiek sortu, landu eta bultzatu zituzten aldizkari, mugimendu eta erakundeetan buruz behera eta supituki murgildu zen Pello Mari bigarren aldiz Donostiara itzultitakoan. Bere ezkontza ere antzera gertatu zen. Aurrez hiriburuan jaso eta izandako informazio, harreman eta errealitatea oso kontuan hartzekoa da, gerokoa ulertzeko.

J. Manterola, 1884an hil zenean, bere ikasle eta lankide izandakoak, A. M. Arzak Alberdik, alegia, jarraitu zion Euskal-Erria aldizkaria zuzentzen, Udal Liburutegia antolatzen eta hiriko Euskal Hitz-Jokoen Batzarra edo "*Consistorio de los Juegos Florales*" deitua bultzatzen. Hain zuzen, gero Arzak huraxe izan zen gure zizurkildar kuttunaren bigarren itzuli aldian adiskide mina. Pello Mariren poemak aipatu aldizkarian argitaratu, lan berriak proposatu, hirugarren aldiz Ameriketara joan zenean, diruz lagundu eta gomendiozko txostenak Arzakek prestatu zizkion, Laurak Bat elkartean aurkezteko. Beste alde batetik, Malen emaztegia eta Pello Mari garai bertsuan ezagutu ziren

susmoa dugu. Arzak-en bigarren abizena eta Malenen lehena berdinak ziren, baina ez dakigu zuzeneko ahaidetasunik ba ote zegoen beraien artean, A.M. Arzak-en amaren bataio agirian bigarren abizena falta baita.

Amerikako hurrengo data segurua 1889. urtea dugu. Aitonaren desioari jarraituz nonbait, Pello Mari Santa Fe-ra joan zen Joan Joxe osaba amerikanoa bisitatzera, eta goian aipatutako urtean, argitalpen ugari izandako hogeita bi bertso famatu bidali zizkion Joxe Bernardo Errekaldeko osabari:

*Milla zortzireun laurogei eta
bederatziya da aurten,
orra hogeit ta amabi urtek
nola arrapatu nauten,
ni ilbeltzaren hogeit ta seian,
Errosariyo Santa Fe'n;
nire osaba, barkatu bizait
ixilik egon banaiz len.*

Pello Mariren arreba Mikelak eskatu zizkion bertso haiek idaztea.

...
*nire arrebak zer esan ziran
goguan daukat geroztik;
bertso ederrak, ordanien truka
osabak biraltzen dizkik,
oien bueltak jarri bialtuk
denak aitu ez bazaizkik.*

Joan Joxe osabaren eta bere pasarteak kontatu zizkion, bidaiaren distantzia eta urruntasuna, elkarri egindako agurra... *Joxek etzuben itzik somatzen* eta jarraitzen du, *Joxek botatzen zituben pozez ginga añako malkuak*. Pello Mari bidaia hartan gaixotu egin zen, *burutik eta petxutik*, eta Rosarion sendatu zuen arrebak. Susana Ardanaz Otaño "Txuri" bilobak adierazi digunez,

asma gaitzak hartu zuen Pello Mari. Bere aitona Errekalde Zaharra gaitz horrek eraman zuen hilobira: “*a causa del mal llamado asma*” zioen haren heriotza-agiriak.

Asmaren eraginez edo, Pello Marik bertsoak kantatzeko arazoak izaten zituen. Oso eztarri txarrekoa zen. Horregatik jarri zioten *Kattarro* izengoitia, bere mintzo traketsa zela eta. Ahotsa indartzeko gaurko tramankulurik gabe, nola kantatu bada Pello Marik garai haietan? Plazetan aritzeko ezintasunak bertsoak idaztera bultzatu zuen, eta horri esker iritsi zaizkigu horietako asko.

Donostia miretsiz ere bertso batzuk erantsi zituen:

*Askok diyonez, bizi gerade
txit toki aberatsetan,
bañan ez dago Donostiyarik
gure lurrian bestetan.*

Bertso saio idatzia herriminez amaitu zuen hogeita biko sorta.

*Nire osaba Jose Bernardo,
iritxi naiz ontaraño
ta ixiltzera nua, zer esan
asko badauzkat baño.
Gure berriyak zabaldu bitza
derizkyon lekuraño,
esanaz bere illona dala
Pedro Mari Otaño.*

Bizimodua nola edo hala atera behar eta, Pello Marik edozein ofiziori heldu zion Amerikako bidaiari. Maiz aipatzen dugun “La Baskonia” aldizkarian jasotzen denez, “...cuando le ha faltado ocupación en tareas delicadas, como hacer un asiento en los libros, se ha prendido a la pata de un bagual (zaldi basatia) y le ha clavado una herradura...” edo “... alambrador (itxitura-egile) de la Pampa, hornero, tenedor de libros, herrador y poeta...”. Baita artzain ere, berak *Amerikako Panpetan* bertsoetan dioenez.

Noizean behin berri negargarriak iristen zitzaizkion; Foruen galeraren eraginak, adibidez. Halako batean, *gaiztakeriaz galdu nahi duten amarengana*, Euskal Herrira alegia, itzultzeko erabakia hartu zuen:

*“...Ama galdu ez dezan
norbaiten gaiztakeriak,
ekairazute besarkada bat,
beragana joan nai diat...”*

4.4.- Berriro Donostian (1890-1898)

1890ean, berriro Donostiara itzuli zen, bere ezkontza agiriek diotenez. Uda zen, bero egiten zuen. Errekaldera berehalako azkar batean joan nahi zuen. Plazida lehengusua, Joxe Bernardoren alaba, joan zitzaion bila Zizurkilgo tren geltokira. Bere ahaide Loinaz Otaño apaizarengandik jaso zituen han esanak A. Zavalak:



Pedro Mari Otañoren irudirik ezagunenetako bat (Familia)

“Pedro Mari Ameriketatik etorri eta Plazida eta biak joan omen ziran Errekaldera. Santio aurea omen zan. San Pedro edo Santio inguruan etortzen ziran, ba, geienetan indianoak. Joan, berriz, azaroan. Udara gorrian etorri, beraz, baiña Pedro Mari ori gabanarekin. Eta Plazidak esan omen zion:

– Bero egiten dik, motell, eta gabana erantzi bearko dek.

Baiña Pedro Marik erantzun omen zion:

– Ni zer naizela uste den, au erantzita?

Eta ez omen zuan erantzi. Aulduta etorriko zan eta etzan kentzera beartuko”.

Pello Marik bere “Oroimenak” esku izkribuan idatzitako bertsoa ez dakigu zein datatan kantatu zuen, baina, bai non eta nori, Zizurkilgo Teodoro Muxikak kontaturik. Behin batean, Ameriketatik etorri berritan, Villabonako Agustin Beloki harakinari bertso hau kantatu zion:

“Egun batez, neska-mutil oiek paseatzen zebiltzala, Pedro Mari Otañorekin topo egin omen zuten. Au Ameriketatik etorri berria omen zan. Alkarri agur bero egin ondoren, Pedro Marik galdetu omen zion Agustin Belokiri:

- Andregaia al dek au?

Agustiñek:

- Bai.

Pedro Marik:

- Zorionak:

- Botaiok bertso bat!

Eta Pedro Marik:

*Etortzen zaizunian
Agustin Beloki,
leiora tirako du
zerbait poliki;
onek deituko dizu
biziro egoki,
zuk belarriyak erne
orduban iduki;
azkar oitik jaiki
ta jantzi ederki,
beera jaxi aurki
t’atia iriki;
ortik aurrerakua
berak badaki.”*

Aitarekin Amara auzoko bigarren zenbakian jarri zen bizitzen, ezkondu aurretik. Azkar batean emazte gaia hantxe egin zuen, donostiarra bera: Maria Magdalena Alberdi Deskarga, *Malen* Pello Mari eta etxe koentzat. Santa Mariako Elias Gorostidi bikarioak bataio liburuan jaso zuenez, 1863ko urriaren 22an jaio zen Malen, “...una niña que dijeron haber nacido a las once y media de la noche...” Aita, Joxe Alberdi Arozena zuen, zarauztarra, eta ama, Teresa Antonia Deskarga, goizuetarra.

Lehen aipatu bezala, Malenek eta Pello Marik agian lehendik ezagutzen zuten elkar. Baina zizurkildarrak ez du bertsoz ez emaztegai ez emaztearentzat. Zavalaren iritziz, “...arenganako maitasuna etzuan betso-gai biurtu nai izan:..” Ameriketatik etorri eta hamar hilabetera Artzain Ona parrokia eraiki berrian, 1891ko ekainaren 11n ezkondu ziren.

Pello Mari eta Malenen ezkontza-agirien sorta oso oparoa da, sei bat dokumentuz osatua dago:

- Pello Marik bere bataio agiriarekin batera Artzain Ona parrokiaren espedientea hasi arazi zuen.
- Donostiako epailearen antzeko bi ziurtagiritan alde bakoitzeko gurasoek baimendu zuten seme-alabak ezkon zitezten.
- Zizurkilgo erretoreak Pello Mari ezkongea eta eragozpenik ez zegoela adierazi zuen.
- Bada, 1887an, Donostiako alkateak sinatutako beste agiri bat, non Pello Mariren portaera ona ziurtatu zuen. Horrek adieraziko luke bikoteak lehendik elkar ezagutzen zutela.
- Arau kanoniko baten dispentsa. Gotzaindegiko beste agiri batean, derrigorrez ezkongaiak bizi izandako parroketan ikerketak egin behar izaten ziren, ezkongaiak eragozpenik bazeukaten edo ez, jakiteko. Horiei ezkon aurreko hiru deialdiak deitzen zitzairen. Gasteizko gotzainak arau hartatik dispentsatu zituen.

Ezkon berriak behin behingoz Malen emaztearen gurasoen etxean, Donostiako gasa kudeatzen zen zentrolean, “*Gasómetro*” deituan jarri ziren bizitzen. Aitaginarreba, Jose Alberdi, zentroleko enkargatu ohia zendua bazen ere, alarguna, bertan bizi zen. Zentrala, San Bartolome mendixkaren magalean, “*al pie del cerro de San Bartolomé*” kokatuta zegoela dio Saez



Donostiako Gasometroa, Amarako padura huts-hutsa zen garaikoa. Gasometroan, emaztearen gurasoen etxean jarri ziren bizitzen Pello Mari eta Malen ezkon berriak (1870 - Kutxa Fototeka, Sig.1693-24 (6547-1))

Garcia (Suministro de Gas de Donostia), eta A. Zavalak San Martin kalean kokatzen du. Gas zentral hura, 1891n, erdi pribatu erdi munizipala zen. 1893an, Udalak erosi zuen, izaera publikoko hornitzaile bilakatu zelarik. Erosketa egin ondoren Morlansera eraman zuten. Hala, Donostiako 1891ko erroldan Pello Mari eta Malen han ageri baziren, 1896koan, Alderdi Zaharreko Jauregi Jeneral izeneko kalean bizi zirela adierazten da.


Pello Mariren emazte eta honen ahaideak:

Ahaidetasuna	Izena	Abizenak	Jatorria
Aita	Jose	Alberdi Arozena	Zarautz, 1831
Ama	Teresa Antonia	Deskarga Narbarte	Goizueta, 1829
Emaztea	Maria Magdalena	Alberdi Deskarga	Donostia, 1863
Anaia	Balentin	Alberdi Deskarga	Donostia, 1862

Pello Mari eta Malen bikotearen hiru seme donostiarretatik zaharrena, Bernardo, 1892an jaio zen “Gasómetro” izeneko etxean, Pello Mariren Bernardo anaia eta bere emaztea bataioko aita eta ama-ponteko izanik. Migel 1894an San Martin kalean munduratu zen eta bataioko aita eta ama-ponteko Joan Pello aitona eta Joana Mikela izeba izan ziren. Hirugarrena, Josetxo, 1896an jaio zen Jauregi Jenerala kalean, aita eta ama-ponteko, berriz, Joxe Maria Arregi eta Klara I. Odriozola, Joxe Bernardo Otañoren emaztea izan zituen.

Pello Mari Otañoren ogibideari dagokionez, berriz, urte haietan dendari, “*escribiente*” eta “*empleado*”, edo besteentzat lan egiten zuen zerbitzari moduan ibiltzen zela agertzen da. Taberna baten aipua ere egiten da.

Amatxok, Malen amak Donostian seme-alabekin egiten zuen hizkuntzari buruz Teresa alaba zaharrenaren hitz interresgarriak dira hauek, gero gehiago garrantuko ditugunak: “*en su tierno nido había tres baskitos, alguno de los cuales balbucearía sin duda alguna palabras en Euskera... que luego olvidaría, lo digo con dolor..*”



4.4.2.- Euskal Lore-Jokoak eta Pello Mari Otaño

XIX. mendearen azken erdian, Antoine Abbadiarem ekimenez Lapurdiko Urruñan 1853an hasi, eta gerora, beste bost herrialdeetara hedatu zen kultur fenomeno konplexuari Lore-Jokoen izena eman zaio.

Bere barnean alderdi guzti hauek biltzen ziren:

Pello Mari Otaño Barriola (1857-1910), Donostiako *El Thun Thun* aldizkaritik (1894 - Familia)

- lehen mailan eta nagusiki, euskal literatura lehiaketak, idatziak nahiz ahozkoak.
- mota askotako pilota-partiduak.
- euskal folklore zein arte saio eta txapelketak.
- erromeria eta herri bakoitzeko zenbait erakusketa berezi.

1879an, muga gainditu eta Elizondon jokatu zen lehen saioa. Hantxe izan ziren Pello Errota eta Joxe Bernardo bertsolariak.

Donostia eta beste zenbait herrietako Lore-Jokoetan, Manterolak sortu zuen Euskal-Erria aldizkarian eta beste batzuetan buru-belarri sartu zen 1890ko hamarkadan.

Pello Mariren bertso, poema edo olerkietara iristeko biderik errazena eta ia osoenak, dudarik gabe, Antonio Zavalaren hiru liburuak dira, *Pedro M. Otaño eta bere ingurua (I) – (II)* eta *Pedro Maria Otaño, Bertso guziak*, hogei-garren mendearen hondarrean burutuak hirurak. Pello Mari bera bizi zela bere lan batzuk Euskal Herrian eta beste batzuk Buenos Airesen argitara eman ziren. Esaterako, 1895ean, Donostian *ZERBAIT* argitaratu zen, eta 1904an, Buenos Airesen *ALKAR*. Beste ikerketa-bide bat garai hartako kazeta eta aldizkariak dira: *Euskal-Erria* eta *La Baskonia*. Gure bertsolaria hil ondorengo berragitalpenak ere benetan oparoak izan dira.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak zizurkildarraren bertsoak eskuratzeko bide berriak ireki ditu, Internet sarea bereziki, bertan zintzilikaturik baitago edo laster egongo da Pello Mariren ia obra osoa: Euskomedia; Literaturaren Zubitegia; Susa literatura; Elkar; Klasikoak; armiarma... web orrietan aurki daitezke bere lanak.

**Pello Marik Donostian, 1890eko hamarkadan idatzitako bertso,
poema eta olerkiak**

Urtea	Izenburua	Bertso kopurua	Gaiak	Ñabardurak
1891	Ametz bat	159 errima	Hautzaroa, amona, herri-mina, euskara	Saritua
1892	Nasketak	80 errima	Ohiturekiko eztabaidak	
	B'rekin	14 errima	Joko bat	Testua
	Ordañak	8 hamarreko handi	Lehiakideari erantzuna	
	Ama euskara	9 hamarreko handi	Euskararen goraiapamenak	Saritua
1893	Pernando amezketarra		Bertsolariaren sua	
	Republika ta fueroak	7 hamarreko handi	Ideologikoa	
	Bastilla	5 hamarreko handi	Ideologikoa	
	Españolak eta moruak	3 zortziko txiki	Historikoa	
	Limosnatxo bat	6 hamarreko handi	Itsu bati	Saritua
1894	Azpeitiko Premioa zala ta	Bederatziko bat	Iritzia	
	Txepetxa	5 hamarreko handi	Txoriarekikoak	
	Donostiya uxua	97 errima	Laudorioak	Saritua
1895	Oroitza	11 errima	Mesede egileari	
	Karidadea!	Lan luzea	Itsasoko heriotzak	
	Karidadea!	Lan laburra		
	Larriya	Opera laburra		
	Larraldeko magdalena	6 hamarreko handi	Erlijiosoa	
1896	Tolosar biursari gazteari	6 hamarreko handi	Tolosako Emeterio Arrese Olerkari gazteari erantzuna	
	Aitona gizagaisoa	76 errima	Aitona, euskara eta bere kezkak	Saritua
	Kubako gure anaiai	27 hamarreko handi	Historikoa	Saritua
	Aur gurgarriari	6 zortziko txiki	Erlijiosoa	
1897	Anaitasuna	76 errima	Pakea	Saritua
	Legazpi aundiari	Hiru bertso	Historikoa	

Urtea	Izenburua	Bertso kopurua	Gaiak	Ñabardurak
Ez	Beti-betiko	4 zazpiko txiki	Poema	
	Elizakuak edo au mundua	110 errima	Erlijosoa	
	Gu ta gutarrak	Hamarreko handi bat	Euskaldunon nortasuna	
	Ermani	7 hamarreko txiki	Herriaren alabantzak	
	Iri apustu baten birez	9 errimako bertsoa	Ludikoa	
	Maitaro	Poema txikia		
	Aitona eta illoba	14 hamarreko txiki	Eskola eta euskara	
	Lartaun		Donostiako Orfeoari eskainia	

Besteak beste, bi bertso edo idazlan aipatuko dira hemen. Tolosako Ramon Artola idazleak, 1891n, *Euskal-Erria* aldizkarian bertso batzuk idatzi eta hauxe jarri zuen: “*On Pedro Maria Otaño, euskal izkribalari berriyari*” eskainiak. Berehala, urte bereko martxoaren 20an, Pello Marik “*Amets bat*” izeneko poema luzea eskaini zion “*On Ramon Artola euskal-izkribalari zarrari ordainez*”. Leku anitzetan argitaratu ziren bertso liriko haiek. Sortaren azken bertsoan, Euskal Herrira zertara itzuli zen adierazi zuen Pello Marik.

*Ama Euskarak au esan ziran
jarri begi alaiak,
orregatikan nakar onera
berari lagundu naiak.
Gutxi nezake, oso txikiyak
dira nik dauzkadan gaiak;
bañan pozkiroz egingo ditut
gaubak egun, aste jaiak;
leku pixka bat Euskal-Erria'n
eskatze'izutet, anaiak*

1892an, B'REKIN izeneko poema berezi-berezia oparitu zigun. Poemaren hitz guztiak *b* hizkiz hasi eta errima guztiak *z* hizkiz amaitu zituen.



Pedro Mari Otaño (Familia)

*Baldin bizi baleike
bat bakarrik berez,
besteren biarrikan
bage, bakardadez,
baliteke buruba
berotzia birez;
bañan bakoitzak beti
bihar badu bestez,
beti baldiñ bagabiltz
biarren biarrez...
begiratu biagu
bi begiz biyotzez;
burlarikan beñepein
bajuai beñerez,
bestela bildu biar
baletorke... baietz,
baldiñ begiramenik
bage, banidadez,
bagabiltz bekokiya
biurturikan beltz.
Bagebiltzke bein beren
besteren bildurrez,
bihar bezelakuak
bagiña barrunbez?*

Ondokoak, Joan Mari Lekuonaren balorazio hitzak dira. “Donostiako giroaz baliaturik lantzen du bere bertsogintza jakina, eta plazaratu ere bai bere burua bertsozaleen eta kultura zaleen artean. Bertso altxorri dagokionez, ZER-

BAIT liburua da orduko bere bertsogintzaren bilduma. Eta zabalkundeari begirata, eta gure gaian bete-beteen sartuz, hau da garaia, lore-jokoekin harreman estuenak eduki zituena, bere lanak sariketara aurkeztuz eta sariak irabaziz. Hemen garatzen da Otañoren heldutasun poetikoa bete-beteen. Donostian eta euskal jaien inguru iritsi zen Otañoren poesia bere umotasunera”

Hemen bizimodua ateratzea nahiko aldapa gora egiten zitzaioala dirudi. Bere dudak izango zituen; lehenik bere buruarekin, gero emazte eta familiarekin, adiskideekin... Azkenean, ordea, familia bildu eta Ameriketara itzultzea erabaki zuen.

Malen eta Pello Marik Argentinara joateko zituzten asmoen zurrumurruak zabaltzen hasi zirenean, zirrara kolektibo bat sortu zen gizartean. ALKAR liburua, 1895ean, argitaratu ondoren, Pello Mariren obra jendearengana heldu eta berarentzat lan postu bat sortzeko proiektua proposatu zen, hau da, bertso eta abesti herrikoien letrak bildu, batu eta argitaratzea. Ideiak, ordea, porrot egin zuen. Lanbide hartarako pertsona egokia ez zen nonbait. Horrela kontatzen du “La Baskonia” aldizkariak: “...se pidió a la Diputación de Guipúzcoa que creara una plaza de recopilador de cantos populares... pero los diputados carlistas no podían hacer nada por el poeta que era liberal y los diputados liberales no podían hacer nada por el poeta que era un desordenado...” Bat zela eta beste zela, askorentzat erabaki lotsagarria izan bazen ere, ez zen gauza handirik egin bertsolaria Euskal Herrian eustearren.

Lagunarte zabalaz gozatzen zuen Pello Marik Donostian. Manterola (1884an hila) eta Antonio Arzak idazleek zuzentzen zuten *Euskal-Erria* aldizkarian idazten zuen. Tolosako Emeterio Arrese eta Frantzisko Lopez-Alen ere, biak idazle euskaldunak, lagun-minak zituen.

Horrela, Donostiako Lore-Jokoak antolatzen zituen erakundeak eta beste elkarte batzuk bultzaturik, diru bilketa bat antolatu zuten, Pello Mari Argentinara eramango zuen bidaiaren gastuak ordaintzeko. *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian diru biltze publikoa ireki zen. Bertan, Donostia, Tolosa eta Villabonako zerrendak ageri dira. Biltze publikoan parte hartu zutenen artean zenbait aipamen esanguratsu egiten dira: Antonio Arzak, Euskal-Erria aldizkariaren zuzendaria, Ramon Artola idazlea, Luis Cendoya, Pello Marik *Ernani* bere poeman aipatua... Diru biltzea urtarrilaren 21ean itxi zen. Handik aste betera abiatu zen Argentinara.

Puntu honetara iritsita *La Voz*, aspaldiko egunkari liberala aipatu behar da. Beasaingo CAF lantegiaren fundatzaile izan zen Pako Goitia liberal eta ideologoa aipatu egunkariaren akzionista nagusia zen. Berri-paper honetan, Pello Mariri, Ameriketara joan aurreko egunetan, azken agurrak eskaini zizkioten Emeterio Arrese, Joxe Zapirain, Kaietano Santxez eta beste idazle batzuek. “..*t’arantza billa nola zuazen utzirik baratz loria?...*” zioten.

Beste bertsolari batzuekin batera Txirrita ere Pasaian zen, bere *Testamentu* izeneko idazlanean esaten duenez.



Pello Mari Otaño hirugarrenez Ameriketara eramango zuen baporea hartzerakoan (1898.01.26), olerkaria agurtzera Pasaia bertaratu zenetako bat Joxe Manuel Lujanbio *Txirrita* (1860-1936) izan zen. (Indalezio Ojanguren, 1930 - AGG-GAO_OA03524 1930)

Ilbeltz illaren ogei ta seian
San Polikarpo eguna,
makiña jende Antxo aldera
pausua eman deguna,
Amerikara dijudalako
gure Pello Mari ona,
zierto dakin fameliatik
aita faltatzen zaiguna.

Pello Marik *Oroimenak*
izeneko esku izkribuan Txirri-
taren presentzia jasotzen du.

Emeterio Arresek ondoko
hitz hauekin kontatu zuen
Otaño eta bere arteko despedi-
dida: “...*irten zanako aurregu-
nean, elkar-izketa luzean jar-
dun giñan. ‘Amets-egille bat
zara ta zure urrungaitzak
noraño ta noiz arte eramango
zaitun Jainkoak daki’ esan
nion garaian, aren begietako
negar-malkoak... Gero, laztan
maitetsu bat elkarri emanik,
agur... agur..!*”

Argentinara joan bezperako gauean Loiola kaleko 10ean lo egin zuen, han bizi baitziren aita eta Bernardo anaiaren familiakoak. Donostiako Orfeo-oiak gaueko hamar eta erdietan joaldi bat oparitu zion. Saioa amaitzean, kalera jaitsi eta emozioz blai hiru bertso eskaini omen zizkien; ez ziren gorde. *Ondorengo besarkada eta oihu artean Orfeoiko zuzendariak dokumentu hauxe eman zidan* -dio bere idatzian:

“Al distinguido poeta éuskaro: El Orfeón Donostiarra, en prueba de cariño y consideración por sus hermosas composiciones poéticas éuskaras, y muy especialmente por la dedicada a dicho Orfeón, titulada Laurtaun, ha acordado nombrar a V. Socio Honorario del mismo y obsequiarle con una serenata el día de hoy, con motivo de su proxima marcha a América.

Sirva, pues, la presente como cariñosa despedida de este Orfeón, cuyos individuos nos honramos con su amistad.

A esta despedida se asocia San Sebastián y Euskaria entera, que llora la partida para lejanas tierras de su hijo más querido.

¡A América marchó el inolvidable Iparragirre! ¡A América marcha nuestro querido Otaño! ...”

Dokumentu horrekin batera, beste agiri komenigarri batzuk eman zizkionten Argentinako “*Lurak Bat*” elkarterako sarreratzat, Antonio Arzak lagunak idatzirik “*El Consistorio de Juegos Florales euskaros de S.S.*” izenekoa, “*Unión Artesana*” elkartearena eta abar. Hurrengo egunean, urtarrilaren 26an, Pasaiako portuan jendetza bildu zen.

Pello Marik hiru bidaia egin zituen aipatu kontinentera. Soilik azkenengoaz dakigu hainbeste. Pasaian, urtarrilaren 26an, itsasoratu ziren. “*Al embarcarnos en Pasajes, como antes digo, el 26 de Enero del 98, día en que yo cumplía cuarenta y un años de edad, fuimos objeto también de tiernísima despedida. Improvisaron en nuestro honor, colocandose junto al vapor Cór-sica, en el que estábamos embarcados (eran las dos de la tarde) y rodeados de infinidad de parientes y amigos nuestros, mis inolvidables Gaztelu (Gorriya), Chirrita y mi compadre José María Arregui, de Montefrío (Urnieta)*”.



Bernardo eta Joan Pello Otaño Barriola, Pello Mariren anaiak, beren emazte eta ondorengoekin (Familia / Zavala)

Teodoro Mujikak dioenez, aurretik honako bertso hau kantatu omen zuen Pello Marik: *“Ez nua borondatez, bearrak narama, nerekin daramazkit iru ume ta ama; iñork inguratu nai badu neregana, pozik egingo diyot posible dedana.”* Agian bosgarren puntu bat ere gehituko zuela dio Teodorok. Pasaiaiko kaian bildutako jendetzak goibel hartuko zuen etxerako bidea itsasoak Corsica baporea ezkutatu zuenean. *“La despedida de que fuimos objeto no la olvidaré nunca”* idatzi zuen Pello Mari Otañok.

Biharamunean *La Voz de Guipúzcoa* egunkariak Pello Marik itsasoratu aurretik igorritako honako ohartxo argitaratu zuen: *“Agur. ¡¡Eskerrik asko!! Pedro Maria Otaño.”*

Otaño familia joana zen. Hainbati, ordea, ez zitzaion buruan sartzen nola utzi zioten Pello Mariri Euskal Herritik alde egiten. Horietako bat zen Jeronimo Elizegi:

*“Bañan ez al da tristia, jaunak,
gizon bat bakar-bakarrik
zeguan euskera ezagutuba
aiñ jakintsu ta azkarrik,
eta guk ala juaten uztia
bera sortu zan erritik?”*

4.5.- Hirugarrenez Amerikan (1898-1910)

Oso sarritan aipatzen dugun Teodoro Mujikak kontatzen duenez, *“Pedro Mari Otaño azken bidaian Amerikara joan zenean, Buenos Airesko lurraldeak bistaratu zituenean, Itxas-ontziaren ertzetik, eskuan zeramakien makilla altxarik agurtu omen zituen paraje aiek, bertso gozo eta sentikor bat abes-tuz... Azken bi lerro edo puntuan era ontan abesten zituen:*

*Bañan natorren bide beretik
jira nai nuke atzera,
ni jaiotako lur maiteari
ezurak entregatzera.”*

Berdintsu esango zuen hango onbu arbolari jarritako bertsoetan, erbeste hura ez zela betikoa izango pentsatuz.

Pello Marik Laurak bat elkartean aurkezteko bi gomendiozko gutun eram zituen, Donostiako *Lore Joku* eta *Unión Artesana* elkarteek eginak. Biak bere *Oroimena* esku izkribuan eta Donostiako egunkarietan argitaratu ziren.

Bidaia Pasaiatik “Corsica” itsasontziz egin ondoren, bazuten aurrez bizileku bat hautatua. Lehendik Joana Mikela eta Joan Pello bi senideak bizi ziren Pehuajó herrian egoitza hartu zuten.

Bitartean, kezkati zituen Euskal Herriko adiskideak. Pello Marik Argentinatik bidalitako berriek Jeronimo Elizegi bezalako euskaldun askoren biho-tza alaitu zuten:

*“Zu jaiotako lur eder ontan
zenbait euskaldun pin dagon,
pozturik daude dakitelako
ondo zerala Pehuajón”*



Amerikara joateko Pello Marik, Malenek eta hauen hiru semeek erabili zuten pasaporte: "Autorización para que puedan embarcar con destino a Buenos Aires" (1898 - Familia)

Pello Mariren bertsioari jarraituz, gomendiozko bi gutunak, otsailean, Juan Sebastian Jakaren bidez aurkeztu zituen, eta martxoaren 20an, Laurak Bat elkartetik erantzun baikorra jaso zuen, besteak beste, hitz hauekin: "Al propio tiempo me encarga manifieste a V. que, tanto particular como colectivamente, estamos todos a sus órdenes, para cuanto crea que podemos serle útiles". Luis Labadens lehendakariak eta C. Orbea idazkariak sinatu zuten erantzuna. Pello Marik, apirilaren 14an, Pehuajótik erantzun zion aipatu elkarteko zuzendaritzari, bere burua edozertarako eskainiz.

Esan bezala, Pello Mariren bi senideek Pehuajó aukeratua zuten bizilekutzat eta berak ere harat zuzendu zituen bere urratsak. Pehuajók badu bere xarma berezi-berezia Argentinako XIX. historian. Gaur 30.000 inguru bizilagun dituen hiria, orduan Panpetan galdutako herri txiki bat zen, era ofizialean 1883an sortu berria. Pehuajóren inguruan gertatu berri zen Amerika osoan sekula egin den talka armaturik handienetakoa: Argentinako armada eta 4000 indio malpuchez eta ranculchez osatutako taldeak aurrez aurre borrokatu ziren 1872an. Armadaren garaipenak ez zuen erabateko bakea ekarri eta bi urte beranduago iraultza handi bat lehertu zen lurralde haietan.

Argentinako gobernuak paraje haietako giroa lasaitzea lortu zuen 1880 urtean. Han sortua zen *Las Mellizas* izeneko kolono-gunea, gero, 1883an, Pehuajó (*zingira sakona*, ranculcheen hizkuntzan) bihurtu zena. Horrek guztiak Argentinako historian eman den immigrazio uholderik handiena eragin zuen. Pehuajó ingurua, Mendebaldeko muga arriskutsu izatetik, bizitza berri bati ekiteko aukera paregabea eskaintzen zuen herri bilakatu zen kanpotarrentzat, eta horien artean, euskaldunentzat. Otañoen biografia landu zuen Alberto Azcona epaile argentinarrak zioen bezala, “...*un santuario para todos los hombres de buena voluntad que quieran venir a trabajar, vivir en paz, formar familias y realizarse, en suma, como personas*”.

Pehuajón sustrai sendoak bota zituzten Pello Mari, Malen eta hiru seme donostiarrek. Kanpotarren etorrerarekin herria erruz hazi zen, bertakoen kopurua gainditzearaino. Sinbiosi berezi bat sortu zen. Rafael Hernandez politikari eta La Platako unibertsitatearen sortzailearen aginduz, esaterako, kale eta plazei olerkari eta idazle izenak ezarri zizkieten.

Malen eta Pello Marik, lehengo hiru semeez gainera, beste hiru alaba sortu zituzten Pehuajón: Teresa, zaharrena, 1899. urteko irailaren 20an jaioa; Joana, bigarrena, 1903ko martxoaren 18an munduratua; eta Malentxo, gazteena, 1907ko urtarrilaren 28an erditu zuen amak. Nahiz eta 1907an Buenos Airesen bizi, Pehuajóra aldatu ziren familia izateko orduan, Susana Ardanaz Otaño “Txuri” bere bilobak esan digunez.



Pehuajóra lehen trenbidea iritsi zeneko irudia (1889 - Familia)

Malen eta Pello Mariren seme-alaben xehetasunak

Izena	Jaioterria	Bataioa	Heriotza
Bernardo	Donostia	1892.02.10	1959.04.23
Migel	Donostia	1894.08.22	1946.06.13
Josetxo	Donostia	1896.03.21	1982.02.21
Teresa	Pehuajó	1899.09.20	1989.12.22
Juanita	Pehuajó	1903.03.18	1998.01.05
Malentxo	Pehuajó	1907.01.28	1977.06.01

Zalantzak eragin dizkigu Donostian eta Pehuajón etxean familiak erabiltzen zuen hizkuntzak. Otañoren euskararekiko pentsaera jakinik, harrigarria suertatu zaigu aita Pello Marik Bernardo semeari gazteleraz eskutitzak egitea eta Teresa alaba zaharrenak erretiroa hartu ondoren euskara ikastea. Teresa berak dudatetik atera gaitu bere amari buruz hau idatzi zuenean: *“A ella misma, una niña donostiarra, hija del encargado del Gasómetro Viejo de San Sebastián, la habían educado en castellano. En la nueva tierra contaba, rezaba y a veces regañaba a sus hijos en euskera, pero nada más. Era una formidable mujer euskalduna que imponía su vasquismo en erdera. Al morir el marido guardó celosamente sus manuscritos en un cofre de madera que conserva la familia. Los hijos se educaron en castellano. María Teresa estudió el euskera después de jubilarse como docente”*. Pello Mariren emazte donostiarrak, aita azkoitiarra eta ama goizuetarra zituen, baina erdal irakaskuntza jaso zuen Donostian; euskaraz atzendu zen, eta seme-alabei ez zien taxuz irakatsi.

Horren harira dator Susana Ardanaz Otaño “Txurik” kontatu digun pasadizo: *“Pello Mari y dos hijos, Miguel de 10 años y Josetxo de 8 años, estaban conversando en castellano. Ambos eran alumnos de Euskera del padre. De repente el padre les propuso esto: -“escuchad!: al que hable mejor en Euskera le haré un regalo!- . Josetxo se subió a un árbol en silencio; Miguel que estaba abajo le ordenó a su hermano a los gritos:*

- ¡Josetxo!
bajatu
paloa
kra – krá!

El padre ante esta demostración se echó a reír y les hizo regalos iguales a ambos.”

Pello Mariren 43-44 bi urteak, 1899-1900 mendearen amaierakoak alegia, oso oparoak izan ziren: Pehuajón egoitza berria antolatu zuen, olerkigintzari gogotsu ekin zion eta lehen alaba jaio zen. Teresa izan zen Otaño-Alberdi ezkontzaren lehen kimu sendo argentinarra. Urte hauetan euskara izango da olerkariaren ama “poetiko”: *Zugandik urruti, Lagundurikan denoi, Zazpiak bat...*

Bi mendeen arteko mugan Felix Ortiz San Pelaio musikariarekin egin zuen topo. Karlistaldiaren ondoren atzerrian han-hemenka zebilen azpeitiarra, 1886an Argentinan finkatu eta 1941ean heriotzak eraman zuen arte. Jaun hau izan zuen Pello Marik lagunik bereziena Argentinan. Lehen ere sarritan egin zuten elkarrekin lan, musika jarritz batek, letra besteak. Azpeitiarrak *Artzai Mutilla* opera egiteko lankidetzeta eskatu zion zizurkildarrari, baita gazte-lerako itzulpena egitea. Hori Pello Marik ukatu egin zion: “...no está preparado para tal empresa por no haber estudiado la versificación castellana. Se lo dice en una carta del 19 de Septiembre de 1899...” dio bere biloba “Txurik”. *Artzai Mutilla* Euskal Herritik kanpo eta euskaraz sortu den opera bakarra da. Gazume magaleko mendizokoa, Erdoiztan gertatzen da, Otañoen Zizurkil eta Ortiz San Pelaioen Azpeitia arteko erdi bidean. Azkenik, 1900 urtean Buenos Aires-eko Victoria antzokian aurkeztu zuten opera berria, arrakasta handiarekin gainera. Ekitaldi gehiago ere izan zituen. Musikariaren ohoretan edo, “*Urolari*” izeneko bertsoak eskaini zizkion Felix azpeitiarrari.

Pello Marik ogibide ugari frogatu zituela oso zabaldua da, baina inork gutxik dakizkien kontuak kontatu dizkigu “Txuri” bilobak: “...En Pehuajó pone en practica sus conocimientos de veterinaria lo que le vale el mote de ‘malas artes’...”.



Otaño eta Ortiz San Pelaioen *Artzai Mutilla* operaren berri ematen zuen iragarkia. (1900 - Familia)

Pello Mariren aita, Joan Pello, 1901eko urtarrilaren 4an, Donostian hil zen. Semeak berehala jakin zuen berri tristea eta bere sentimenduak adierazi zituen ondorengo urteetan. 1902ko abenduaren 1ean, Jeronimo Elizegiren bertsoei honela erantzun zien: *“Aita ta anaia (Joxe Frantziskoz ari da ziur asko) il ziran ezkeroztik, bertsuak illunpian gelditu zaizkit; nola etzetorkidan inondikan pozik”*. Urte berean ere bere samina aitortu zigun *“Inñuzente eguna”* izeneko bertsoan: *“Gaitzik gabien egun onetan jaio zan gure aita zana, urtiak joanik egun berian ill zan amatxo laztana; iru arreba umerik illak anai bat berriro joana”*. Goibeldurik zebilen Pello Mari, baina, 1903an, lau poema pizgarri argitaratu zituen *“La Baskonia”* aldizkarian: Lehena, *“Urte berri”* poema *“Ogeigarren eunkiyan kristauben bizitzan, bi urte igaruak dauzkagu desdixan”*; bigarrena, *“Auntza larrera”* izeneko prosa eta bertsoek, bere aldiko arrakasta lortu zuten, han eta hemen berrargitaratuak izanik.

Migel Unamuno Salamancako unibertsitateko erretoreak, 1901ean, Bilbon euskararen heriotza iragarri eta beraren hiletak ponpa handiz ospatzeko eskatu zien euskaldunei. Pehuajótik Pello Marik, 1903an, ironiaz jositako pare bat poemekin erantzun zion *“maisubari”*.

Euskararen egoerak kezka handiak eragiten zizkion Pello Mariri. Baziren etsipenez negarrari ematen ziotenak. Ez, ordea, gure zizurkildarrak. Negar-
ri ez, lanari ekin behar zitzaiola esaten zuen:

*“Egunen baten iltzen bazaigu
ainbeste nai diyoguna,
zorigaiztuan etortzen bada
ain patu beltz ta illuna,
ordubantxe bai, negar samiña
orduban, nire laguna.
Baña bizi dan arte ez da ori
guk egin biar duguna.”*

Pello Mariren Argentinako bizitzan 1904. urteak badu bere xarma eta informazio oparotasuna: Pehuajó utzi eta sendi osoarekin Argentinako hiri-
burura aldatu zen: Buenos Airesera, Lima kaleko 969.go zenbakira, aipatu
“Txuri” bilobaren iturria erabiliz. Urte bereko hiru efemeride historiko

dakarzkigu hona: *ALKAR* Pello Mariren liburua argitaratu zuen *La Baskonia* aldizkariak; Laurak Bat elkartearen egoitza berriaren inaugurazioan Pello Mari berak hitzaldi sonatua eman zuen; eta azkenik, aipatutako erakundeak Euskararen Katedra fundatu eta bertako lehen irakasle izendatu zuten Pello Mari. Jaiotetxe nahiz jaioterritik iheslari, Donostian askotan aintzat hartu gabea eta atzerrian estimatua izatera iritsi zen gure zizurkildar hizlari bikaina eta euskal maisua.

Laurak Bat elkartearen Belgrano kaleko etxe berria inauguratu zenean, urtearen azken aldera, azaroaren 20an, *La Baskoniak* argitaratu zuen Pello Mariren hitzaldia: *ZUTIK*, “*Discurso pronunciado por el Sr. Pedro Maria*

Otaño en la fiesta inaugural de la Sociedad Laurak Bat”. Hitzaldia bi hizkuntzetan egin zuen, gaztelera dotorez hasi eta euskara bikainez amaituz. Mintzaldi abertzalea izan zen, euskara eta Euskal Herriarekiko justizia eskatuz. Bere hitzaldia euskararen ikertzaile ospetsuetan oinarritu zuen. “*Entre los dedicados al estudio del euskera en Francia, Alemania, Inglaterra, Holanda y Hungría, figuran...*”. Izen zehatzak eman zituen, esaterako, Vinson, Bonaparte, Humboldt, Larramendi, Arturo Campion... Badirudi bertso honekin amaitu zuela hitzaldia: “*O, Amatxo! Zu beti gure Ama zera! Odolik degun arte goazen laguntzera*”.

Beste alde batetik, *La Baskonia* argitaletxeak “*ALKAR, Poesias escogidas de Pedro M. Otaño*” liburua kaleratu zuen. Erruz zabaldu eta berehala agortu



Pello Mari Otañoaren *ALKAR* bildumaren azala (La Baskonia, Buenos Aires, 1904 - Familia)

zen, *La Baskonia* aldizkariak dioenez. Donostian bere anaia Bernardok saldu zituen ale batzuk. Izen ezberdinak erabiliz, Donostian 1930ean eta Zarautzen 1959an berrargitaratu zen. Lehen berrargitalpenari (OLERKI ONENAK, 1930) Aitzolek egin zion hitzaurrea, Otañoren herri olerkigintza, sinismena, aberria eta maitasuna nabarmenduz. Guk bilduma horren ale berezia erabili dugu azterketa egiteko orduan; Pello Mari beraren iloba Eusebi Otañok, hau da, Bernardo anaiaren alabak Donostiako etxean gordetzen zuena. Eusebiren alaba Juana Garmendia Otañok eskuratu zigun liburua. ALKAR liburuxkaren bigarren argitalpena, berriz, Itxaropenak burutu zuen Aita Unzurrunzagaren hitzaurre batekin. Basarri bertsolariak aurkezpenerako prestatu zituen bost bertsoak irakur daitezke liburuaren hasieran.

Urte berean Laurak Bat elkarteak euskarazko klaseak haur eta helduentzakoak hasi zituen, Pello Mari irakasle zelarik. La Baskoniak hauxe dio: “*Tan pronto como se inaugure oficialmente el hermoso edificio del Laurak Bat darán comienzo las clases de vascuence, que estarán bajo la acertada dirección del señor Pedro M. Otaño*”. Eskolak urriaren 21ean hasi ziren, astean hiru egunetan, goizez haurrentzat eta gauzez helduentzat. Hurrengo urteetan ere aldizkariak propaganda egiten jarraitu zuen.

Bi urte iraun zuten eskolek, Laurak Bat elkarteak irakaslearen lana ordainduta eta ikasle guztiek doan hartuta. Garai hartan ez zegoen euskara irakasteko metodologia eta ariketa libururik. Beraz langintza honen aitzindari baten aurrean gaude. Berak asmatu eta erabilitako metodologia gehiegi ez da ezagutzen. *La Baskonia* aldizkariak argitaratutako ereduak ikusi ditugu. Laurak Bat berriaren inaugurazioan dioenez, ezagutzen zituen Larramendiaren eta Arturo Kanpionen gramatikak, baina ez dakigu zenbateraino erabili zituen. Dakiguntxo, ordea, beste hauxe da: metodo funtzionala, praktikoa erabili zuela, hau da, metodo modernoa. Hori ziur ondoriozta daiteke *La Baskoniak* 1905eko apirila eta maiatzeko aleetan argitaratu zituen Otañoren irakasteko ereduak ikusirik. Gaur Carlos Pellegrini deitzen zaion Buenos Aireseko Unibertsitateko Merkataritza Eskola Nazionalaren egoitzan egin zituen 1906an azken ebaluazioak, bere ahaideek diotenez. Ikasleen zabarkeria jasan ezinik, Pello Marik berak proposatu zion 1905eko azaroaren 27an Laurak Bat erakundearen lehendakariari euskarazko klaseak bertan behera uztea. Proposamena onartua izan zen eta bertsolariaren ametsek porrot egin zuten.

Pello Marik Buenos Airesen, 1904-1906 urteetan, bertso eta olerki ugari idatzi eta *La Baskonia* aldizkarian argitara eman zituen. Ale batzuk, berriz,



Pello Mari Otaño eta familiaren bizileku izan ziren Argentinako herriak, Buenos Aires hiriburuaren inguruan beti (Hernandorena K.T eta Familia)

Oroimena bere esku izkribuei esker iritsi zaizkigu. Sarritan bertso bakarreko emaitzak izan ohi ziren. Besteak beste, 1906an, Buenos Airesen *La Euskaria* egunkariak lehiaketa bat antolatu zuenean, Pello Marik *Gu ta Guk* izeneko olerkiarekin irabazitako saria eta *ARANA ETA GOIRI'TAR SABIN ZANARI BERE ERIOTZAREN IRUGARREN URTE-MUGAN* idatzitako bertsoak bereziki azpimarratzen dira. Sabino Aranari eskainitako bertsoak gutxi hedatuak izan ziren, baina, Pello Mariren pentsaera ezagutzeko giltzarria dira.

1907. urtean, *LORA* izeneko opera berri bat lantzen ari zen Pello Mari. Oraingo hau, aurrekoa bezala, Felix Ortiz de San Pelaiorekin batera prestatzen jardun zuen. Baztanen eta Gernikan gertatzen da. Baina ez zen osorik inoiz antzeztu. Data haietako *La Baskoniak* dioenez, hiriburuan saiakera batzuk egin bai, baina bere hartan geratu zen opera proiektua. Pello Marik bazuen, bere esku izkribuetan ageri denez, data zehatzik gabe eta amaitzeke utzitako opera itxura duen beste idazlan bat. Izenburu hau ipini zion: *Aitor-en semeak eta Erroma*. Euskal mito ezagun batean oinarritutako obra izan behar zuen.

Pello Mariren familiak hiriburua utzi zuen 1907an. Malentxo, seigarren alaba Pehuajón izan zutela esan digu biloba "Txurik". Ezezaguna zitzaigun bertsolariaren azken lanbide-abentura baten berri ere eman digu: "*...En 1908, a raíz de un contrato acordado con la empresa Defensa Agrícola - Leyes 3708 - 4863 Sección Rosario, se traslada a esta ciudad movilizándose hacia Firmat, San Genaro y Pérez, todas pertenecientes a la provincia de Santa Fe. Allí realiza el Censo Agrícola Distrital e interviene en las campañas de lucha contra la langosta "Campaña Langosticida" según Pello Mari. Su hijo Bernardo queda en Firmat y con él se escribe..*" *La Baskonia* aldizkariko zuzendariak, hots, Jose Rufo Uriartek, langosta edo matxinsaltoaren izaeraren gainean olerki bat eskatu zion Pello Mariri. Pello Marik euskaraz egindako bertsoari iruzkin hau gehitu zion: "*...aunque hacía mucho tiempo que no escribía yo versos, me ha salido muy a mi paladar la composición pedida por Uriarte a quien se la he dedicado. Se titula Martinsalto (Langosta)..*"

MARTINSALTO (Langosta) ⁽¹⁾

Nere adiskide Uriarte-ko José R.-ri

Galdetutzen dirazu “*Langosta* zer dan,”
eta nik aditzera nai dizut eman,
jakin dezazun,
pishti edo zomorro oyen izaera;
bañan ezdakit ongi zure galdeera
nola erantzun.

Asian eta Afrikan indar daukala
eta European ere agertzen dala
diyote, baña,
ezderizat eguzkiyaren azpiyan,
izan litekianik mundu guztiyan,
emen dan aña.

Maná-ren ondorengo pishti kaltarrak,
euki zituben Moises ta israeltarrak,
ikaratuak;
Ejipto elchoz bete zan, Sodoma malkoz;
bañan emen geyago dirade askoz
martinsaltuak.

Simoun-ak daramatzien *Sahara*-ko
ondar aleak, eta *Dilubio*-ko
euri tantuak,
oyek guztiyan ziran eziñkontaala;
nik uste det oraindik geigo dirala
martinsaltuak.

Mingañez eztitsubak, bañan biyotzez,
lagun urkoa gaizki jartzeko pozez,
gaur zenbait dago!
eziñ konta litezke jende gaiztuak,
banan oraindik dira martinsaltuak
askoz geyago.



Pello Mari Otañoaren azken bertsoetako bat, “*Martinsaltoa*”, nahiko ezezaguna: “*Me ha salido muy a mi paladar*” zioen olerkariak. (La Baskonia, 1908 - Familia)

Elur-jasa ugari, zabal, luziak,
zuk badakizu nola iparraiziak
ziarkatuak,
egaatutzen diraden pishtiyen gisan;
ber-bera dirudite emen dabiltzan
martinsaltuak.

Elurra jachitzen dan gisa berian,
arbiska⁽²⁾ oyek ezartzen dira lurrian,

¡aiñ gosetuak!
Non bukatzen dituzten osto ta izpiyak,
eta gero elkar jaten dute pishtiyak,
martinsaltuak.

Atila-ren gudari, *huno*-tzar pilla
bezela datoz oyek zerbaiten billa,
amorratuak;
ta eziñ sinistu leike, ikusi gabe,
nola egiten diraden jaun eta jabe
martinsaltuak.

Nonnai biltzen ditugu zomorro pillak,
ta milloika gelditzen dirade illak,
lurperatuak;
bañan; zertarako da gure egiñala?
Esan leike len baño geiago dirala
martinsaltuak.

Zarrak etortzen dira *Chako*-tik onuntz,
eta jartzen dituzte ainbeste arraultz
kabiratuak,
zeñaak laster zomorro sortzen diraden;
ala ugaritzen dira, lenak ill arren,
martinsaltuak.

Arrastaka lenbizi, gero saltari,
sayatzen dira jaten emengo gari,
liño ta artuak;
ta eguak luzatzian, ariñ *Chako*-ra,
igesi joaten dira zarren chokora
martinsaltuak.

Chako-n ortzak chorroisten neguba igaro
ta, indio erantsi bat⁽³⁾ bezela gero,
elkar artubak,
udaberriyan datoz, lurra betian;
baña ezdira etortzen danen kaltian
martinsaltuak.

¿Gauza ugariyagorik ezdala izan oi?
- Bai: geiago dira oraindik gure arrazoi
oiñperatuak.
Esan det kontaeziñak dirala, baña,
ezdirade esk-aldunen arauak⁽⁴⁾ aña,
martinsaltuak.

PELLO MARI

(1) Larrapotea, -Othia, -Otiya = Martinsalto

(2) Insecto

(3) Una invasión de indios

(4) Derechos



Pello Mari Otaño Laurak Bat elkartearen ikasle eta agintarien artean. Zizurklidarraren hiru semeak ere agertzen dira argazkian: Bernardo, eskuin-eskuinean; Migel, goiko lerroan, ezkerretik 3.a eta Josetxo, lurrean eserita, eskuinean. (Familia)

Jose Rufo Uriarte Bermeon jaio zen 1867an eta Argentinara joan zen bizitzera. *La Baskonia* aldizkariaren lehen sortzailea, Frantzisko Grandmontagne hil zenean, 1902an, bermeotarrak jarraitu zion zuzendaritzan 1903-1932 urteen artean, hots, hil arte.

Aipatu aldizkarian kazetari aparta eta oparoa izan bide zen euskal gaietan. Hiru artikulua dira aipagarrienak bere bibliografian: 1910ean, (artikulu hartan Pello Marik parte hartu zuen), “*Los baskos en el Centenario*”; 1919an, “*Los baskos y la Nación Argentina*”; eta, 1930ean, “*¿Quiénes son los baskos?*” Bermeon omenaldia eta oroitarria ipini zitzaion seme jakitun izendatuz.

Pello Marik, 1909an, nekazaritza-eroldarekin jarraitu zuen, bere egoitza Perez herrira aldatuz, han baitzeuden matxinsalto edo otien jaki edo soroak. Otien erauntsi bortitza gertatu zen 1910eko urtarrilean, baina eraso garaiz geldiarazi zen. Pello Mariren azken ekintza zuhurretako bat izan zen. Aitak Bernardo bere semeari idatzitako eskutitzean hauxe aitortu zion: “*las andanzas recientes me quebrantaron bastante ... ya voy a viejo de veras, ché, pues-*

to que el día 26 del corriente cumpla 53 años. Aurrera”. Zailtasunen aurrean beti baikor. Hori bere azken urtarilaren 17an izan zen.

Handik bi hilabetera Buenos Aireseko “*Barrio de Once*” izeneko auzora joan zen, La Baskonia aldizkarirako idazlan bat zuzentzera: “*Euskaldunak Arjentinan dierrri onen lokabetatasunaren lenengo euki-mugan*”. Aipatu aldizkariak, Argentinaren askapenaren mendeurrena ospatzeko prestatzen ziharduen lana zen hori. Pello Marik euskaraz bere eskaintza oparitu zion Jose Rufo Uriarteri, “*Los Bascos en el Centenario*” izena izango zuen liburuaren artikulurako. Teresa alabak itzuli zuen gero gaztelerara. Hiriburuko bisita honela amaitu zuela dio bere bilobak: “*Concurre a las oficinas de la Defensa Agrícola. Visita a sus amigos, muy especialmente a Juan S. Jaca y señora, Magdalena Otaño (Michi).*”

4.6.- Pello Mari Otañoren heriotza (1910) eta eragindako oihartzunak

Martxoaren 18an, Perez-era itzuli zen. Bere gaixotasuna areagotu egin zitzaion. Bernardo bere semeari larrialdian deitu zioten, maiatzaren 5ean. Maiatzaren 6an familia Rosariora eraman zuen, non bihotzak huts egin eta zendu zen. Rosarioko Erregistro Zibilak jaso eta sinatutako 6289 agiriak dienez,

“...en Montevideo 270 ha fallecido Don Pedro Maria Otaño ... de cincuenta y tres años de edad, de estado casado y de profesión maestro a consecuencia de Sincope cardiaco según consta en el certificado médico expedido por...”

Sarritan aipatu dugun Susana Ardanaz Otaño “Txuri” bilobaren lekukotasunak zera gehitu digu: familia berehala Pehuajóra itzuli zela. Gorpua, ordea, Rosarioko kanposantuan hobiratua geratu zuten.

Otaño-Alberditarrak, esan bezala, Pehuajón berrantolatu zuten bizitza. Ama eta sei seme-alaba, zazpi aho denera, eta aurrezkiak eskasak eta urriak, hutsaren hurrengoak. Hiru mutilek, Bernardok, Migelek eta Josetxok, etxeko zaharrenek, lanaren bidea hartu zuten laster asko. Haien ahaleginek hiru arreba gazteagoen ikasketak bermatzea eragin zuten. Bai, Teresak, Juanitak eta Malentxok, hirurek, maistra titulua erdietsi zuten. Bizitzaren zurrunbilan, ordea, Otaño-Alberdi familia La Platan biltzen joan zen poliki-poliki, eta

hara ekarri zituzten Rosariotik Pello Mariren hezurak. Gaur La Platako kanposantuko “*nichario*” batek (“*Sección V-A, Lote 40*”) jasotzen ditu Pello Mariren eta Malenen gorpuzkiak. Aitaren eta amaren gerizan daude hobiratuta Josetxo, Teresa, Juanita eta Malentxo seme-alabak ere, beste hainbat ahaideekin batera.

4.6.1.- Heriotzaren oihartzunak

Pello Mari Otañoren heriotzak hango eta hemengo euskaldun asko goibeldu eta samindu zituen. Pello Mariren heriotzaren oihartzuna hiru eremutara iritsi zen: familiara, Argentinara eta Euskal Herrira. Familia, esan bezala, Pehuajoko bere santutegira itzuli zen. Urteetan sasoiko aita izan zutenaren eguneroko ekintza eta gauzak oroitzeko, kutxa batean gorde zituzten. Hori ziurtatu digute bere ondorengoek.

Etxekoek olerkariaren memoriari tinko eta harro eutsi zioten. Teresa alaba zaharrenak Baserriri aitortu zionez, “*...desde el año 1910, que falleció mi padre, hasta el año 1934, que dejó de existir mi madre, en nuestro hogar no hubo un solo día sin mencionar a papá. Siempre lo tuvimos presente, particularmente mamá...*”


Argentinako euskaldunen artean halako zirrara eragin zuen Otañoren heriotzak. *La Baskonia* aldizkariak berehala hil kanpaiak jo zituen. Orrialde osoa eskaini zion, bere argazkia koroi itxura zuen irudi baten barruan kolokaturik.

Aldizkariak, izenik gabeko artikuluan, heriotzaren bat-batekotasuna eta utzitako hutsunea nabarmendu zuen. Pello Mariren bizitzarekiko laburpen bat egin eta olerki hautatu batzuk eskaini zituen, euskal gramatika berri bat taxutzen ari zela gehituz. Euskal Herrira etortzea amesten zuela azpimarratu zuen. *La Baskoniak* berak Laurak Bat elkarteak antolatu zuen diru-bilketaren berri ere eman zuen, “*...con el fin de aliviar la precaria situación de la familia del finado poeta...*”.

Euskal Herriko aldizkari eta egunkarietara, berriz, oihartzuna beranduxego heldu zen. Donostiako Euskal-Erria aldizkariak heriotzaren berri ematen zuen: “*...Igaro berriya dan maiatz-illaren zazpiyan, Pello Mari-ren ill berriyak izan dira: gizagajua!...Orra Ama Euskerak zer seme zintzo eta argiya galdu duben, eta guk zer anai ona...*”

Correspondencia
84 estampado 6289

Otaño
Pedro Maria

Modelo C. Acta número y
 En el Povoio Departamento del
 Provincia de Santa Fe, el día siete de Mayo
 de mil novecientos diez a las de la tar
 Ante mí Enrique Alvarez
 encargado del Registro del Estado Civil compareció Don Fernando
Gal de y con años de edad
 de años de nacionalidad
 de profesión empleada y vecino de
 declarando que el día de la del día
 y en Montevideo 210 ha fallecido Don Pedro Maria
Otaño de nacionalidad
 nacido en de años de edad
 de estado
 y de profesión maestro a consecuencia de Sincope
cardíaca según consta del certificado
 otorgado por el Doctor que se archiva con
 el número de esta acta
 Que el era hijo de
 los demás datos
 Así mismo se hace constar que
 Leída esta acta la firmaron conmigo el declarante
 de años de edad, de nacionalidad
 de estado y de profesión
 y Don Pedro A. Bofaller de y
 de edad, de nacionalidad de estado
 y de profesión

Fernando Gal Pedro A. Bofaller
Antoni Enrique Alvarez

Pello Mari Otañoren heriotza-agiria: "...de cincuenta y tres años de edad, de estado casado y de profesión maestro a consecuencia de Sincope cardíaco..." (1910.05.07, Familia-Zavala)

Jose M^a Salaberria idazle ezagunak ere Otañoren heriotza jaso zuen *Novedades* aldizkarian: “...*Muchas gentes habrán llorado la muerte de Otaño, con lágrimas sinceras arrancadas del corazón, cosa que no lograrán, seguramente, otros poetas mucho más célebres, universales y de gloria más altisonante...*” Euskaraz zein gaztelaniaz, samina bihotzetan. “...*ill da Otaño gizarajua, gaitzarekin Amerikan, fameliyan da Euskal erriyan negar asko utzirikan*” zioen Kaietano Sanchez Irurek. Edo Jose Marino Arrietak, “*on Pedro Maria Otaño ill zan ordutikan, zer pena senti dan emen da Amerikan*”. “...*ill dala seme doakabea jakindu dan ezkerotik, zeruba ere estalitzen da triste ta goibel geroztik*”:

Txirrita berak ere gogoan izan zuen Pello Mari Otaño. Zizurkildarra Euskal Herrian izan zen urteetan elkar ezagutu eta lagun bihurtu ziren. Txirritak Pasaian agurtu zuen Otañok Argentinara hirugarrenez jo zuenean. Eta gero, elkarren berri izaten jarraitu zuten hernaniarrak eta zizurkildarrak. Hona zer zioen Joxe Manuel Lujanbiok, Txirritak:



Otaño – Alberdi familiaren “*nitxarioa*”, La Platako kanposantuan. Han familiako gorpuzkinak jasota daude: Pello Mari eta Malen, haien seme Josetxo eta Teresa, Juanita eta Maletxo hiru alabak, Beltxa biloba eta beste hainbat ahaide (Hernandorena K.T., 2009)

“Zizurkilgo seme bat
ain gizon umilla,
euskaldun jakintsuna,
eskolaz abilla;
zenbait saio egiñak
lege zarren billa,
nik aginduta ezta
Jaungoikuak illa,
zeruaren erdiyan
gertatu dedilla”

Etengabekoak izan ziren komunikabideetan olerkari zenduaren ohoretan idatzi zituzten bertso eta artikulua: Emeterio Arrese, Joan I. Uringa, Jose Gamboa, Felipe Casal, Rosario eta Jose Artola, Biktoriano Iraola, Jose Zapirain eta beste batzuk. Hil ondorengo

dolumin beroa beranduegi eskaini zitzaion. Ura pasaturik presa egitearen antzeko zerbait izan bide zen.

4.7.- Pello Mari Otañoren bilakaera politikoa

Pello Mari bere ideologia politikoaren bilakaeran, errepublikazale izanik, foruzale eta abertzale bihurtu zen. Bide hartan bi eragin nabarmentzen dira liburu honetan: alde batetik, Pello Mariren biografian eta bere bizitzan agertutako hainbat pertsona eta erakunde zehatz; bestetik, gure bertsolari herrikoi eta olerkari landuak erabili zituen bitartekoak. Laurak Bat elkarteko hitzaldian aipatu eta eskuartean izan zuen bibliografia da diogunaren lekuko.

Lehen eraginari dagokionez, hainbat pertsonaren eta talderen eragina barneratu zuen Pello Marik: Zizurkilen ama eta Jose Bernardo osabarenak, Donostian Arzak eta Lore Jokoen inguruko idazle frankorenak, eta Argentinan Laurak Bat elkarteko eta *La Baskonia* aldizkariko idazleenak.

Pello Mariren obra literarioari gainbegirada bat emanik, bilakaera argi eta garbia agertu zaigu. Jarraian doan zerrenda lagin bat besterik ez da, azterketa luzeegia egin eta liburua irakurtzeko oztopoak saihestearren.

“*La Juventud Republicana*” izeneko aldizkarian, 1893an, Donostian idatzitako bi poemak irakurtzea aski da: *Republika ta fueroak*. . . eta *Bastilla* alegia.

*Uzta-illaren amalaubian,
gaur eun ta lau urte,
frantsesak azañ izugarri au
egiñ izan ez balute,
etorkizuna etzitekian
daukan aña argiz bete.
Bai, animako ogiya denoi
bidean jarri digute;
agur ditzagun gure maisuak,
guztiya merezi dute.*

Pello Marik, 1896an, Arrasateko Lore Jokoetan bi sari jaso zituen, Euskal-Erria aldizkarian datorrenez: *Kubako gure anaia* eta *Aitona gizagaisoa* izenekoak. Azkeneko hartan euskara eta eskola darabil gaitzat, sarritan “*gure euskara gairua*” lelo bezala errepikatuz.

...

*Esan ziran: “Ai! Denak nai dute
lege zarrak dakarrena,
eta ez dute ezagututzen
izkuntza dala aurrena.
Miru gaiztoak menderatutzen
duten bezela uxua,
etzazutela illtzera utzi
gure euskara gaxua.*

Handik aurrera arrapaladan erabili zituen gai abertzaleak, esaterako, *Gu ta gutarrak*, *Aitona eta illoba* bi poemetan, 1876ko uztailaren 21a burutapen ken ezina eta olerki gai amai gabea bilakatu zitzaion.

*Milla zortzireun irurogei ta
amaisegarren urtian,
uztailaren hogeitau bata
nola aztu gure artian!
Egun orretan loitu gintuzten
Euskal-erri txit maitian,
gaizkilleentzat mesede gabe
eta guretzat kaltian;
o, euskaldunak, lots au kentzeko
denok alkartu gaitian.*

Bizitzaren hondarrean ondorio batera iritsi eta hauxe adierazi zigun Mendiburuko maizterraren hitzetan: “...diyozu erreplurikak puerua dakarrela ... *Orduban saia gaitezen denok ta lenbailen datorrela.*”



Euskarari laudorio mitikoak egin zizkion Pello Mariren *Gu ta Guk* olerki saritua: "...ha obtenido el premio de 120 francos (1^{er} premio) en el primer concurso de poesías euskaras..." (La Euskaria, 1906 - Familia)

Pello Mariren bilakaera politikoaren norabidean esanguratsuak suertatu zaizkigu idazlan honetako beste atal batean argitaratu ditugun "Martinsalto" bertsoak. Dozena bertsoetan matxinsalto edo otien ugaritasuna irudikatzen saiatzen da zizurkildarra. Hamahirugarrenean, ordea, mezu politikoa zabaltzen du: matxinsaltoak hain dira ugari Panpan, jaki edo soroak oso-osorik irentsi eta xahutzeko adinako lainoak osatzen dituztela. Hain dira ugari, baina...

*...geiago dira oraindik gure arrazoi
oiñperatuak.*

*Esan det kontaeziñak dirala, baña
ez dirade eskaldunen arauak (eskubideak) aña...*

Bilakaera horren agiri eta argibide, bertsolariaren sinadura bera: urteetan *Pedro Mari* sinatu badu ere, azkenean *Pello Mari* izenpetuko ditu bere lanak. Izena eta izana. Izena, euskal nortasunez idatzita. Eta izana, etxeko eta hur-bilekoentzat beti Pello Mari, eta ez beste, baitzen.

Zurrumbilo hartan guztian murgilduta zebilela, politika abertzalearen bidera eraman zuen pertsona azpimarratuko genuke: Sabino Arana Goiri,

hain zuzen ere. Haren heriotzaren berri izan zuenean nahiko ezezagun diren bertsoak eskaini zizkion:

*Bera izan zan, Sabin aundiya,
ondokitatu (sortu) ziguna,
gaur euskaldunok hainbeste maite
degun dierritasuna (abertzaletasuna).*

eta aurrerago:

*Jaso dezagun bere bandera
egiñ zaigun alegiña,
ez dakitenai erakutsiyaz
maisuzanaren dotriña.*

Amaitzeko, aipatu ezagutzen ditugun Otañoren azken bertsoak, Argentinari berari eskainitakoak. 1910ean Pello Mariren bizileku bihurtu zen estatua espainiarrekiko independentziaren mendeurrena ospatzen ari zen. Argentinako iraultza urte horretako maiatzean hasi zen eta beraien banderaren eguzkia irudikatzen dute. Hortik letorke *maiatzeko eguzkiyak* aipamena. Itxura denez, Pello Marik berak ez zituen bere azken bertso hauek argitaratuta ikusi.

*Denok maitaro agurtzen degun
maiatzeko eguzkiyak,
aska ditzala euskal lurra ta
katibu dauden guztiyak.*

Honakoa da Pello Marik Amerikan, 1899-1910 urteetan idatzitako prosa, bertso, poema, olerki eta operen bilduma. Batzuk edonon argitaratuak izan ziren:

Urtea	Izenburua	Bertso kopurua	Gaiak	Ñabardurak
1899	Laztan edo musurik onena	41 bertso-oin	Musu ezberdinak	Bertso-oin denak antzekoak
	Zugandik urruti	8 olerki	Urrutiko herri-mina	Bi abeslariantzat letra
	Urolari	7 bertso	Urola ibaiari laudorioak	Abeslari tenore batentzako letra
	Amari	3 bertso	Ama hizkuntza	Joxe Eigureni eskainia
1900	Nere Kabiya	3 bertso	Baztan jaioterria	Luis Labadensi eskainia
	Eder Bati	3 bertso	Triste ikusten duen bati	Abeslari baritono batentzako letra
	Perrando Amezketarra-ren aterkari bat	Prosa laburra	Amezketako Pernandoren kontaketa bat	
	Aita-Semeak	6 bertso	Gurasoen agurreko aholkuak	
	Zazpiak Bat	4 bertso	Euskal aberria	
	Ameriketako Panpetan	5 bertso	Panpetako herri-mina	
	Orfeon Donostiarra-ri agur	Bertso bat	Donostiako Orfeoia egin zion agurra gogoratuz	
	Urte Zar	Bertso bat	Urteari agurra	
	Artzai-Mutilla	Hiru zatiko opera luzea	Benetako euskal opera Argentinan	Arrakasta handia
1901	Ongi-Etorriya	2 bertso	Ongi etorria	
1902	Noizbait	6 bertso	J. Elizegiren bertsoei erantzunez	
	Iñuzente-Eguna	Bertso bat	Egun beltza, sendikoen heriotzagatik	
1903	Urte Berri	6 bertso	Urteberriaren agur kritikoa	Luzio Kortejarena lagunari eskainiak
	Auntza Larrera	Prosa eta bertsoak	Bertsolarien bizitzaren laudorioak	

Urtea	Izenburua	Bertso kopurua	Gaiak	Ñabardurak
1903	Berri On Bat	32 bertso-oin berdinak jarraian	Bilbon Unamunok eman zuen hitzaldia komentatuz	
	Maisubari	8 bertso	Unamunori kritika	
1904	Amatxo laztana	3 bertso	Euskara da Pello Mariren ama	
	Bidaniako Labaka	Bertso bat	Bidaniko palankaria	
Lo cierto es que, cuando finalizó la segunda guerra mundial, un nuevo escenario comenzó a configurarse, el cual fue denominado “mundo bipolar”, donde bajo la autoridad de Estados Unidos y la URSS, las naciones del planeta se alinearán detrás de cada potencia mundial. En este sentido, la URSS formó un importante bloque, con presencia en el centro y sur de Europa, Asia y África.

Esta situación, trajo como consecuencia el comienzo de la “guerra fría”, a partir de la cual, estas potencias se enfrentaban, pero en de terceros países, como, por ejemplo, Corea y Vietnam.²

Ante este nuevo marco planetario, que posibilitó la presencia de la URSS en el Mediterráneo y cercano oriente, se produce una reacción de los Estados Unidos, quién evaluará la posibilidad de que España pase, de ser considerado un enemigo, a ser un posible aliado. Luego de la firma del tratado firmado en el año 1953 entre USA y España, ésta le ofrecía a Estados Unidos lugares estratégicos para la colocación de sus bases misilísticas, a cambio de ayuda económica para su desarrollo y además salir del aislamiento internacional. En este sentido, la hipótesis del Gobierno Vasco en el exilio se derrumba, quedando en solitario, con la sola alternativa de esperar un pronto cambio político en la España franquista, contando en adelante con el apoyo moral y económico de la diáspora americana, conformada ésta por los centros vascos y por los vascos exiliados o emigrados en distintos momentos y sus descendientes.

En los próximos años y hasta la muerte de franco en 1975, la diáspora vasca, tendrá un rol fundamental en el mantenimiento de la cultura y el espíritu de la Patria Vasca. En este sentido, la Argentina jugará un rol fundamental, al poseer para el momento la mitad de las instituciones vascas organizadas, si bien Estados Unidos, Venezuela, y Uruguay también ocuparán un lugar importante en esta tarea, de mantener en pie la Causa Nacional Vasca.

Los exiliados que, luego de pasar por muchas penurias habían llegado a estos países americanos y en su mayoría tenían en mente, que en pocos años retornarían a Euskadi, debieron mirarse en el espejo de la realidad que les mostraba que el regreso sería imposible. Era el fracaso de la apuesta del Gobierno Vasco en el exilio.

El viraje de los Estados Unidos a favor de España había hecho añicos los sueños de muchos circunstanciales inmigrantes.³

Los vascos y argentinos vascos colaborarán de varias maneras en el sostenimiento de la Causa Nacional Vasca. Lo cierto es que muchos vascos como el

² Arrondo, César, La Nación Vasca ayer y Hoy OP. Cit, p 13

³ IBIDEM, P 14



Buenos Aireseko *La Boca* kaia. Hona iristen ziren etorkinen uholdeak Europatik, tartean euskaldunak, Pello Mari Otaño bezala (Buenos Aires, 1888)

Dr. Garciarena (argentino-vasco), pusieron a disposición de la causa vasca sumas extraordinarias de dinero para el mantenimiento de la acción vasquista.

Resulta importante destacar la actividad del Comité Pro Inmigración Vasca, del cual formó parte, entre otros, don Diego Ibarbia, un argentino de origen vasco, que llevó adelante las acciones y negociaciones necesarias frente al Gobierno argentino del Dr. Ortiz, con el propósito de posibilitar la llegada de miles de vascos que habían quedado en Iparralde, sin documentación y ante la amenaza de nazis y falangistas. Las gestiones llevadas adelante por el Comité dieron sus frutos, y si bien la Argentina había cerrado la inmigración, el Presidente Ortiz firmará un Decreto, por el cual se posibilitaba que los vascos que se encontraban en Iparralde pudieran venir a la Argentina con el documento que poseyeran, o simplemente sin documentos.⁴

⁴ IBIDEM, P 14

Más allá de las reiteradas presiones y quejas interpuestas por el Embajador de España, el Decreto estuvo vigente desde 1940 hasta la llegada al poder del Peronismo en el año 1946. Esos paisanos vascos, ingresaron al país, con el sólo aval de los miembros del Comité Pro Inmigración Vasca, los cuales daban fe de su hombría de bien, como así también de que los mismos eran gente trabajadora. En definitiva, la diáspora cumplió con su rol, no sóloamente por los hechos antes comentados, sino también por convertirse desde el fin de la guerra civil española y hasta la muerte de Franco en el principal soporte moral y económico de la cultura y de la Causa Nacional, en momentos de extrema gravedad para el futuro de la Nación vasca

Otra referencia importante del rol de la diáspora argentina en la década del 60, lo constituye una prolongada conversación entre el Lehendakari José Antonio Aguirre con el Don Garciarena. La misma tuvo lugar, en un viaje por ferrocarril entre las ciudades de Buenos Aires y Mar del Plata, donde éste último le ofreció al Lehendakari vasco en el exilio, la ayuda económica que estaban dispuestos a llevar adelante unos siete estancieros de origen vasco, para instalar en Iparralde un Laboratorio de la Lengua Vasca, con el fin de garantizar la pervivencia del Euskera.⁵

Hoy la diáspora vasco argentina cumple un rol cultural muy importante. En cada una de las Euskal Etxeak se preserva y difunde la cultura, el deporte y demás manifestaciones características del pueblo vasco. La pregunta que el colectivo vasco argentino debería hacerse hoy sería: ¿cuál debe ser el rol de la diáspora vasca en el siglo XXI?

Si partimos de la realidad, de que existen más de 70 centros vascos en Argentina, donde sus miembros dan testimonio diario de la cultura, y si a ello le agregamos, que los vascos son una “Nación sin Estado”, como lo han sido durante gran parte del siglo XX, Irlanda, Israel y Armenia, ¿cuál debería ser su rol? ¿El cultural, o también incidir en los intereses soberanistas del pueblo vasco, en este caso en la diáspora argentina?

En el colectivo vasco-argentino, hay seis centros vascos denominados “grandes o tradicionales”, los mismos son: Laurak Bat de Buenos Aires, Eusko Etxea de La Plata, Unión Vasca de Bahía Blanca, Eusko Etxea de Neco-

⁵ IBIDEM, P 15

chea, Zazpirak Bat de Rosario, y Denak Bat de Mar del Plata. Desde la creación de la FEVA y hasta la actualidad, en el Consejo Directivo de FEVA, siempre tienen una representación asegurada, es más, la mayoría ocupa un lugar en la mesa de la FEVA, quedando para los centros vascos medianos y pequeños, los restantes lugares en el Gobierno de la Federación.

Los centros vascos denominados grandes se encuentran ubicados en ciudades de Argentina que tienen entre los 100.000 a los 2.900.000 habitantes (Buenos Aires, Mar del Plata, Necochea, Bahía Blanca, Rosario y La Plata), con un censo que va desde los 400 y 600 asociados. Mientras que en los centros pequeños, que se ubican en ciudades que tienen entre 10.000 y 100.000 habitantes, sus censos de asociados oscilan entre los 150 y 400. ¿Podríamos hablar de un fenómeno de centros abiertos y centros cerrados?

Es cierto que los centros de localidades pequeñas se encuentran muy vinculados a sus comunidades, y estos se relacionan con otras instituciones de su comunidad, manteniendo una buena sintonía con el poder político local, del cual en muchas oportunidades hasta forman parte del mismo. No es menos cierto, que en los centros tradicionales, existe entre sus miembros la fuerte idea de que ellos constituyen el núcleo de la colectividad, haciendo una valoración cualitativa de lo vasco en Argentina y desdeñando la variable cuantitativa. Asimismo, hoy es posible encontrar cuadros dirigentes más formados en los centros medianos y pequeños que en los denominados grandes.

No existen campañas de asociación en los centros vascos, si bien en muchas oportunidades miembros del colectivo vasco organizado hacen gala, cada vez que acceden a los medios de comunicación, de que en la Argentina hay 3.000.000 de personas con apellido vasco, cuando el colectivo asociado a las Euskal Etxeak no alcanza a las 20.000 personas. ¿No es éste un índice del desaprovechamiento estratégico del potencial de la diáspora vasca?. En este sentido, la pregunta siguiente sería ¿De quién es la falla del Gobierno Vasco, de la diáspora, o de ambos?

Una rápida mirada, nos muestra que los centros tradicionales cuentan con importantes instalaciones, y que desarrollan actividades deportivas, gastronómicas, enseñanza del Euskera, etc.,. Pero la experiencia de conocer “in situ” unas 60 instituciones vascas, muestra a las claras, que últimamente el mayor peso de la actividad cultural y el acceso a los medios, recae en los centros vascos del interior, denominados “chicos”, que tienen programas de

radio y acceso a la televisión y medios escritos, como, así también, dan clases de historia vasca en las escuelas del Estado, realizan conferencias, participan en ferias del libros, tienen sus boletines, y manejan con mucha inteligencias una herramienta tan importante como Internet.

En cuanto a temas como dar a conocer el “conflicto vasco” a los asociados y al público en general, es una tarea que recae en los miembros de instituciones pequeñas y medianas, quedando a los centros vascos grandes el rol de “acompañar” a las autoridades o funcionarios que de Euskadi vienen, sin más compromiso que el de buscar alguna relación con sus pares argentinos, más allá de la falta de un “Lobby Vasco”. En este sentido, el “Plan Ibarretxe”, fue difundido mediante conferencias en los centros del interior y con difusión en los medios, y los únicos actos que tuvieron lugar en centros vascos “grandes” para explicar la propuesta soberanista, denominada “Plan Ibarretxe”, estuvieron a cargo de políticos vascos, que visitaron el país como, por ejemplo, el propio Lehendakari en el Laurak Bat de Buenos Aires.

Mucho se habla en la diáspora vasco argentina de la formación de dirigentes. En este sentido, algunas actividades se han llevado adelante en dos rubros: formación en la historia, la política y geografía del país, cuyos cursos estuvieron a cargo de personas del propio colectivo, mientras, que la formación de temas de índole administrativo – financiero, estuvieron a cargo de técnicos del Gobierno Vasco. No existen datos de evaluación de estos cursos auspiciados por el Gobierno. Además, la pregunta inicial para abordar esta problemática tan importante como es la formación de dirigentes sería: ¿qué debe saber un dirigente de la diáspora de un centro vasco del siglo XXI?

¿Cómo se reconoce vasco una persona de tercera o cuarta generación de inmigrante en Argentina?

En Argentina, algo que sobra en el colectivo vasco es sentimiento vasco. ¿Cómo se manifiesta? Sencillamente, cuando una persona manifiesta en público y con orgullo, su pertenencia al colectivo vasco ya sea por tradición, más allá del escaso conocimiento de lo vasco, de la forma en que su abuelo o quien fuere vinieron al país, como así también en otros casos por el conocimiento de parte de la cultura. Con lo cual, lo que se aprecia, es que el potencial descansa en el “sentimiento”, mejor dicho, habría que indagar, qué es lo que le produce tanto sentimiento y emoción, a esa argentina o argentino étnicamente vasco, al reconocerse que a pesar de los 12.000 Km de dis-



"Denak-bat Euzko-batzokia", Mar del Plata Euskal Etxea (Hernandorena K.T., 2009)

tancia con Euskal Herria, él también es vasco, y tan vasco como el que vive en Euskal Herria.

Gran parte del colectivo, necesitaría el complemento de una formación vasquista, desde lo geográfico al conocimiento de la historia del país, como así también el origen del conflicto vasco como nación sin Estado. Ya resulta bastante difícil explicar, que la nación vasca se encuentra asentada sobre dos estados (Francia y España) y que posee tres sistemas políticos administrativos, y a partir de todo ello, que no hay vascos franceses, ni vascos españoles, y que los vascos, son simplemente vascos. Muchas veces, cuando uno dice esto, alguien podrá afirmar con todo derecho "eso es política", y es cierto, es política nacional, no partidaria, lo mismo que festejar el Aberri Eguna, concurrir al Alderdi Eguna, conformar la extraterritorial del PNV, o el Alkartetxe de EA o manifestarse militante de Batasuna etc. Lo cierto es que minimizamos algunas cuestiones que son importantes porque rozan lo político, cuando también lo es establecer una política, como la de aquellos que quisieran una diáspora, que

solamente juegue al Mus, que baile y coma y beba bien, “como les gusta a los vascos”. Si nos referimos al Estatuto de la FEVA, donde en el artículo segundo se establece que “la FEVA es apolítica”, debería corregirse y debería decir “apartidaria”. Mientras que el artículo siguiente estipula:

“La Federación procurará que entre sus afiliadas reine la mayor armonía, aspirará a la unión de las fuerzas vascas y vasco – argentinas y contribuirá en la forma más eficaz al mejor conocimiento de Euskadi (Araba, Benabarra, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Navarra, y Zuberoa) en la República Argentina, y a exaltar y defender los imprescriptibles derechos de los pueblos vasco y argentino, manteniendo relaciones institucionales con los Gobiernos de los Territorios Históricos e Instituciones Vascas Intercontinentales”.⁶

Aquí encontramos una referencia política inapelable, que en este artículo del Estatuto no hace más que encabezar el capítulo de las finalidades de la FEVA. En tal sentido, si hablar de Zazpirak Bat y de derechos imprescriptibles del pueblo vasco, si ésa no es una definición política, ¿qué queremos decir cuando hablamos de política? En tal sentido, se debería modificar el Estatuto. Es más, en el último Congreso Mundial Vasco, uno de los talleres estuvo integrado por miembros de tres diásporas, de naciones sin Estado, que ya no lo son, como Israel, Irlanda y Armenia. Es de imaginar, que su convocatoria fue para que les comentaran a los vascos allí reunidos, cuáles fueron los roles de estas diásporas cuando eran una Nación sin Estado que buscaban lograr su autodeterminación.⁷

CONSIDERACIONES FINALES

La diáspora vasco argentina constituye la mitad del total de la diáspora mundial, y se encuentra en una saludable y plena expansión, al menos así lo certifican las solicitudes de afiliación que en forma constante, hacen su ingreso a la FEVA. Ya conocemos sobradamente el rol que le cupo a la diáspora en general y a la argentina en particular, en los distintos momentos del siglo XIX y XX, cuando la diáspora se transformó en el único sostén cultural y económico de la Nación vasca. Falta definir cual será en el futuro.

⁶ FEVA, Estatuto, Op. Cit., P 1

⁷ Congreso Mundial Vasco, Gasteiz, 2003.

Un fenómeno, aún no abordado, se ha producido en la diáspora argentina a partir de 1980, cuando en el interior del país comienza a producirse un florecimiento de centros vascos, donde personas y colectivos étnicamente vascos toman la determinación de organizarse institucionalmente, muchas veces de la mano de sus escasos conocimientos, pero con algo que es fundamental: “el sentimiento” de sentirse vasco, tanto o más que alguien nacido en Euskalherria. Este fenómeno, ha provocado un cambio en la composición de la diáspora vasco argentina, que hoy está compuesta por unos 70 centros vascos entre activos y adherentes, habiendo unas treinta postulantes más, que se encuentran en estado de formación. Ante estos nuevos acontecimientos, la diáspora argentina ya no es la de las grandes oleadas migratorias, la de los centros vascos de acogida y socorros mutuos, o la del sostenimiento económico del Gobierno Vasco en el exilio. Un nuevo rol de la diáspora se deberá ir elaborando y los centros vascos y sus dirigentes serán los responsables de adecuar estas Euskal Etxeas a los desafíos del siglo XXI.

Mientras todo esto se debate, la formación y capacitación de dirigentes seguirá siendo una prioridad. La diáspora vasco argentina definir un nuevo rol para el siglo XXI, y garantizar la pervivencia de la colectividad vasca. En este sentido, temas como la participación y aportación a la resolución del conflicto vasco, ser un puente en las relaciones entre Euskal Herria y Argentina, deberán estar en la agenda. El desafío parece estar planteado; de la fuerza y capacidad de trabajo surgirá la resultante. El último Congreso Mundial Vasco ha colocado a los vascos del mundo frente a un espejo donde mirarse: Irlanda, Israel y Armenia, diásporas de Naciones sin Estado, que lograron diseñar su rol, y colaboraron en la consolidación de sus naciones en Estados Soberanos.



Pello Mari Otaño Buenos Aireseko Laurak Bat elkartean, hango bi kiderekin solasean (1906.06.15 – Familia)

Hoy la diáspora vasca es un gigante dormido, que intenta muy lentamente despertar de su letargo y comprometerse con los problemas del país. Pero resulta necesario una toma de conciencia de los vasco-europeos, del potencial que constituyen estas casi 200 casas vascas, y su asociados, como así también, los 6 millones de vascos mundiales. En tal sentido, y bajo la premisa que para lograr los objetivos soberanistas “no sobra nadie”, se deberá a comenzar a transitar un sendero de integración y de plena colaboración entre Euskal Herria y el Octavo Herrialde, que abarque los más variados temas y que implique a los más diversos colectivos, para lograr tejer los mimbres necesarios, que permitan avanzar hacia la conformación de una República Vasca en Europa.

8.

Pedro Mari Otaño: Lore-Jokoetako poeta bat Hegoaldean

Juan Maria Lekuona Berasategi Oiartzunen jaio zen 1927an. Euskaltzale eta euskal ikertzaile-familia ezaguneko kidea, nabarmen gertzen da ume-umetatik euskaraz izan zuen prestaketa. Euskal idazle eta apaiza, “*Oianburu*” ezizena erabili zuen idazten hasi zenean.

Poeta moduan nagusiki nabarmendu zen arren, bestelako lanak ere egin zituen: saioak, antologiak, biografiak... Manuel Lekuona osabaren eragina argi asko suma daiteke ilobarengan; ahozko euskal literaturaz egindako ikerketetan batez ere. Eusko Ikaskuntzako kide, 1987an euskaltzain oso izendatu zuten. Donostian hil zen 2005ean.



Juan Mari Lekuona Berasategi (1927-2005), euskaltzale, ikertzaile eta idazlea (Juan Mari Torrealdai, 1997 - Euskal Kultura Gaur)

Juan Mari Lekuonaren “*Pedro Mari Otaño: Lore-Jokoetako poeta bat Hegoaldean*” idazlana ekarri dugu liburu honetara. Idazlan hori, lana argitaratzea ahalbideratu digun Eusko Ikaskuntzaren eskutik *Antoine d’Abbadie (1891-1997) Ezhoiko kongresuan* aurkeztu zuen Juan Mari Lekuonak.

Pedro Mari Otaño: Lore-Jokoetako poeta bat Hegoaldean

JUAN MARI LEKUONA

Biografia on bat ezinbestekoa da poeta baten lana ikertu nahi baldin bada. Bizitzak lan hori histori barruan kokatzen du, historiak zehazten dituelarik poesigintza horren aro nagusiak, inguruneak eta eraginak, emanaldiak eta geldialdiak, izateko arrazoiak eta nolakotasunak. Biografiarik gabe, oso zaila da zehazten autore baten poesi mailako emaitza, zehatz-mehatz behintzat.

Guri dagokigun arloan, Pedro Mariren poetikan, hor dugu zorionez A. Zavalaren lan oparoa, *Pedro M. Otaño eta bere ingurua* deritzana, bi tomotan argitaratua¹. Eskuarteko gure lan honen oinarri hartuko dugu, bai datu historikoetan, bai testuen idazkera ziurtatuan. Eta jakina. testu azterketa izango da guretzat hartzen dugun asmoa eta zeregina.

Lehen puntu batean agertuko dugu zein izan diren aro nagusiak Otañoren poesigintzan, garbi geratzen delarik haren poetikan lore-jokoek duten eragin betea. Bigarrenik, Donostian Otañok egindako bertsoen sailkapena egiten da, eta poema hauek guztiak lore-jokoekin duten zerikusia ispilatzen. Hirugarrenik, leienda-poemen aipamen berezia damagu, Otañoren zenbait ezaugarri azpimarratuz. Eta azkenik. Pedro M. Otañoren nortasun poetikoa zirriborratzen da, bertsolaritzaren histori esparrutik egin ere, zizurkiltarrari buruzko irizpide orokorrigo bat ematen dela.

¹ A. ZAVALA. *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua*, “*Auspoa Sail Nagusia*”, “*Sendoa*”, Oiarzun, 1993, 2 t. Sigla hauen bidez emango dugu aditzera: AZ, 1, 39, lehenego zenbakiak tomoa emango duelarik aditzera eta bigarrenak orrialdea.

1. ARO NAGUSIAK OTAÑOREN POESIGINTZAN

Otañoren biografia bidaietan eta kokaleku jakinetan gauzaten da. Hiru aldiz joaten da Ameriketara eta bi aldiz handik etortzen, hirugarrenez etortzeko aukerarik gabe. Bertsolari trebea eta onartua gazte-gaztetatik. Orain behar dugu ikusi zer izan den biografiak erakusten diguna Otañori buruz bere bizitzako alderdi desberdinetan.

1.1. Poesia-prestakuntza urteak: 1880-1890

Pello Mari Otaño denbora gutxian bi aldiz joaten da Ameriketara: 1875ean, behar bada bigarren gerra karlista deitutakotik ihesi, baina handik azkar itzuli zen hona, gerra bukatu zelako edo. Berehala, ordea, 1880an, bigarren txandan joaten da Argentinara, aldi honetan hamar urte egin zituelarik han. Urtealdi hau da, hain zuzen, guk prestakuntza garaia deitzea duguna, Otañoren lana eta izena sendotzen hasi ziren garaia.

Formazio-urteak bezala har daiteke denboraldi hura, baina xehetasun hauekin: ordurako Pello Mari promesa bat baino zerbait gehiago ere bazela bertsolaritzan. Bereak zituen etxeko bertsogintza-giroa, bere lehenengo kantu-ikasketak eta kantu saioak, bere lehenengo bertso idatziak, “*On Fidel Lizarragari*” eskainiak, 1879an². Ordurako, esperantza bat zen euskal bertsogintzan, fruitu ederrak ematen hasia.

Beraz, ondare hau eta trebakuntza hau berekin zituelarik, hamar urte igarotzen ditu emigrazio-eremuetan. Urruti egonik ere, bertsolaritzaren ildotik lantzen ditu bere poesi dohaiak. Bi emaitza aipatuko nituzke, han urrutian egindako bertsogintzaren zehazgarri: eskutitzak bertso berrietan idatziak, hemen zabalkunde bat izan zutenak³, eta Ameriketatik bigarren aldiz zetorrelarik, “*Bera jaiotzen oiaren eske*” bere baserriko atean kantatutako bertsoak, bertsozaleek hain gogoan hartuak⁴.

Ezbairik gabe, bertsolari eginaren jarrera, onarpena eta agiria dira datu horiek guztiak. Izen bat duen bertsolariaren harremanak bertso-zaleekeiko.

². AZ, 1, 171-173

³. AZ, 1, 179-192

⁴. AZ, 1, 198-208

1.2. Poesi heldutasun urteak: 1890-1898

Bigarren txandan Ameriketarik etorritakoan, Donostian bizi izan zen. Eta hemengo giroaz bailaturik lantzen du bere bertso-gintza jakina, eta plazaratzen ere bai bere burua bertsozaleen eta kulturzaleen artean. Bertso-altxorrari dagokionez, *Zerbait* liburua da orduko bere bertso-gintzaren bilduma⁵. Eta zabalkundeari begiratuta, eta gure gaian bete-betean sartuz, hau da garaia, lore-jokoekin harreman estuenak eduki zituen, bere lanak sariketetara aurkeztuz eta sariak irabaziz. Hemen garatzen da Otañoren heldutasun poetikoa bete-betean. Donostian eta euskal jaien inguru iritsi zen Otañoren poesia bere umotasunera.



Pello Mari Otañoren antologia bat argitaratu zen Donostian 1930ean, "Olerki onenak" izenarekin. Aitzolek egin zion hitzaurrea. Ale hau Pello Mariren osaba Joxe Bernardoren alaba Eusebirena zen, lehengusuarena alegia. Honek azalean idatzita utzi zuena irakur daiteke: "Versos del tío Pedro Mari".

Zerbait deritzan liburuko bilduman dago, batez ere, garai honetako poesi emaitza. Bertso idatziak ditugu: bat aldizkarietakoak ("*Juventud Republicana*", "*Ei Thun-Thun*", "*Euskalerria*"); bai esker onez eginak (Iraolari, Emeterio Arreseri), bai sariketekin zerikusia dutenak asko (sartuak edota parte-hartuak); bai pertsona jakini eskainiak: bai bere altxorrekoak (*Oroi-menak*); bai bertso solteak ("*Iri apustu baten birez*", "*Azpeitiko premia zalata*"); bai musikariek eskatutakoak... Bete-betean plazaratua gertatzen da egilea, eta garaiko literatur agerpene-tan murgildua, garaiko bertso-gile aipatuenekin harremanak dituena, garaiko sentiberatasun ideologikoekin uztartua, eta bere poesi altxorra mukurutzen eta gordetzen hasi zen garaia.

Bestalde, lore-jokoekin duen lotura adierazteko, sariketetan izan zuen onarpenera aipa dezagun: lfarraldeko

⁵. P. M. Otaño, *Zerbait* "Victoriano Iraola-ren moldizkiran", Donostia, 1895

lehiaketetan hartu izan zuen parte: Donibane Lohitzunen, 1897an, “*Limosnatxo bat*”, poemarekin bigarren saria jasoz, nahiz eta poema hau 1893an argitaratua izan⁶. Maulen 1896an, “*Aur gurgarria*” Larraldeko Magdalena, izan zelarik, ezarritako gaia saritu gabeaz. Gai honekin aurkeztu zen Berako sariketetara ere⁷, baina hutsean geratu zen denentzat orduko sariketa, 1895ekoa. Hala ere, harrera hobea izan zuela esan behar hegoaldeko sariketetan: lehenengo saria Donostian, 1892an, “*Ama Euskara*” gaiarekin⁸; lehenengo saria Donostian, “*Donostiya uxua*” poemarekin, 1894an⁹; lehenengo bi sari Arrasaten, “*Kubako gure anaiei*” eta “*Aitona gizagaisoa*” poemekin, 1896an¹⁰; eta lehenengo saria Oiartzunen, “*Anaitasuna*” poemarekin, 1897an¹¹. Lore-Jokoak eragin ona dira Otañorentzat poesi lanetarako, eta plataforma ezin hobea bere poesia herrian txertatzeko, ezagutza eta izena eskuratuz. Ikus gero.

1.3. Euskal poeta heldua Argentinako giroan (1898-1910)

Pello Mari Otaño, bere bizitzako azken hamabi urteetan, han Argentinan, poesia aldetik begiratuta, Donostian burututako bertsogintzari darraio neurri batean. Gure ikuspuntutik begiratuta, Jadanik ez du harreman aipatzeorik, noski, lore jokoekin. nahiz eta lehenengo saria irabazi zuen “*en el primer concurso de poesías eúskaras, celebrado en América, Buenos Aires, noviembre de 1906*”¹².

Ameriketako azken egoitzan, asko aldatzen zaio ingurugiroa olerkigintzarako. Antzekoa du bere bertsoak argitaratzeko eskea, 1904an *Alkar* liburua plazaratzen duelarik Buenos Airesen¹³. Antzekoa du aldizkarietan bere poema llaburrak plazaratzeko eskabidea, aldian aldian bertsozko pieza txikiak gauzatuz. Baina erabat aldatzen zaiola esan daiteke, poseia jendaurrean emateko era eta modua. Haren poesiak ez dira hainbeste jendaurrean kanta-

⁶ AZ, 1, 381-385

⁷ AZ, 1, 432-438

⁸ AZ, 1, 366-370

⁹ AZ, 1, 407-416

¹⁰ AZ, 1, 456-466; 1, 446-456

¹¹ AZ, 1, 478-488

¹² “*Gu ta guk*” poemarekin, 1906. urtean, AZ, 2. 174-182

¹³ AZ, 1, 259-269

tzen, ohiko doinuetan, gutxiago noski, errezitatzen. Argentinan, Otañoren poesiak kantu eta pianoa lagun eman ohi dira, musikagileak bere protagonismoa duelarik: musika bigirietan aurkeztuak dira, poeta ia bigarren planoan geratzen delarik, musikararien ondoan, edota haren mende, euskararik ongi, edota batere menderatzen ez dutenen aurrean. Eta Ameriketako giroaren adierazgarri dira bi euskal opera: “*Artzai mutilla*” (Opera) (1900)¹⁴ eta “*Lora*” (Opera) (1907)¹⁵ libretoak Otañorenak direlarik eta Felix Ortiz y San Pelayo, azpeitiarra, berriz, delarik bi lanon musikagilea.

Ameriketako bertsoetan hauek dira aipagarrienak, ahozko zirkuituan sartu direnak, “*Alkar*” liburuari esker, eta aldizkarien laguntzaz ere bai: “*Alta semeak*” (“*Lagundurikan denoi*”), (1900)¹⁶: “*Ameriketako Panpetan*”, (1900) onbu eta intxaurra erkatuz landua,¹⁷ “*Zazpiak bat*” (1900) (Orixek bere poeman sartua baina bertsoak norenak diren esan gabe^{17a}; “*Maisubari*” (1903)¹⁸, Migel de Unamunori zuzendua. Beraz, esan daiteke lore-jokoen giroan ondutako olerkaria dugula Pello Mari Otaño; eta Argentinara itzulitakoan gehiago hartzen duela musika-bigirien girotik, bertsozaleengandik baino; eta bere olerkigintza gero eta gehiago doala ahozko estilotik idatzizko estilora. Ikuspegi ezinbestekoa da lore-jokoen giroarena Otaño behar den lekuan kokatu-ko bada, eta bere ibilbidea finkatu nahi badugu.

2. DONOSTIAKO BERTSOEN SAILKAPENA

Otañok Donostian eginiko bertsoak dira idazkitik ahozko zirkuituan sartu zirenen artean lehen fruituak eta, bestalde, hemen bereganatu zuen olerkari izena; hemen hartzen ere du bere bertsoegintzako nolakotasuna. Aski da bertsoen sailkapen bat, hori ikusaraz dezagun.

^{14.} AZ, 2, 199 eta hur.

^{15.} AZ, 2, 273 eta hur

^{16.} AZ, 2, 48-55

^{17.} AZ, 2, 61-67

^{17a.} AZ, 2, 56-60

^{18.} AZ, 2, 108-110

2.1. Kantagarriak ohiko eran landuak

2.1.1. Sariketei loturiko poemak (Guztira 5)

a) Sarituak

- “*Ama euskara*” 1892, Donostiako Euskal-festetan, “*izkrlbatzaileen indar neur-tzean*”, ohorezko aipamena, (mención honorífica). Hamarreko nagusian¹⁹.
- “*Limosnatxo bat*” 1893an egina, Donibane Lohitzunen Euskal Festetan bigarren saria, 1897. Hamarreko nagusian²⁰.
- “*Kubako gure anaia!*”, 1896, Arrasateko Euskal Festetan lehenengo saria. Hamarreko handian²¹.

b) Aurkeztuak

- “*Larraldeko Magdalena*”, 1895, Berako sariketara bidalia, non erabaki baizen saririk ez ematea atal honetan. Hamarreko handian²².
- “*Aur gurgarriari*”, 1896, Mauleko sariketara bidalia seguru aski, baina inolako aipamenik jaso gabe Euskal Festa horietan. Zortziko txikian²³.

2.1.2. Aldizkaritakoak (Guztira 4)

- “*Republika ta Fuegoak*”*, 1893, “*Juventud Republicana*”, Hamarreko handian²⁴.
- “*Bastilla*”, 1893, “*Juventud Republicana*”. Hamarreko handian²⁵.
- “*Españolak eta moruak*” 1893, “*Juventud Republicana*” Hamarreko txikian²⁶.
- “*Txepetxa*” 1894. Hamarreko handian. “*El Thun-Tun*”²⁷.

¹⁹. AZ, 1, 366-370

²⁰. AZ, 1, 381-387

²¹. AZ, 1, 456-466

²². AZ, 1, 432-438

²³. AZ, 1, 469-473

²⁴. AZ, 1, 373-375

²⁵. AZ, 1, 376-378

²⁶. AZ, 1, 379-380

²⁷. AZ, 1, 403-406

2.1.3. Poeta lagunen aipamena eskertuz (Guztira 2)

- “Ordañak”, 1892, Biktoriano Iraolari. Hamarreko handian.
- “Tolosar biursari gazteari”. 1896, Emeterio Arreseri. Zortziko handian²⁸.

2.1.4. Eskainiak (Bat)

- “*Ernani*”, datatu gabea, (On Manuel Zendoyari). Hamarreko txikian²⁹.

2.1.5. Oroimenak altxorrekoa (Bat)

- “Aitona eta illoba”, datarik gabe. Hamarreko txikian³⁰

2.1.6. Estrofa bakarreko solteak (Guztira 2)

- “*Azpeitiko premia zala-ta*”, 1894, bederatzi puntukoan³¹. “*Iri apustu baten birez*”, datarik gabe, bederatzi puntukoan³².

Sailkapen soil honek badarama berekin argibiderik gure gaiaren ezagutzarako. Oro har, Donostiako literatur mugimendua dago; eta inguramen honetan bizi da P.M. Otaño eta hor mamitzen du bere bertsogintza, Euskal Festen barruan, lore-jokoan eraginpean. Esku-hartzen du poesi lehiaketetan; “*Izkribatzaileen indar neurtzean*”, bulko bat direlarik kreakuntzarako horrelako deiak, gaitan ezezik, poesi ikuspegian, estiloan eta estetikan ere bai.

“*Euskalerrria*” aldizkariak Donostiako literatur mugimenduaren erakusketa izateaz gain, garaiko espiritua eta eragina biltzen ditu, lore jokoetako berriak, testuak. ospakizunak; eta aldizkariko arduradunak dira, hain zuzen lore-jokoan sustatzaileak ere hego aldean. Otañok Donostian idazten duen lehen saioan; “*Amets bat*” izenekoan (1891), amona xaharrak, Ama Euskerak, esaten dio “bila ezazu *Euskal Errria* izendatzen dan papera”, “joan zaitu aien artera”, eta leku pixka bat eskatzen du Euskal Errian³³. Aldizkari hau lotura bat da Otañorentzat lore-jokoekiko. Eta giro honetan sortzen dituen poemen argitaleku berezia.

²⁸. AZ, 1, 360-365

²⁹. AZ, 1, 398-401

³⁰. AZ, 1, 474-477

³¹. AZ, 1, 402

³². AZ, 1, 439

³³. AZ, 1, 345-347

Poeten arteko giroa ere eragin ona izan zela esan behar Pello Mariren olerkigintzan. Ameriketatik bigarren aldiz etorri bezain laister, Biktoriano Iraolak kanta dezala eskatzen dio; eta Otañok erantzuten *nik desio det ibilitzia / zure atzetik soldadu*³⁴. Beste aipamen bat ere badakar, “*Tolosar biursari gazteari*”, hau da Emeterio Arreseri. honek *Zerbait* liburuaren esperantzetan dagoela esaten dio. Eta Pello Marik erantzuten, gorazarre askoren artean “*gure illobak autan izango / zaituzten biursaria*”³⁵. Bertsotako gaitzat hartu zituen olerkarietz gain, jakingarri ere da, nori eskaini zizkion Otañok bere poemak. Adibide modura, bi aipatuko ditugu orain: Ramon Artola, etorri berri hartan³⁶; eta Antonio Artzak azkenaldian³⁷. Bakarrik esan nahi dut, harreman poetiko haue-tan nabaritzen dela poeta hauei esker Pello Marik izan zuen olerki-bultzada; eta non den Otañori dagokion lekua euskal poesiaren historian, eta zein den bertsolaritzaren historian hartzen duen eremua. Eta sugeritzen digu zizurkildar-rak duen lotura pertsonala beste euskal poetekin; bereziki Emeterio Arreser-ekin eta, honen bitartez, “*Euskal-esnalea*”-ko beste olerkari batzuekin.

Lehenengo azpisail hau, “kantagarriak ohiko eran” deiturikoa, bukatzean, ohartarazi nahi genuke, horrelakoak direla ifarraldeko sariketetara aurkeztuak, nahiz eta hegoaldean leienda poemak ere aurkezten dituen berehala ikusiko denez. Poema kantagarriok izango dira bertsolaritzaren zirkuituan sartuko direnak, herriak memorizatuz, eta horiek izango dira ere, kantutegietako anto-logietan jasoko direnak, klasizismo bat emanez Otañoren bertsogintzari.

2.2. Leienda-Poemak eta beste

Otañok Donostian eginiko bertso-sail berezietako bat da, ahoz kantatu-takoen sailean sartzen ez dena, eta guk Ieienda-poema deitzen duguna. Tira-detan emaniko bertso-andanak dira; gehienetara luzeak; Ieienda antzeko kontaera elekatzen dutenak, hitz lauz izan beharrean, puntu bereko esaldiak errenka emanez garatuak.

³⁴. AZ, 1, 364 eta 361

³⁵. AZ, 1, 442 eta 441

³⁶. AZ, 1, 339. “On Ramon Artola euskal izkribalari zanari ordainez”, eskaintzen dion poema “Amets bat” delarik.

³⁷. AZ, 1, 382: “On Antonio Arzac jaunari donkitua”. “Limosnatxo bat” (1893) eskaintzen dion olerkia



Errekalden intxaurra bazen, Argentinan onbua (Chascomus, 2009 - Hernandorena K.T.)

Izena jartzerakoan, Antonio Arzaken poesigintza eduki dugu gogoan. Donostiar olerkari honek baditu bertso-saioak, Otañoren hauekin antza handia dutenak, A Zavalak ‘poemak’ deitzen dituenak³⁸. Bidezko zen gai berari izen bera ematea. Baina poema hitza generikoegia zenez, hitz mugatzaile bat eranstea pentsatu genuen, “*Leienda*” hitza aukeratuz horretarako. Bi arrazoi hauengatik: handia zen garai haietan leiendekiko joera; eta bestetik antzekotasun bat nabari zaie Otañoren poema jakin hauei eta orduan ahotan zebiltzan leiendei. Hortik leienda-poema deitu izana.

Leienda-poemak

2.2.1. Sariketei loturikoak

- “*Donostiya uxoa*” 1894. Donostiako “*izkribatzaileen indar neurtzean*” lehenengo saria³⁹.

³⁸. A. ARZAK *Idazlan-sorta*, “Auspoa” 233 z., Oiartzun, 1995, 31 or.

³⁹. AZ, 1, 407-413

- “*Amona gizagaisoa*”, 1896, Arrasateko Euskal festetan lehenengo saria⁴⁰.
- “*Anaitasuna*”, 1897, Oiartzungo Euskal Festetan lehenengo saria⁴¹.

2.2.2. Sariketez kanpo daudenak

- “*Amets bat*”, Euskal-Erria-n argitaratua, aldizkari honetako atear idekitzeko eskatuz. Ameriketatik etorri eta lehendabiziko idazlana 1891⁴²
- “*Eizakuak*”, datarik gabe. Oroimenak altxorrean jaso⁴³.
- “*Karidadea*”, 1895, *Zerbait* bertso-liburuan argitaratua⁴⁴.

2.3. Teknika berezidunak

- Estrofako oin hautsiak errenka errepikatuz bukatzen da estrofa.

“Egon oi dira gurdiak
 loriak;
 nik nai det billatzen saia
 usaia,
 eta arki leike errez
 berez,
 nola dakarkiyen legez
 loriak usaia berez”⁴⁵.

- Akrostikoa: “*Oroitza*”, 1895, (Sociedad Union Artesana)⁴⁶.
- “*LetriIla-k*”, azken bi bertso berdinetan (tsu) errepikatuz estrofa guztietan.

*lkus** “*Limosnatxo bat*” eta “*Aitona gizagaisoa*”, *gorago emanak*⁴⁷.

⁴⁰. AZ, 1, 446-455

⁴¹. AZ, 1, 478-488

⁴². AZ, 1, 339-350

⁴³. AZ, 1, 392-396

⁴⁴. AZ, 1, 415-422

⁴⁵. AZ, 1, “Fernando Amezketarra” (1883), AZ, 1, 371-372

⁴⁶. AZ, 1, 414

⁴⁷. AZ, 1, 381-382, eta 447-450

2.4. Hizkuntz abileziak eta ezagutza

- Hitz homofonoen desberdintasuna erakutsiz: “*Nasketak*”, 1892, homofonoak izanik ere, poto egiten ez dutenak heterografoak direnez⁴⁸.
- Letra berarekin hasiz estrofako hitz guztiak, “B” letrarekin, 1892. Antzeko bertsozintza Pope Artolak, adibidez⁴⁹

“Baldin bizi baleike
bat bakarrik berez,
besteren biarrikan
bage, bakardadez,
baliteke buruba
berotzia birez”

2.5. Doinu berrien letrak musikaren eskariz edo

- “*Beti-betiko*”, Buenabentura Soroaren musika (d.g.)⁵⁰.
- “*Gu ta gutarrak*” d.g., Antonio Espondak eskatua⁵¹.
- “*Karidadea*”, Migel Oñateren doinuan, 1895⁵².
- “*Larriya*”, Romanza de Oñate, 1895⁵³.
- “*Maitaro*”, (d.g.) Migel Oñateren musika⁵⁴.
- “*Legazpi Aundiari*”, 1897, musika Busca Sagastizabalena⁵⁵.

⁴⁸. AZ, 1, 351-357

⁴⁹. AZ, 1, 358-359

⁵⁰. AZ, 1, 388-391

⁵¹. AZ, 1, 397

⁵². AZ, 1, 425-431

⁵³. AZ, 1, 425-431

⁵⁴. AZ, 1, 467-468

⁵⁵. AZ, 1, 489-491

Otañoren bertso-gintza, kantagarria den hura, ahozko zirkuituan sartzen da, bertsozaleek buruz ikasi eta kantatzen dutelako. Baina badu beste bertso-gintza bat kantatzeko ez dena, eta idatziaren munduan geratzen dena, kide-kotasun bat agertuz estilo idatziarekin erakusten du antzeko gustamolde bat; orduan idazten eta dastatzen diren eleketekin; antzeko onarpena grafiarekiko eta honek dakarren ziurtasunerako, antzeko berrikuntz nahia poesi tekniketarako; antzeko egokitzapen gogoia emanaldi poetikoetarako, euskal hitza bigirietan sartuz. Otañok, nahiz eta formazio apartekorik ez bazuen ere, bertso-lariak eskuarki ez duten prestakuntza erakusten du hizkuntzari eta bereziki poesigintzari dagozkienetan.

Hiru leienda-poema ditu hegoaldean saritutakoak. Eta joera hori Donostiara etorri berri zenetik hartzen badu ere, gogora “*Amets bat*” 1891koa dela, eredu honetakoak ditu azken aldian saritutako olerkiak.

Letrak enkarguz ere egin ohi ditu; musikariek eskatuz, kantu berriak sortzeko. Zeregin hau oraindik areago gertatuko zaio azken txandan Argentinara doanean. Pello Mari gero eta gehiago erabili izan da letragile bezala. Honek erakusten digu nola Otañoren poesigintza neurri batean antzekoa dela musikariren formazio eta gustuekin. Eta izen bat baduela zizurkiltarrak, eta onarpen kultural bat ere bai, bere poesia garaiko musikalanen osagai izateraino.

Alderdi hauek guztiak Otañoren Donostiako bertso-gintzan azaltzen dira. Familiatik eta herritik zekarren bertso-kora hiri nagusiko joera berriagoetan txertatzen da, honetan mamituz, lore-jokoen inguru-minguruan, Otañoren poesia ikasia, hizkera garbikoa, esaldi zorrotzekoa, ongi neurtua, irudimenez aberatsa, arrazoitara sakona, erromantizismo sentiberatasunez josia, kantuari atxikia.

3. LEIENDA-POEMEN AIPAMEN BEREZIA

Poema kantagarriak alde batera utziz, horien nolakotasuna ezagunagoa denez, guk *leienda-poemak* hartzen ditugu aztergai, gutxiago ezagutzen direlako eta Otañoren ezaugarri berezietako bat erakusten digutelako. Poemok sentiberatasunez garaiko eleberrien otina dakarte, hemen erderaz idazten zenaren sentiberatasuna. Helburu pedagogiko bat dute, zeregin didaktikoa gogoan, hartzaileen heziketa bilatzen dutela kulturean, ohituretan eta herrigintzan, batez ere euskararen arloan.

3.1. Poemetako osagaien aukera

- “*Donostiya uxoa*”: Gipuzkoako hiri nagusiari gorazarre egiten zaio, usoa-
ren iruditik Donostiaren irudia emanez alegorizazio landuan. “*Sartu
gabe kondaira / luziagotetan / urra nere iritziz / Donostiya zer da*”⁵⁶.
- “*Aitona gizagaisoa*”: Aitona zaharra eta olerkari gaztea euskararen etor-
kizunaz elkarrizketa “*Miru gaiztoak menderatutzen / duten bezela uxua /
etzazutela iltzera utzi / gure euskara gaixua*”⁵⁷.
- “*Anaitasuna*”. Ezarritako gaia, “pakearen mesedeak”. *Gerrik onena zer da
azkenik? / Da doakabetasuna: / biotz gogorren zitalkeria, / pozoiezko erantzuna;
/ arlotegintza ta oñazea. / gosea t’ eritasuna; / eriotza eta infernua... / Ta
pakea?.. Osasuna*”⁵⁸.
- “*Amets bat*” Umetzaroko oroitzapenak, herrimina Ameriketan; amets
egiten du poetak: etxean dago aita-amekin. Etxean ostaturuz amona
xahar bat daukate, Euskara. Poeta etzanik dagoela gelan amona xaha-
rra agertzen zaio “Euskal-Erria aldizkarian esku-har dezan eskatuz”⁵⁹.
- “*Elizakuak*”: Mundu zaharra eta mundu bema; elizakoak beren aintzinate-
ko xarmaz; eta gaurko egoera jakina, elkar ezagutu gabe bizi beharra⁶⁰.
- “*Karidadea*”: Itsaso zakarra, ekaitza. Hondamendia: ontzia ondora.
Negarra. Karidadea. “*Au da egiñ bearra l daukagun tarea. / O, zer gauza ede-
rra / dan karidadea*”⁶¹

Pello Mari Otañok kontakizun bat hartzen du ardatz, han josten dizkiola-
rik bere pentsamentu eta sentimentuak. Prosa egin beharrean badirudi ber-
tsoak ez diola debekurik ematen kontaerarako, baizik eta baliabide poetikoak
ugarituzkiola, hitz lauz bezain eroso aritzeko bertsoan, bere eleketa poe-
tikoan. Ugaritasun hau, eta bertso-klitxeen berritasuna gogoan, garatzen du
poema, otañotar seilu bereziaz.

⁵⁶. AZ, 1, 412

⁵⁷. AZ, 1, 449

⁵⁸. AZ, 1, 485

⁵⁹. AZ, 1, 345-347

⁶⁰. AZ, 1, 392-395

⁶¹. AZ, 1, 420-421

3.2. Metrika oharrak

Leienda-poemetaz ari garelarik, oso berezia da Otañok horietan erakusten duena: tirada dela horien modulu nagusia. (Ez bakarria, noski, estrofa ere tar-tekatzen dituenez). Tirada luzeak gainez, 17, 12, 32, 30, eta 24 puntuko zerrendak adibidez, nahiko harrigarri dirudien arren.

Bada leienda-poemetan hoskidetza bat homofonoa ezezik homografoa ere dena, zerrenda guztiak beti berdin esaten eta idazten direla, eta guretzat erdarazko errimarekin antzarik handiena duena. Baina hor ez da agortzen eta bukatzen hoskidetza. Gauza gehiago sartzen dira euskal hoskidetza ber-tsolaritzakoan, eta xehekiago Otañorenean.

Hotsen eta grafemen berdintasuna baino gehiago (hala nola erdaran), *ingurune foniko* bat bilatzen eta gauzatzen da, lege batzuen barruan:

1. Ez da onartzen Otañoren ber-tsogintzan atzizki hutsez egin-dako hoskidetzarik.
2. Atzizkiaren aurretik bokal bat edota kontsonante bat hartuko du beti; hori gutxienez. Hala nola desiUAK, IUAK; eguNA, gizoNA.
3. Azkenaurreko silaba hori oso-rik hoskidetu dezake, seriazio-ak eginez. Adibidez: beSUE-TAN, baTZUETAN, berTSUE-TAN, oSUETAN, peTXUETAN eta abar; edota poztasUNA, jUNA, osasUNA, txukUNA, eta abar.
4. Heren silabako bokala berdina eman dezake, hoskidetza aberastuz zenbait kasutan. Ikustagun: bATETAN, pAnPETAN, AnBERTAN, pAKETAN, dANE-TAN, ArrETAN, gAUbETAN...



Buenos Aireseko Laurak Bat elkarte 1877an sortu zuten. Pello Mari Otañok lotura berezia izan zuen elkarte honekin eta bertan euskara irakasten ere aritu zen (Ontzalu, 2007)

Otañok, tradizioari jarraituz, ingurune fonikoa bilatzen du, ingurumari aberatsa, azkenurreko silaba osoa hoskidetzea ezezik, heren silabatik ere inoiz asonantzia bat markatzen duela. Eta multzoak bilatzen ditu, bakoitzarekin seriazioak egiteraino.

Behar bada, ingurune foniko hori finkatzeko, Otañoren bertsogintzan ez dago hain markatua zenbait kontsonanteren baliokidetzak, nahiz eta joera hori nabaritzen den zenbait kasutan. Ikus gorago, bATETAN, pAnPETAN, pAKETAN, nahiz ez oso zehazki eman baliokidetzak hori.

Beraz, esan liteke, Otañok leienda-poemetan ingurune fonikoa bilatzen duela, aberatsa, ez zehatza eta seriazioak eginez ere gauzatzen dena. Bertso-laritzako eskola ongi menderatzen duenaren ekarria, lore-jokoetako munduaren osagarri. Aberastasuna sartu zuen euskal hoskidetzak idatzian eta estilistika bat ezarri bertsolaritzan, Xenpelar eta Bilintxen ildotik.

4. ONDORIOAK

- 4.1. Berezko dohaiak ditu Otañok bertsogintzaren alorrean, ugaritasuna, zehaztasuna, abilezia. Ugaritasuna datorkio bertsolaritzaren altxorra menderatzetik, etxean ikasitakotik noski. Zehaztasuna bere izaeratik datorkio, bere formaziotik, bere langintza pertsonaletik. Eta abilezia ere berdin: bere ikasketetatik, poesi manejuak jakitetik.
- 4.2. Lore-jokoek ematen diote beren eragina. Zuzenean behartzen dute gai jakinak mamitzera, teknika berriak bilatu eta lantzerak, maila bat erakustera, altxor bat edukitzera. Zeharka ere eragiten diote antolatzailen poetika ezagutzera eta poeten belaunaldi jakin batekin harreman ongarriak edukitzera.
- 4.3. Lore-jokoak direla-ta, ezagutza eta izen publiko bat bereganatzen ditu poesi alorrean. Otaño, sariak jasotzerakoan, kantatua izan zen jendaurrean; eta bere leienda-poemak irakurriak ere izan ziren, hala nola Donostian, Arrasaten, Oiartzunen. Ezagutza eta izen publiko bat irabazi zituen entzule haietan. Beraz, Donostian hasi zen mamitzen Otañoren bertsozko emaitza, Argentinan gero eskainitakoa hemengoaren jarraipena baizik izan ez zelarik.

- 4.4. Baina Otañoren zabalkundea liburuetatik etorri da. *Zerbait* (Donostia, 1895) eta *Alkar* (Buenos Aires, 1904; Donostia, 1930), bertso-antologietatik, lore-jokoetan hasitako liburu-emaitzatik.
- 4.5. Pedro Mari Otañoren errainua, lore-jokoez kanpo, ahozko zirkuituan biztua izatetik nabarmentzen da. Gerraurrean eta gerrostean, bertsozaleek buruz ikasten dute Otaño, eta erreferentzia klasikotzat hartzen. Eta nabarmenago dena, Basarrik eta Uztapidek, eredutzat hartzen dute Otaño, jantzia delako, ugaria, euskara garbikoa, arrazoizkoa, errespetuzkoa, garaiko eskakizunei egokituagoa. Geroztik, Amuriza etorri arte behar bada gehienik eragin duen maisua izan da Otaño bertsolaritzan. Baina arazo hau lore-jokoen girotik kanpo geratzen da.

Lekuona, Juan Mari: "Pedro Mari Otaño: Lore-Jokoetako poeta bat Hegoaldean". Non: *Antoine d'Abbadie 1891-1997 : Congrès International = Ezhoiko kongresua. Hendaia - Sare, 1997*. Donostia: Eusko Ikaskuntza ; Bilbo: Euskaltzaindia, 1998; 523-534 or.

INFORMAZIO ITURRIEN BERRI OROKORRAK

Bibliografia:

- Aizpuru, Mikel – Gerónimo de Uztariz: *Vascófilos y bertsolaris, conformadores del nacionalismo vasco en el último tercio del Siglo XIX* – nº 16.
- Aranburu, Pello Joxe, eta beste batzuk: *Claudio Otaegi (1836-1890)*, IV. Gerriko Ikerlan Sariketa - 1993
- Idem: *Norteko Trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan, I Liburukia*. - 2006,
- Arostegui, Julio eta abar: *El Carlismo y las guerras carlistas* – La esfera de los libros – Madrid, 2003
- Arozamena Ayala, Ainhoa eta beste: *Historia del Pueblo vasco 3* - E.U.T.G. - Erein - 1977
- Caro Barojak, Juliok zuzendua (Apalategi, Castells, Elorza eta abar): *Historia General del País Vasco* -- Haranburu-Editor, Donostia.
- Dueso, J.-k zuzendua (Eyara, Zabala, Txillardegui eta abar): *Historia de Euskal Herria* -- Ediciones Vascas argitaletxea – Donostia
- Estado Mayor del Ejército: *Narración militar de la Guerra carlista, 1869 á 1876. Tomo III* – Madrid, 1884.
- Fernandez de Pinedo, Emiliano, Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco 1100/1850 – Siglo XXI editores – Madrid
- Goikoetxea, Joseba Salvador: *Sorabilla, Karlistaldien hondamendiaren lekuko* - 2009,
- Goñi, Joseba eta abar: *Historia del Pueblo Vasco* - EUTG-Erein
- Hernando, Francisco: *La campaña carlista (1872 – 1876)* - Roger & Chernoviz, 1877
- Hernandorena K.E.: *Sustraiak, 1 zenb.*, Zizurkil 2008
- Lekuona, Joan Mari: *Ahozko Euskal Literatura* - 1982
- Mora, Juan Carlos: *Zizurkil (II) – Gizarte tradizionala Zizurkilen (1615-1800)* - 2006
- Pirala, Antonio: *Historia contemporánea - IV tomoa* – M Tello, 1880

Rodríguez Ranz, Jose Antonio: *Gipuzkoako komunikabideen historia 3/1833-1937* – Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003.

Tuñón de Lara, Manuel: *Historia de España* - Ed. Labor

Tuñón de Lara, Manuel: *La España del siglo XIX* - Edit. LAIA. Barcelona. 1976

Ugalde, Martin: *Historia del País Vasco* - Elkar

Zapirain Karrika, David: *Zizurkil (III) – Aldaketa haizeak (1800-1950)* - 2007

Zavala, Antonio: *Pedro Mari Otaño eta bere ingurua (I eta II)* - 1993

Artxiboak:

Donostiako DEAH: Sakramentu agiriak; Zizurkilgo parrokia matrikula; Artzain Ona parrokiako agiriak

Donostiako UA: Padroiak

Oñatiko GPHA: 3/2946; Hipoteka liburua (H)

Tolosako GAO: Protokoloak (PT), Korrejimendua (CO,LCI edo UEJ); Karlisten fonda

(CA); Junta Jeneralak (JD,IT);

Villabonako VUA

Zizurkilgo ZUA

Internet sareko webguneak:

susa-literatura.com

argia.com

euskalkultura.com

Euskomedia Fundazioa, Euskal Kultura Online

Euskosare.org

ine.es

Literaturaren zubitegia. Otaño

Klasikoen gordailua. Pedro Mari Otaño

INFORMAZIO ITURRIEN BERRI ZEHATZA KAPITULUKA

Informazio iturrien berri zehatza erantsi dugu kapituluka. Ohar bakoitzak liburu- orrialdea eta lerroa adierazten du lehenik eta artxiboko iturriaren xehetasunak gero.

1. - EUSKAL HERRIA XIX MENDEAN

33-20, Aizpurua

2. - ZIZURKIL XIX. MENDEAN

(40+1-3) Rodríguez, J.A, 125, 132 ; (40+4-6), Aranburu, Pello Joxe, 166-167; (40+4-6), Hernandorena, 1. zenb.; (41+15), Goikoetxea, J. 53-61 ; (41+15) Cuerpo del Estado Mayor del Ejército; (42+11), Hernando,118; (44+13), ZUA,254-04; (45+4),www.ine.es; (47+1), ZUA,254-04; (49+9), ZUA, 172, 196 eta 196bis; (49+9), ZUA, 254-04; (55+2), ZUA, 189-01; (57+3), ZUA, 189-01/189-2; (60+8), ZUA, 254-04; (64+1), ZUA, 189-02; (66+1), ZUA 189-1); (67+13), Zapirain,63-106; (68+2), GAO,JD IT,576a,2.

3. - PELLO MARIEN AURREKOAK: OTAÑO ETA BARRIOLATARRAK

71-5, Zapirain,63-106; 74-15, GAO, CO LCI, 5230; 74-19, PT. 2177, 115-117, PT, 2928, 170-172, PT, 794, 177-178; 75-3, CA 3,4; 75-4, Zapirain, 12; 79-27, Zavala I, 31-32; 81-12, GPAH, 3/3037, 2036-2044; 81-20, GAO, JD IT, 576a, 2; 82-7, GPAH, 3/3500; 85-14, Zavala I, 91-101; 86-3, Zavala I, 47-49; 86-18, PT, 3430, 335-336; 86-22, PT, 3430, 481-482 eta 3704, 2375-2378; 87-3, Zavala I, 54-56; 88-3, PT, 3430, 915-918; 88-13, PT, 3433, 881-892; 88-20, PT, 3752, 382-384; 88-22, DEAH, 3299-4; 89-8, GPAH, 3/3973, 112-114; 89-15, PT, 3825, 597-602;.

4. - PELLO MARI OTAÑO BARRIOLA (1857-1910)

98, VUA, 1092-6 eta 305-4; 111-5, Aranburu, 1993, 75-82: 115-5, Lekuona.

PELO MARI OTAÑOREN ARNASA
(1857-1910)

Liburu hau
2010eko apirilean egin zuen
antza inprimategiak.



Goitik behera, Joxe Iztueta, Teodoro Mujika, Kamio txikiko Miel Joxe Garmendia, Adunibarko Serapio Mendizabal eta Argentinako Susana Ardanaz Otaño "Txuri".

Hurbilean eta gurekin bat eginda beti, lan honetarako ezinbesteko iturri nagusi izan ditugu.

"Aztutzen dira noizbait izkribatzen ez diranak" zion Pello Mari Otañok. Eskuartearen duzun lan honetan gure olerkariak ezagutu eta bizi izan zituen Zizurkil, Euskal Herria eta Argentina jasotzen ahalegindu gara.

Pello Mari Otañoren arnasa ez da ipuin edo nobela bat, oinarri eta sustrai sendoko biografiako ekoizpena baizik, XIX. mendeko giro historikoan kokatua dena.

Pello Mari Otañori eskainitako liburu hau ulertteraza egiten saiatu da Hernandorena Kultur Taldea, edonork hartu eta inongo eragozpenik gabe irakurtzeko modukoa. Tarteakatu diren argazki, mapa eta irudiek ere helburu bera dute. Irakurleak ez du informazio edo oinarrizko oharrik aurkituko, ez testuan, ez orrialde azpian, ez kapituluaren amaieretan. Zailtasun eta desbideratze guztiak kendu zaizkio, arreta osoa liburuaren dastapenera eta mezua barneratzera bideratuz.



**HERNANDORENA
KULTUR TALDEA**